


JOSE MANUEL ARRIZABALO
ANTONIO ZAVALA



BASO-MITILLAK

4438
GAS-128/18



BASO-MUTILLAK

EDITORIAL AUSPOA

**Plaza de Santa María, 2 — Teléfono 67.12.82
Tolosa (Guipúzcoa)**

JOSE MANUEL ARRIZABALO
ANTONIO ZAVALA

BASO-MUTILLAK

AUSPOA LIBURUTEGIA

1979



José Manuel Arrizabalo

AZALA:

Irati'ko basoa.

Diego Quiroga Losada, Marqués de Santa María del Villar zanak 1910 urteko udaran egin, eta Zangotza'ko *Casa de Cultura de la Caja de Ahorros de Navarra*'ri eskerrak liburu onetan argitaratzen degun argazkia.

© Auspoa Liburutegia - Tolosa (Guipúzcoa)

Imprimatzaile: Gráficas Sortu, S. Coop. - Políg. Ind. 15 - Cizúrquil

Depósito Legal: S. S. 215/1979

ISBN 84-7158-064-0

Marzo - 1979

ARKIBIDEA

Andutz mendia	9
Aitita	21
Gizon ospatsuak	35
Itziar'ko Ama	52
Lengo baso-mutillak	59
Bildotxola anaiak	65
Irati'ra	75
Irati	79
Elurtea	86
Txabola	94
Baso-lana	100
Pedeluc	108
Igandea	111
Pedro Larralde'ren eriotza	117
Salbatore'ko ermita	121
Ama Birjiña eguna	125
Luzio Tanko	130
Egualdia	134
Joanito Zapparro	139
Donibane-Garazi	142
Salbador mutilzarra	146
Arrantxeroa	153
Etxera	158
Azpeitia	162

ANDUTZ MENDIA

Andutz mendia, mendi polita da berez. Orain piska bat zatartuta dago, sasiz, sastrakaz eta arantzaz betea. Baiña garai batean garbi-garbia zan.

Piñu-mordoska batzuek ere badaude. Arretxaraka asko dauka itxas-aldeetik eta Mardai aldeetik, bertan jaioa; arri asko ere bai. Arantza ta sasi asko Itziar aldeetik; Lastur aldeetik mendi garbiagoa da. Lenago pago-mordoska batzuek ere baziran; orain bat ere ez.

Andutz mendiaren gallur-punten izenak emen argitaratzen ditut. Itziar ondotik asi ta Ezteia ondoraiño luze da Andutz mendia.

Agiro-mendi aldera, Ezteia baserri orren ondotik asita, badago mendi-punta zorrotz bat. Arri asko du. Ezteia'ko aitza dauka orrek izena.

Andik Itziar aldera badauka sakon txiki bat. Ezteia txikiko saletxe-aldea dauka orrek izena.

Andikan piska bat gorago, badago zelai-une txiki bat. Ezteia-aundiko saletxe-aurea du izena.

Andikan gorago dago, Itziar aldera, mendi-punta bat zorrotza. Arri asko du. Saltsamendi'ko punta du orrek izena.

Lastur aldeko ertzetik badu aitz-zulo kaskar bat. Koba-aldea du izena.

Saltsamendi'ko puntatik berago, Itziar aldera, badago mendi-mutur txiki bat. Murgizarreko borda-aldea du izena.

Orain Urreitsu argitaratuko det. Ori mendiaren erdian dago, gain txabal baten. Oso leku ederra dauka udaran abereentzako, bere putzu ta guzti. Saletxe polit bat ere antxe dauka. Urreitsu'k badu iturri-putzu txiki bat. Eguzkia ateratzen dan aldetik, aitz-txulo batetik, jaiotzen da. Oso ur preskoa da, jendeak edateko. Arpoto dauka izena.

Urreitsu'k badu, bere pegante, mendi-punta polit bat itxas-bista aldera. Elorri-zarreko punta du izena.

Urreitsu bi parte egiten da: Urreitsu ta Urreitsu-goikoa.

Urreitsu-goiko eskiñatik gauza asko ikusten da: Itziar'ko Ama Birjiñaren eleiza ta erri-alde dana. Arrate'ko Ama Birjiñaren eleiza ere andik ederki ikusten da.

Urreitsu-goikoa'k baditu eskiñatik bi sakonzulo zazar. Urreitsu-goiko zulo zarra esaten zaie aieri izena.

Urreitsu-goikoa'ren pegante, piska bat Itziar aldera, mendi-punta bat dago. Arri asko du. Uraxe da Andutz-mendi'ko gallurrik altuena.

Torre polit bat ere badago antxe, itxas-

gizonak egiña, gizaldi askotan ezagutu dana.

Torrearen gertuan gurutze eder bat dago. Lenago etzan an gurutzerik. Bizkaitarrista izeneko soziedade bat etorri zan, gurutzea bizkarrean zutela, ta tentetu. Apaiz bat ere ekarri zuten; arek eman zion bedeinkazioa. Gero, "Gora Sabino Arana Goiri" kantatuaz joan ziran. Neronek ikusi nituan oiek, mutil koxkor txikia nintzala. Irurogei urte urrean dira.

Aiek altxa zuten gurutzea egurrezkoa zan, da usteldu ta erori egin zan. Berriz altxatu zuten burnizkoa, oso ederra. Uste det nazionalistak jarri zutela, baiñan seguru ez dakit. Ura tximistak bota zuan.

Orain zutikan dagoan ormigoizko eder ori, Itziar'ko langille iaioak eta egokiak altxa zuten, da eskerrik asko danoi.

Karta largatzeko lekua ere antxe dauka gurutzeak, lurretik piska bat goraxeago.

Orri izena bi modutara esaten zaio: Torre-aldea lengo izen zarra; baiña Gurutze-aldea ere berdin esaten zaio orain.

Gurutzetik beraxeagoan, Itziar aldera, leku aldapa dago. Elur-zulo zarra ere antxe dago, arri leunduakin Telleri baserrikoak egiña.

Telleri baserriko oiek elurra bildu ta zuloan sartu, ta sakatu edo zanpatu ondo ta tapatu. Gogortu egiten omen zan gero. Udaran, be-roak asten ziranean, saldu erriz-erri. Elur-zuloan palakin ebaki, pusketak egin da zaku-an sartu; ta astoakin artu ta bear zan lekura eraman.

Lan penoso oiek egiten ibilli ziranak, Jau-nak zeruan euki ditzala.

Piska bat berago dago zabal-une txiki bat. Ipiola'ko saletxe-aldea du izena.

Andik itxas aldera badago gallur-punta bat, baju samarra. Arri asko dauka. Txorilar'ko punta du izena.

Gallur oietan dabiltzanak, ondo ibilli dite-zela.

Andutz mendiak, bere bueltan da babesean da gallurretan, ogei ta amar ardi-txabola bazituan nere gazte-denboran. Orain geienak erorita daudela nik uste det; tellatutik bera lurra jota.

Txabola oiek, beren atarira, gurdi-bide po-litak bazituzten, abereen zimaurrak soroetara eramateko.

Nik Andutz-mendia ondo ezagutu nuan. Txiki-txikitatik, aitarekin da aititarekin, ara joaten nintzan ardietara.

Aititaren lana, nik ezagutu nuaneko bein-tzat, artzantza izaten zan. Tarteetan eizean ere ibiltzen zan.

Irurogei bat ardi izaten giñuzen etxean, Negu-partean, etxearen bueltako barrutietan ibiltzen ziran; udaran, berriz, Andutz mendian, goiko gallurretan.

Gure aitita, udaran, artu kantiña edo mar-mita bizkarrean, makillan sartuta, ta egunsen-tirako Andutz-gaiñera joaten zan askotan.

Andutz'en txabola bat bagenduan, Garaban-go baserriaren parean goien, ta antxe ardiak

juntatu ta esneak bildu. Gero, etxera etorri esneakin, eta amamak eta amak gaztaiak egin, etxerako ere bai ta saltzeko ere bai.

Ni, piska bat gogortu nintzanean, ortxe amar bat urte inguru nituanean, aiteitarekin joaten nintzan. Etxetikan iru ordu laurden pasako bidea zan txabola artara.

Gurutzearen ondotik, itxaso sail aundietan ikusten da, ta mendi asko ere bai. Mendi txiki bat izateko, oso bista aundiak daude. Aititak onela esaten zidan:

— Aiek, arunzko punta zorrotz aiek, Urkiola aldeko mendiak dituk, Anboto-eta; beste aiek, berriz, Aitzkorri ta Aralar; beste ura, Ernio; tarteko ori, Izarraitz.

Beste mendi txiki geiago ere erakusten zidan. Erriak ere bai: Zumaia, Zarautz, Arrua, Itziar an bertan... Getari, Deba, Motriku ta Ondarroa ez dira ikusten, sakonean daude-ta.

Batzuetan itxaso txarra, ta berealaxe akordatzen zan aitita. Ontziak bazterreratu eziñik ikusten zituan, da:

— Gaur larri zebiltzik mariñelak itxaso txarrarekin!

Beste batzuetan, berriz, ontzi edo txalupa txiki-txikiak, beltz-beltzak, pilla izugarriak ikusten giñuzen. Oso urrutira apenas joaten ziran aiek; orduan arraia asko zala nunai ere, esaten dute arrantzaleak-eta. Nik ez jakin aiek zertara joaten ziran; baiña antxe beren ontzi txikiakin.

Aititak esan oi zidanez, mariñelak arraitara urrutira dijoazenean, Andutz'ko torrea ikusten

omen dute azkena; ta gero, bueltan etxera datozenean, aurrena ori ikusten omen dute. Zumai'ko, Motriku'ko ta Ondarroa'ko arrantzaleai entzuna omen zuan ori.

Ni, Andutz mendian, orrela ibilli nintzan txikitan.

Gero, eizerako apizioa sortu zitzaidan, da antxe saiatzen nintzan. Arrapatzen nituan erbiak; basakatuak ere bai; ollagorrak ere bai; eperrak ere bai; beste zenbait txori ere bai; zapelaitzak eta usoak ere bai. Ni antxe gustora ibiltzen nintzan eizean da artzai.

Nik banuan laguna eizerako: txakur zuri aundi bat. Izena Kapitan zuan. Txakur arek edozein piztiren usaia artzen zuan ondo; ta arek billatzen zituan eizak, nik tiroz bota.

Gero, Naparroa'ra basora joaten asi nintzan. Orduan utzi nion eizean ibiltzeari.

Nik, Andutz-mendian, milla bat abere inguru ezagutu nituan: ardiak eta auntzak, beorrak eta larre-beiak ere bai; zezenak ere bai. Orain oso gutxi ibiltzen dira.

Orain pizti txarrak ugaldu omen dira: azariak eta azkonarrak. Lenago ere ugaldu omen ziran nere aititaren sasoi-denboran; da ura eiztaria izan da aretxek Andutz'ko pizti danak arrapatu ta pakea egin. Ni eizean ibiltzen nintzanean, etzan orrelako pizti aundirikan. Orain arrapatzeko ia suertea izaten duten.

Orain agertuko ditut, Andutz-mendiak babesean dauzkan baserrien izenak; lenengo, Mardai-goiko ballaratik daudenak.

Santuaran-goiko baserritik asiko naiz. Auto-pista egiteko bota egin zuten. Goraxeago berria egin orduan, oso baserri polita. Pamela antxe bizi da. Ondo bizi ditezela Andutz-babesean.

Santuaran'dik goraxeago, Irure dago. Baserri eder bat da. Pamela antxe bizi da; ondo bizi ditezela.

Baserri orren alboan, arrobi eder bat dago, Santuaran'dik Itziar aldera, karaitz piña. Arrua-beko porlan-pabrikara eramaten dute arri pin ori, porlana egiteko.

Irure baserri ori baiño goraxeago ta piska bat alborago, minan jardun zuten antziñako zarrak. Material onak gastatuta, utzi egin zioten. Antxe daude zuloak, galantak.

Orain esatera noan baserri onek, Usarrua dauka izena. Santuaran'dik albora dago, Arrua aldera, sakon baten.

Baserri ori baiño gorago, erreka eder bat jaiotzen da, Andutz-mendiaren urarekin. Usarrua'ko etxe ondoan, bi errota eder edukitzen omen zituzten lengo zarrak.

Gero, Arrua-beko tella-pabrikak ura erosi, presa aundi bat egin da tuberian Usarrua'ra bajatu. An indar-etxea egin; indarra tella-pabrikara eraman. Orduan errotak alperrik. Indar-etxe arek urte askoan eman dio indarra Arrua-beko tella-pabrikari. Orain dala denborra-puska bat, itxi egin zan tella-pabrika ori.

Ur ori Zumaia'ko erriak artu zuan, erria urarekin osatzeko. Suerte on bat izan dezatela Zumaian Andutz'ko urarekin.

Andutz-soro baserria, Andutz'en goi samarrean dago. Pameli ederra antxe bizi da. Suerte onarekin bizi ditezela.

Andutz-soro'tik albora, piska bat gorago, Saletxe izeneko baserria dago. Pamelirik ez dago etxe orretan.

Saletxe orretatik piska bat alborago ta berago, Metale baserria dago. Pameliarik ez dago. Piñu sartuta dauzka lur danak. Suerte on bat izan dezatela piñu-zaleak.

Metale baiño gorago, baserri polit bat dago; Benitosoro dauka izena. Pamelirik ez dago. Artzai bat edo beste egoten da denboraldipuskaren baten. Suerte on bat izan dezala or ibiltzen dan artzaiak.

Benitosoro orretatik albora, gertuan, Garaban izeneko baserria dago. Pamela antxe bizi da; ondo bizi ditezela urte askoan.

Garaban'dik berago, Soldauso baserria dago. Etxe orrek aurre-aldea tellatutik bera lurra jota dauka; atze-aldea tente. Pameliarik ez dago; lur danak piñu sartuta daude. Suerte on bat izan dezatela piñu-zaleak.

Soldauso baserri orren parean, piska bat berago, Arbalitz izeneko baserria dago; etxe zuri bat. Orain berrituta dago. Ni antxe jaio nintzan, 1906'eko Azaroaren ogeiean, da azi ere antxe egin nintzan. Pamela antxe bizi da; urte on askoan bizi ditezela zori onean nere senide ta illoba maiteak.

Arbalitz'tik gertuan, Arrua aldera, Zizurla izeneko baserria dago. Bi bizitzakoa zan, baiña orain bat dago. Besteak aldegin zuten. Alde-

gindakoen alderdia, tellatutik bera lurra jota dago; pareta zarrak tente bakarrik. Ori ez dago Andutz-babesean; Mardai-goiko ballaran bai. Erreka txiki bat dago tartean; antxe partitzen da. Orain an bizi diranentzako, zorionak nere partetik; ondo bizitzeko suerte on bat opa dizuet.

Mardai-goiko ballararen da Lastur-goiko ballararen mугan, baserri aundi bat dago. Ezteia dauka izena. Bi bizitzakoa da: Ezteia-aundi ta Ezteia-txiki.

Ezteia-txiki orretatik pameliak aldegin zuan. Itziar'ko kale ondoan dago baserri aundi bat, Ketari izenarekin; angoak erosi zuten Ezteia-txiki. Ango belarrak eta uztak aiek altxatzen dituzte. Zorionez jarrai dezatela danak.

Ezteia-aundi'tik ere pameliak aldegin zuan, baserria salduta. Donostia'ko batzuek erosi zuten. Andik etorritako pamelia dago orain. Urte on askoan bizi ditezela.

Beste baserri aundi bat badago Andutz-babesean, Lastur goiko ballaran. Bi bizitzakoa da. Aldazabal izena dauka: batek Aldazabal-goikoa; besteak Aldazabal-azpikoa. Bietan pameli ederrak daude. Zorionean bizi ditezela.

Baserri orrek, Itziar'tik dagoan kamioa, etxe ondoan dauka. Aurrean, Endoia ballarako krutzea antxe dauka. Besteak aurrera jarraitzen du, Lastur'ko elizaraiño; ta gora ere bai, Aito-la'raiño.

Albora, Itziar aldera, baserri eder bat dago. Izena, Soarte. Batzutan pamelia egoten da eta

bestetan artzaia. Suerte on bat izan dezatela an ibiltzen diran danak.

Soarte'tik Itziar aldera, baserri aundi ta eder bat dago; Murgizar. Atari ondoan bi arte aundi ere baditu. Nere sendikoak dira an bizi diranak, eta Jaunaren grazian bizi ditezela.

Aldazabal baiño piska bat gorago, bada baserri txiki zar bat; Sakone izena. Aldazabal-azpi'koak eukitzen zuten etxearen kargua. Nik ez nuan ezagutu an pamelirik. Ez dakit etxe ura zutik egongo dan edo eroriko zan.

Andutz-babesean, Murgizar'etik piska bat Itziar aldera, Txapasta izeneko baserri polit bat dago. Lastur'ko ta Itziar'ko mugan dago baserri ori. Pamela antxe bizi da. Urte askotako grazia Jaunak eman dezaiela.

Itziar-bistan badago baserri txuri bat, Itziar'ko kamioa baiño piska bat gorago, Andutz-babesean. Pamela ere badago. Ama Birjiña Itziar'koak lagundu dezaiola ondo bizitzen pameli orri. Baserri orrek Itxaiz dauka izena.

Baserri polit bat dago itxas-bistatik Andutz-babesean. Itxaspe ballarako eskiñan dago, Santuaran'dik gora Itziar'era bitartean, kamioa baiño piska bat gorago. Baserri orrek Iartza dauka izena, Pamela badago; nere sendikoak dira pixka bat. Ama Birjiña Itziar'koak lagundu dezaiela bizitzan da eriotzan.

Itziar-bista orretan baziran baserri ederrak geiago ere. Telleria'tik asita Ibida izenekoa ere bai, Ibizazar ere bai, Malkorre ere bai, Itxais-tan ere bai, Goizena ere bai. Auek danak Andutz-babesean zeuden. Beste bi ere bai:

Menditxo izenekoa baserri polit bat; bestea Zabaleta, baserri eder bat. Bi auek Itziar'tik Artutzen mendi aldera ziran. Danak botata daude.

Soziedade puerte bat etorri zan Itziar'era, ta arek erosi ta bota ditu etxe oiek danak, eta tontorrek eta zuloak berdindu, pabrikak jartzeko edo ez dakit zer egiteko terreno oietan. Jaunak lagundu dezaiela, ta Ama Birjiña Itziar'koak ere bai, ango nagusi ta langille danai.

Beste etxe bat berria egin dute Iartza'tik Itziar aldera, Andutz-babesean, kamiotik gertuan. Ibizazar izena. Len bota zuten etxearen izena da ori. Orain Ibizaberri esaten diote batzuek. Telleria'koak ere egin dute Andutz-babesean.

Geiago ere egin bear omen dituzte baserriak. Lengoak bota zituztenean, berriak egiteko agindu omen zuan ango nagusiak, baserrikoak nai zuten lekuan; baiña oraindik ez dira egin. Egiten badituzte, suerte on bat izan dezatela an bizitzen diranak.

Andutz-mendiko baserriai bertso bat orain:

Baserri asko daude
Andutz-babesian,
lenago pameliak
danetan bazian;
orain utsikan asko
itxura tristian,
pena bat etortzen zait
aiek ikustian.

Itziar'ko kale-aldea ere oso leku polita da;

alaia ere bai. Beren Ama Birjiñak zaindu ta goarda ditzala urte askoan an bizi diranak.

Nik izenez argitaratu ditudan baserri oiek danak, Deba'ko partean daude. Andutz-mendia ere bai dana.

Andutz-mendi orrek altura au dauka itxasotik: 610 metro. Ta bixitariak sarri izaten ditu, mendizaleak eta beste asko ere bai, mendi alaia ta polita dalako.

AITITA

Nere aititak, izena Manuel zuan; baiña Manuel zarra esaten zioten. Nere aita-pontekoa ere bera zan; Itziar'ko Arbalitz'en jaio ta azi ta bizi izandakoa.

Gizon altua etzan; zabala ta lodia bai.

Aren jazkera izaten zan: elastikoa ardi-illez egiña; bruxa aundi bat gaiñetik, jaietakoa beltza eta astean urdiña; oiñetan narruzko abarkak eta mantarrak; txapela buruan, eta aren azpian igeltsuzko pipa ta toxa; telazko gerriko beltz bat, jai-egunetarako bat eta asterako bestea; gerriko oiek, bi mutur banatan, poltsa-zorroa, an dirua sartzeko.

Udara-azkenean, gaztaiñak erretzen, aititak jarduten zuan, danboliñari bueltak ematen, ta orduantxe kontu asko esaten zigun; baita arto zuritzen ari giñala ere.

Orain damututa nago geiago ikasi-eza ari. Arek, esateko borondate aundia izaten zuan; jakin ere bai asko; baiña guk, gazte-kontuak bakarrik buruan.

Koleraren gertaerak ere esaten zituan. Gure

aititak eta amamak txikiak omen ziran orduan.

Bilbao aldean sortu omen zan. Gerra bat izan zuten lengo zarrak, euskaldunak eta kastillanoak. Bilbao aldean jende asko il omen zan; ondo enterratu gabe geratu omen ziran, da andik sortu zala kolera txar ura. Orduantxe etxe utsak geratu omen ziran, pameli dana ilda.

Deba'tik goraxeago dago Olloki-gaiña, ta andik gertuan San Rokeren iduria, bere basilikatxo baten. Deba'ko parrokia baiño zarragoa izan bear du.

San Rokeren iduri ori atera zuten Olloki'ko gain txabalera; Itziar'ko Ama Birjiña ere bai. An egin zuten nobena aundi bat kolera gelditzeko; ta laister asi omen zan geratzen.

Kolera arekin gaizki ibilli omen ziran asko. Illuntzetan errosarioa errezatzen omen zuten, iru edo lau pameli juntatuta bide-krutzeetan edo txabola-ondoetan. Azkenean, esaten omen zuten:

— Ia, ba, biar danok juntatzen geran.

Ori esanda erretirutzen omen ziran beti; baiña biaramonean danak ez juntatu beti, il asko egiten zan-da.

Orduan gaizki ibilli ziran ildakoak enterratzen da abar. Ildakoak azkar enterratzeko ordena zuten erri askotan. Ildakoak kanposantura eramaten, oso bildur aundia izaten zuten. Geienak gabaz eramaten zituzten, jantzi zar batzuek jantzita. Gero, erropa aiek kanpoan utzi, etxetik aparte.

Garai artan, mikeleteak erri-bide ondoetan beren txaboletan egoten omen ziran. Sua egin erramuakin da belar puerteakin, da bideetako jende guztiak an eduki ketan, kolera zabaldu etzedin.

Botika ori askok egin omen zuten, bakoitzak beren etxeetan. Baratxuriakin igurtzi ere bai; jan ere asko egiten omen zuten. Orduan botika oiek omen ziran. Denbora artan ziran sendagilleak, kolera geratzeko jakinduririk ez omen zuten.

Garai artako estuasunak pasatakoak eta il ziranak, danak Jaunak zeruan euki ditzala.

Nik ezagutu nuan gizon bat Zumaia'ko errian; Manuel Arrio esaten zioten izena. Ura, kolera-denbora artan, eraman omen zuten kanposantura, ilda zegoala pentsatuta, txikia zala.

Baiña ez egon ilda. Enterradorea konturatu ta eraman etxera, ta bizirik atera. Baiña kaltea larga zion gaitz arek; burua balantxaka ibiltzen zuan. Gizon ona zan da Jaunak zeruan ondo euki dezala.

Koleraren argibidea eman zidan Azpeiti'ko erretore jaunak, Don Luziok. Arek etxean zeukan liburu zar batek dionez, urte artan il ziran Azpeitia'n irureun da ogei ta zortzi. Urte normalean eun bat pasatxo iltzen dira orain, da kolera-denbora artan oraingo laurdena etzan izango erriko jendea. Eskerrik asko Don Luziori.

Gure aitita ori, karlistakin gerran ibillitakoa zan.

Mendizorrotz'en izan zala atakerik gogorrena Gipuzkoa'n esaten zuan. Baiña bera artean etzan; kintoak gero arrapatu.

Baiña Bilbao'n bai. An izan omen zan atake bat gogorra, tranpazkoa, Karlistak zeuzkaten bi jeneral, Olo ta Rada, ta bonba batek biak il zituan da orduan akabo: munizioak eta armak txarrak, eta organizazioa eta dana galdu.

Liberalak, larogei milla gizon etorri omen ziran Bilbao'n sartzera; ta karlistak, gerra-leku danetan zabalduta, ogei ta amaika milla gizon bakarrik omen zituzten. Liberalak oso atake gogorra jo omen zuten; alare, karlistak eutsi, zeuzkaten munizioak erre arte.

Gerra galdutakoan, Tolosa'ra armak entregatzera zijoazela, bidean onela kantatzen omen zuten:

Rau, rau raketa prau!
Au dek umoria!
Utzi alde batera
euskaldun jendia!

Tolosa'n egin omen zuten, plazan, arma-txondor ikaragarri aundia; arma-pilla aundia txondor-moduan. Eta andik etxera.

Gure aititak esaten zuan, bi fusil-klase zituztela gerran karlistak: jiratorioa ta berdena edo berdana.

Guk galdetzen genion:

— Zein ziran onenak bi pusil oietan?

Da arek erantzuna ematen zigun:

— Zein txarragoak ziran nik ez nitxien igertzen!

Eiztaria nola baitzan, eiz-txakurrak beti arek eizerako; ta eizeko gertaerak ere kontatzen zizkigun. Danetan zelebreena, azari batzuen pasadizoa.

Orain dala larogei ta sei urte, gaizki ibilli omen ziran Itziar'en. Azariak kalte aundiak egiten. Itziar'tik Sasiola aldera dagoan mendian —izena Artutzen—, an ardiak eta arku-meak jaten zituzten azariak.

Orduan bi eiztari eraman zituzten: Arbalitz'ko Manuel zarra, gure aitita alegia, txakurra-kin, eta Metale'ko Pedro laguntzeko.

Joan ziran mendi ortara eiztariak. Lenengo egunean, bat arrapatu zuten tiroz; gero, zulo baten sartuta an jarri zuten tranpa-kaja bat, eta arekin arrapatu zituzten beste bi bizirik.

Itziar'era ekarri zituzten, Alanbreneko tabernara. An ipiñi zituzten, bi aldetara adarrak zituan makilla luze baten, adar banatatik lepotik lotuta, kerten luzearekin.

Aurrena, tiroz arrapatutako aren narrua belarrez bete ta ipiñi zieten beste biai, beren lepo gaiñean, kerten luze artatik lotuta, bizirik bezela.

Itziar'ko kalean bazegoan gizon bat, erdi mixerian bizi zana. Pendejo esaten zioten. Ezagutu nuan nik ura juxtu-juxtuan.

Zoritxarrez, ari eman dizkiote azariak, eskean ibiltzeko. Udara erdia omen zan; Deba'n kanpoko jende asko zegoan garaia.

Pendejo, bere azariakin, joan da Deba'ra eskera. Agertu zan plaia-eskiñara ta diru

asko bildu omen zuan, da gustora Pendejo.

Gero pentsatu du erriko plazara sartzea, ta, atentzio aundia emateko idean esku biak lurrean zituala eta azarien ipurdi-parean burua zuála, gertatu zaio gauza txarra: azariak putza egin aoko zulora, oso mikatza ta puertea. Ala omen du gainera azariak; ikaragarri txarra.

Pendejo orri egin zaio ondo-ez aundi bat azarien putz-usai txarrarekin. Asten da Pendejo gonbitoka, ta azariak iges egin da Aldatz'eko tabernan sartu.

Tabernako jende dana kanpora, bildurtuta; sukaldeko emakumeak gora. Azariak, bakarrik sukaldean. Garai artan, su bajuaren ondoan lapikoak. Azariak bota ta barruko zezeñak eta odolkiak eta danak jan.

Alako baten, barrenderoa sartu barrena, ta kerten luzetik artu ta kanpora atera; ta Pendejo, kale kantoiean burua ipiñita, motxalak egiten orruaz; gonbitoka esaten dute batzuek.

Itziar'era igotzeko gauza ez, ta barrenderoak asto bat billatu ta Pendejo jarri asto gainean; azariak beren kirtenetik artu eta Itziar'era eramán. Alanbrene'ko tabernan utzi zituan Pendejo ta azariak.

Geiago ez omen zan erten Pendejo azariakin eskera. Azarien putzak bildur aundia eman omen zion.

Pendejo Itziar'ko kalean bizi izandakoa zan bere pameliarekin, baiña bazuan bere opizioa. Eulea esaten zitzaien opiziale aieri danari.

Pendejo'k egiten zituan, liñoarekin egin-

dako ariarekin, mandira aundiak egurrezko makinarekin. Makina arek beste aurrerapenik etzuan: gizonak eragin eskuakin da anakin. Makina ura dana egurrezkoa zan, da arekin egiten zituan tela-pieza aundiak Pendejo'k.

Pendejo Itziar'en il zan bere zardadearekin. Jaunak zeruan euki dezala.

Beste bat ere bazan Itziar'en eulea: emakume bat, soltera. Izena, Joxepa Joana. Kale barreñean zuan lantegi-lekua. Pendejo'k ere bai; biak alkarren gertuan. Biak makina igualak, egurrezkoak.

Liñoa egiten zuten baserrikoak beren sorotan. Gari-lastoaren antzekoa izaten da liñolandara ori.

Puntan azia izaten du. Azi ura eldutakoan, ondotik atera ta txortak eginda, putzuan sartu ta an eduki ogei bat egunean. Putzuan sartzerako, azia kentzen zioten. Putzutik atera ta sekatu, ta arri gaiñean jo ta bigundu egurrezko mazoakin.

Gero apaindu egurrezko ezpatarekin. Gero txarrantxarekin arrotu ta bigun-bigun jarri, ta orduan aria egin, gizionezkoak txabilan da emakumeak ardatz txikiakin. Ari-pelota aundiak egin da euleari eman, mandira aundiak egiteko.

Ari-lan oiek geienak gabaz egiten zituzten, egunez kanpoko lanak egiten jardunda. Argia izaten zuten petrolio-ontzi zarren bat edo kurtzuluren bat. Aietxek ziran lengo zarren argiak.

Oiek danak aspaldian il ziran, da Jaunak zeruan euki ditzala.

Bertso zarrak ere, asko zekizkin gure aititak. Neguan su ondoan kantatzen zituan. Auek berari entzun da ikasitakoak dira.

Bein baten, Itziar'en izan zuten desgusto bat azariakin. Olabe baserrian zegoan mutil gazte bat. Artzai ibiltzen zan. Arek arrapatu zuan azari bat, zuloan sartzen ikusi ta an tranpakaja bat ipiñita. Etxera bizirik ekarri zuan, baiña iges egin zion andik.

Orduan, Arraga baserriko bertsolariak bertsoak atera zizkion. Plazetan kantatzeko etzala amorratua esaten zuten bertsolari ura; gai egokiko bertso batzuek ateratzeko gogo aundikoa bai.

Arraga'n, geroztik, aren semeak eta illobak, tabernan-edo meriendatutakoan, bertso batzuek kantatzeko apizioa beti izan dute; baiña plazan ez.

Aititari ikasitako bertso oiek onela dira:

Artzai gazte leial bat
Olabe'n daukagu,
izena Migel eta
nonbria Aizpuru;
orrek azari txar bat
arrapatu omen du,
txit maitia duela
etxera ekarri du.

Etxera ekarri eta
lenengo arratsian,
preso jarri omen zun
lixiba-ontzian;
gaiñeko tapakia
baitzuan galbaia,
andik ertendakuan
azari alaia.

Leiotikan erten da
soruetan bera,
grabiolak egiñaz
Makasti aldera;
beti pikardirako
azaien joera,
egazti jaten arek
ein zuan galera.

Txabola baten zeuden
amalau egazti,
amar ito ta janda
juan da igesi;
egunsenti aldian
norbaitek ekusi,
azaien jeniya
ezin galerazi.

Azari traidoroso,
kanalla gaiztua,
Zabale'kuai ere
jan die ollua;
txakurrakin segika
neskatxa gaixua,
bire gorrian gora
aidoso dijua.

Olabe'n egaztiak
jan dituelako,
lau pezeta bear dira
bi kapoientzako;
Azpeiti'n izango dek
aukeria pranko,
nausiak bear ditu
San Tomasetako.

Azaria menditik
gosiak ekarri,
belarri biak gora,
begi biak larri,
pegatu nai diola
Migel Olabe'ri;
gero laister jan zitun
olluak ugari.

Azariaren kausak
beti dira txarrak,
ala esan oi zeben
lenagoko zarrak;
etzetuak motz-motzak
musuko bizarrak,
argatik astin zetik
mendiko ardi zarrak.

Gure aittaren gazte-denboran, palankariak
apustulari pamosoak izaten omen ziran.

Matxinbenta'ko Zuaneta'koak desapioa bota
omen zuan: zortzi librako palankarekin, nai
zuanak erteteko, probintziakoa.

Efrezil'ko Artxiola'koak erten zion. Zuaneta
etzan jokatzera presentatu, ta Artxiola'k ira-
bazi ta bertsoak atera.

Bertso auek asko ziran; ederrak ere bai. Nik
aititari bakarra ikasi nion:

Ni naiz palankariya
Artxiola'kua,
kontrariyua berriz
Zuaneta'kua;
orain sei illabete
zan erronka jua:
palanka izateko
zortzi librakua,
nai dunak erteteko
probintziakua.

Apustu-klase ori euskal errietako lengo
zarrak asko ezagutu zuten; nere aititak eta
zarragoak ere bai.

Palanka-jokua edo apustua esaten zioten.
Palanka ura izaten zuten burni bat, alde
batetik lodia ta borobilla burua bezela; beste
aldetik mea, eskuakin mendean artzeko. Pisua,
izendatzen zutena, batzuek zortzi libra, besteak
amar, ta beste batzuek amabost igual; geiago
ere bai.

Palanka oiek tiratzen zituzten iru postura
diperentetan: postura bat, petxuaren kontra
artu ta anka geldian tiratzen zuten. *A pecho*
esaten zioten izena postura orri. Beste postura
bat ere bazuten: anka bat lurrean da bestea
aidean zutela, tiratzen zuten palanka, buelta
erdia eginda. *Media vuelta* esaten zioten izena
postura orri. Beste postura bat bazuten: ma-
kurtu ta anka bien erditik tiratzen zuten.
Postura orri izena *istape* esaten zioten izena.
Iru postura oietan jokatzen omen zuten lengo

palankariak. Zeiñek bide geiagoan bota izaten zuten apustua, beren kondizioakin.

Esan bezela, palankak alde bat lodia ta borobilla izaten zuan. Tiratzen zutenean, lodi aldearekin bea jo bear zuan aurrena. Ari tiro esaten zioten, da bale eman. Beste aldeko punta mearekin lurra jotzen bazuan, ari nulo esaten zioten, naiz-ta bide geiagoan bota. Tirada ura alperrik. Derriór borobil aldearekin bea jo bear zuan aurrena, tiro esan da bale emateko. Kondizio oietan jokatzten zuten lengo palankari zarrak.

Zenbat tirada izango zituzten, sei edo zortzi, aiek siñalatuak.

Nere denboran ez da jokatu apustu-klase ori euskal errietan. Irurogei ta amar urte dauzkat aurtengo Azaroaren ogeiean. Nere aititari ta lengo zarrai entzunda argitaratu det gertaera ori.

Gizon aiek danak aspaldi il ziran. Jaunak zeruan eduki ditzala.

Gure aititak, Andutz-mendi'ko zezenaren istoriak ere kontatzen zituan. Zezen ori Pasai'ra eraman zuten Andutz-menditik, Santiago-jai-etan.

Pasaia'n, plazatik barrera tartetik iges egin zuan da oso ixtillu txarrak. Ango kinkilleroak eta jendeak gaizki ibilli zituan; askok itxasora salto egin zuten.

Gure aititak ondo ezagutu zuan zezenaren jabea. Ermu baserria, Arrua-errekan dago, Olaberri'tik bera datorren erreka txikiaren alboan. Baserri txiki xar bat da; oraindik zutik dago, baiña ez da iñor bizi.

Zezen-jabeak bi anai ziran, mutilzarrak;
zapateroak beren ofizioz.

Andutz-mendian iru txabola egin zituzten:
bat, ardiakin ibiltzeko; alboan beste txabola
txiki bat ere bai, artzaiak lo egiteko; Saletxe'ko
baserriaren parean beste txabola bat, abere
aundientzat: zezenentzat eta larre-beientzat.
Orain txabol oiek, suerte txarrez, tellatutik
bera lurra jota daude.

Anai bi oietan zarrena joan zan Pasai'ra
zezenarekin, eta, zezenarekin allegatu zanean,
eman zizkioten iru libra ogi ta litro t'erdi ardo;
aiekin asi errezioa artzen, tableroaren gainean
exerita.

Ala zegoala, zezena eskapatu plazatik, eta
jende guzia zezenaren ondoren arrapatu nai-
ean. Zezenak itxasora salto egin eta adarrak
bakarrik ageri.

Baiña bakero mutilzar ori lasai tablero
gainean; ogiak danak jan eta ardoak danak
edan arte, ezta mugitu ere. Orregatik esaten du
bertso batek:

Arrokatik putzura
sartu da igeri,
adarrak besterikan
etzitun ageri;
bakerua begira
bere zezenari,
exerita jan ditu
iru libra ogi.

Gure aititak ondo zekizkin mutilzar aren
ixtilluak. Andutz-mendian ere askotan alka-

rrekin ibiltzen ziran, da alkarri laguntzen zioten zezenak beren txabolara inguratzen-eta.

Ermu zapateroaren bertso oiek, gure aititak askotan kantatzen zituan; Xenpelarrek jarriak omen ziran.

Mutilzar oiek oso lasaiak zirala esaten zuan, da ondo ateratzen zutela dirua, zapatak egiñez.

Eun urte pasa badira istori ori gertatu zala.

Gure aitita irurogei ta amar edo amaika urte zituala gaixotu zan. Biotzetik asi zan supritzen. Etxe-bueltan ibiltzen zan piska bat; ostean biaje luzerik etzuan egiten. Orrela jarraitu zuan lau bat urtean.

Ura il baiño lenago, ni ezkondu ta pamelia izan zuan nere andreak. Aititak ondo ezagutu zuan aurra; bigarren aldiz aitita egin zala ta pozak egon zan.

Andik piska batera il zan. Oñaze aundirik etzuan izan; piskabana-piskabana gastatu egin zan. Irurogei ta amabost urterekin il zan, San Andres bezperan. San Andres egunean enterratu zan, Itziar'ko kanposantuan. Jaunak bere ondoan euki dezala, ta an alkar berriz ikusi dezagun.

GIZON OSPATSUAK

Nik beste gauza asko nituan aititari entzundakoak. Arek esaten zuanez, Itziar'en gizon ospatsu asko izan da: karga-jasotzalleak oso onak; barrenolariak ere bai; laisterkariak ere bai; toreroak ere bai.

Mardai ballaran, Zozabarro izeneko base-rrian, iru anai omen ziran, irurak toreroak, oso abillak. Nere aititak ezagutu zituan, bera gaztea zala. Eun urte ta geiago dirade. Aititak esaten zuan, aiek Españi'ko plaza askotan ibilliak zirala.

Bati Zozabarro gaztea esaten omen zioten; besteari Zozabarro zarra; besteari Zozabarro erdikoa. Danak torero onak. Zarra ta gaztea onenak; erdikoa piska bat torpeagoa.

Danak gizon aundiak omen ziran, da biziak ere bai.

Gaztea omen zan danak arrituta largatzen zituana. Arek ba omen zekian, zezena beragana zetorreanean, buru gaiñetik atzera aidoso saltatzen; baita ere, anka bat lurrean da bestea aidean zituala, zezena azpitik pasatzen.

Zozabarro gazte ura oso gizon abilla, igarra ta bizia zala; alakorik etzuala ikusi esaten zuan nere aititak. Luzea aparta zala; bi metro baiño geiago.

Arek egindako marka bat esan oi zuan nere aititak. Ama Birjiña Agoztuko egunean, Bilbao'n korrira ematen ari zala, zezenak kapa puskatu omen zion, da Bilbao'n kapa berririk ez egon orduan.

Urrengo eguna San Roke eguna ta korrira bota bear Deba'ko plazan, da kapa berria ekartzera Donosti'ra joan bear.

Bilbao'tik etorri gabeen etxera, ta goizean goiz atera Donosti'ra kapa ekartzera; baita ekarri ere.

Deba'n zezena atera omen zuten plazara bere orduan beste toreroak, eta Zozabarro gaztea palta. Bereala etorri omen zan bere kapa berriarekin.

Artu omen zituan bi pare banderilla, ta joan omen zan plaza erdira. Egin omen zuan arrai bat lurrean. Anka biak antxe zituala, bi pare banderilla sartu omen zizkion zezenari.

Ori marka aundia da egun baterako: Itziar'en atera, Donosti'ra joan da etorri oiñez, da Deba'n korrira eman.

Zozabarro baserri orretatik Arrua aldera, badago gain txabal bat. Olaungaiña du izena. Arrua'ra joateko ta Zestua'ra joateko bide zarra antxe zuten.

An, bide ondoan, areitz bat bai omen zan adar motzakin. Ari, an pasatzen ziranean,

gaiñetik salto egiten omen zioten Zozabarro'ko toreroak.

Aiek Españi'ko zezen-plazetan korritzen omen zuten, korrirak botatzen, udara-partean. Neguan, etxean.

Etxean ere zezenak eukitzen omen zituzten. An jarduten omen ziran ukulluan entrenatzen.

Eun urte ta geiago dira aiek toreatzen ibilli zirala. Aien eriotzako argibiderik nik ez det jakin. Izenak nola zituzten ere ez. Ezkonduak ziran edo soltero il ziran, ez det ikasi. Baiña istori auek danak egiak dira, nik aititari entzundakoak, eta aitita baiño zarragoai ere bai.

Aiek, neguan etxean zeudenean, jan-orduetan, goi eta illuntzean, artoa ta esnea jaten omen zituzten. Bazkaltzen, baba beltza zezeiñarekin da artoarekin. Meriendatzen, txokolatea zartagi aundi baten eginda, arta-zopak. Edateko, ez dakit zer izango zuten.

Torero abil aiek Jaunak zeruan euki ditzala.

Beste gizon ospatsu bat bazan Itziar'en. Zozabarro'ko torero oien etxea baiño piska bat berago, erreka ondoan, Zubeltzu-torre izena duan baserria dago. An omen zan gizon aundi bat oso indartsua, nere aititak ezagutu zuana.

Garai artan, Naparroa'tik ardoa ekartzen omen zuten mandoetan artuta, lengo erri-bide zarretatik, karreterarik artean ez-ta.

Arrua-errekatik Itziar aldera oso bide txarra, lokatza-lekua. Mandazaia ba omen dator, bide orretatik zear, Itziar aldera, mandoak zaragiakin ardoz kargatuta; eta, Zubeltzu-torre'ko

baserri orren aurrean, mando bat lokatzetan sartu ta geratu.

Zubeltzu indartsu ori an ari omen zan gurdia kargatzen etxe ondoan.

Mandazaiak deitu omen zion gizon indartsu orri: laguntzera joateko paborez, mandoa lokatzetan geratu zitzaiola-ta.

Joan omen zan da mandazaiak esan omen zion:

— Gaiñeko kargak kendu bearko lenengol!
Zubeltzu indartsu orrek:

— Ez! Dagoan bezela aterako det nik ori!

Prakak jaso omen zituan belaunetik gora, sartu omen zan lokatzetan, mandoari eldu omen zion tripa azpitik bizkarrarekin, da mandoa atera bere karga ta guzti.

Mandazaia gustora. Esan omen zion: Ontzi bat ekartzeko, ardoa egun artarako emango ziola naikoa-ta!

Baita ekarri ere lurrezko txarro aundi bat. Mandazaiak dana bete. Orrela banatu omen ziran, biak gustora.

Zubeltzuk segituan edaten ekin omen zion; baita edan ere. Bi edo iru tragotan dana ustu txarrokada ardoa.

Joan omen zan gero Zubeltzu ori gurdia kargatzera. Etxe ondoan omen zedukan kortaloi-pilla aundi bat. Ori izaten da garoa ta ota, dana naasian. Usteldutakoan sorora ateratzen zan, artoa ereindakoan.

Zubeltzu orrek, ardoak edan zituanean, ekin

omen zion gurdia kargatzen sarde aundi batekin; baiña ezin kargatu gurdia, ezin azertatu. Sardakada danak gurdiaren gaiñetik beste aldera urrutira botatzen. Eguardira arte jardunda, gurdirik ez kargatu.

Bazkalondoan garo-pillan lo eginda, gurdia kargatu ta sorora atera omen zuan.

Gizon arek len indar asko; ardoaren indarra lagun zuala, auskalo zenbat izango zuan.

Orain ez dago lengo odolekorik etxe artan. Lastur'tik joan zan pameli berria.

Gizon aren izenik ez det ikasi. Potxoarra esaten omen zioten ez-izena.

Gertaera au ere, nere aititak ikusi ta kontatua da. Artzai ibiltzen omen zan antxe inguruan.

Jaunak zeruan euki dezala Zubeltzu-torre'ko gizon aundi ori.

Itziar'en baziran beste apustulari batzuek, aititak eta aitak esaten zigutenez. Orain ez da aitatu ere egiten apustu ori. Barrenua esaten zioten leku batzuetan apustu orri; beste batzuetan, palanketa-jokua.

Plazara eramán arri aundia, eta an zeñek geiago zulatu denbora izendatuan. Jeneralean ordu bete izaten zuten. Geiago ere bai ta gutxiago ere igual.

Apustua nola egiten zuten? Arria karaitz gogorra izaten zuten gizonak; burni bat beren altura ingurukoa, piska bat luzeagoa ere bai, bi puntak txabaldu ta zorroztuta, esku barruan errez kabitzen zana. Antxe buelta ta buelta jo ta zulatzen zuten arria.

Orain argitaratuko ditut barrenolari aien kondizioak. Barrenoaren punta izaten zuten ontza bete korrientea, apustu-zale biak berdiñak.

Garai artan, neurriak izaten zituzten kana, oiña, ontzia ta liñera. Kana izaten da larogei ta lau zentimetro bi milimetro gutxiago, ta ogei ta amasei ontza. Oiñak dauzka amabi ontza ta ogei ta zortzi zentimetro bi milimetro gutxiago. Ontzak, amabi liñera ta bi zentimetro t'erdi milimetro bat gutxiago. Auek dira euskal errietako lengo neurri zarrak.

Estranjeriko metro batzuek badira ontza aundiagoak dituztenak. Emengo kolejioetan ere erakusten dituzte oiek, baiña ez det ezer esan nai.

Arria zulätzen asten ziranean, oin bete zulatu bear, beste zuloa asteko. Azkeneko zuloan, denbora allegatutakoan, alto. Ura geratzen zan moduan neurtuta, geiena zulätzen zuanak apustua irabazi.

Itziar'en jokatu omen zuten apustu gogorra bertako bi gaztek, tema aundikoa. Bat Itxaiz baserrikoa, Manuel Aranberri. Arek irabazi zuan. Bestea Isasi baserrikoa, Migel Aranberri. Arek galdu. Oso bentaja gutxi omen zuten.

Migel ura Ameriketara joan omen zan. An dirua ondo eginda, etorri berriz Itziar'era. Itziar'era etorritā, andrea artu. Ketari izeneko baserria antxe dago kale ondoan. Ango alaba artu zuan andrea, neska gazte eder bat, eta Ameriketara joan ziran biak. Jakin nuan biak

an il zirala. Jaunak bere grazian zeruan euki ditzala.

Itziar'ko apustu ura izan zan 1905'ean, urte bat edo bi gora-bera.

Migel Aranberri ori mutil txiki samarra omen zan, apustua jokatu zuanean: irurogei ta amar kilo ingurua. Manuel Aranberri, irurogei ta amasei kilo ingurua.

Egin zuten lana: bederatzi oin, ontza batzuek gora edo bera, bakoitzak ordy betean.

Manuel Aranberri'k jokatu zuan beste apustu bat, ura ere barrenoarekin, Errezill'en. Ura galdu omen zuan, oso bentaja gutxirekin; bi lineraren bentaja omen zuten. Errezil'ko Anjel Atxukarro'k irabazi.

Ura gizon aundia zan. Eun ta aurrera kilo pasa bai; Atxukarro baserrikoa.

Apustu ori jokatu zuten 1900'tik 1903'era bitartean. Arriak Bizkai'ko Mañari'tik ekarri zituzten, ango arrobotik.

Bakoitzak bederatzi oin pasa zulatu omen zituzten ordu betean. Kondizioak: asitako zuloa oin bete osatu bear, zulo berria asteko. Azkeneko bi zuloak, oin erdikoak egitea nai bazuten, libre.

Manuel Aranberri'k laisterka ere jokatu omen zuan, Zakillu esaten zioten batekin. Azpeiti aldekoa izan bear zuan. Zakillu'k irabazi.

Arrua-betik Zumai'ra bitartean dago Txiki-erdi'ko krutzea. Laisterkariak an asi omen ziran. Andik Oikia aldera, eta, Aizarnazabal

ondotik eta Iraeta'tik, len asitako lekura, Txiki-erdi'ra.

Manuel Aranberri gizon bizkorra zan. Soltero bizi izan zan beti. Arrua-erreka'ko Azketa'n zedukan illoba. Arengana joan zan bere zardadearekin da antxe il zan. Nik apustu oiek jokutzen ez nuan ezagutu, baiña Azketa'n bizi zala bai.

Barrenolari aiek danak Jaunak zeruan bere ondoan euki ditzala.

Itziar'en bazan beste gizon ospatsu bat: Bitor Zabala; baiña Arteondo esaten zioten, etxearen izena ala zeukan-da.

Ori neuk ere ezagutu nuan ondo, plazetan jokutzen da abar. Parientetasuna ere bazuten zerbait gure aititarekin. Ez dakit nola zuten, baiña aren amama uste det gure etxekoa izango zala, Arbalitz'koa. Oraindik ere, gure aita il zanean, entierroko artu-emanak meza-diruarekin, antxe bota zituzten Arteondo'ren anaiaren pamelikoak, Ketari baserrikoak.

Gizon ori karga-jasotzaillea zan; arri zilindroakin oso ona; zortzi arruako ta amarrekoakin ere bai. Oiekin iñork etzion irabazten bere garaian.

Arri aundiakin Motriku'ko Areitza'k irabazten zion, amalau arruako arriakin-da. Pedro Maria Txurruka zuan izena. Gizon aundia zan, da indartsua. Eun kilo ta geiago zituan.

Bitor Arteondo, berriz, indartsua bai, baiña gizon txikia zan. Larogei ta lau edo bost kilo izaten zuan pisua. Gerria ta bizkarra oso zabalak zituan; gorputza oso motxa. Besoak eta

beatzak ere bai. Orregatik irabazten zion Areitza'k: Arteondo'k beso motxakin arri aundia ezin arrapatu zualako.

Orain aiek baiño arri-jasotzaille obeak asko daude.

Itziar'ko kale ondoan zan Arteondo jaiotako etxea. Itziar'en bizi izan zan ezkondata, bere pameliarekin, urte-mordoska baten. Gero Ondarrua'ra joan zan bere pameliarekin.

Beste gizon bat bazan Itziar'en, Arteondoren illoba, Ketari izeneko baserrikoa. Kalearen ondoan dago baserri ori. Oraindik bizi da gizon ori. Jose Antonio du izena. Arek arri bola aundi oiekin zuan abillidade aundia bere garaian.

Beste bi karga-jasotzaille baziran Itziar'en, Lastur ballaran: bat Ziaran-zar baserrikoa; bestea Soarte baserrikoa. Biak oso onak ziran beren garaian. Oraindik bizi dira bi Lastur'ko oiek.

Bizi diranai urte askoan Jaunak lagun dezaiela, eta ildakoak zeruan euki ditzala.

Beste gizon bat bazan Itziar'en indartsua, Bitor Arteondo'ren anaia, Bitor baiño aundiagoa, indar geiago zuana eta piska bat zarragoa.

Apusturako ez omen zuten beiñere konporatu; indar asko bai. Erramon zuan izena.

Gizon batek neuri esan zidan arekin ikusitako gertaera, soldadu joaterako.

Aiuntamentura joan omen ziran Deba'ra,

tallatzera, jai-goiz baten. Arteondo Erramon ere bai, orduantxe tallatu omen zan.

Gero, Aldatz'eko tabernara joan omen ziran, amaiketako piska bat egin omen zuten, da atera omen ziran da Itziar aldera abiatu.

Deba'tik Itziar'era oiñez joateko, San Rokeren ermita ondoan gora ateratzen da Olloki gaiñera. Aiek ere erten omen zuten Olloki gain orretara.

An omen zegoan bide ondoan alper-arri bat, soroan zokorra puskatzen ibillita. Mutil oiek asi omen ziran arri ari kolpeka. Erramon Arteondo ere antxe begira, ta:

— Ni ori jasotzen aprobatu egingo nauk!

Lagunak esan omen zioten:

— Ez dek jasoko!

Erramon ori joan omen zan arri zatar orren ondora, bruxa jaso omen zuan aurre aldetik kokotera, eldu omen zion arriari poliki-poliki ta belaun gaiñean tente jarri; gero, piska bat makurtu ta gerriaren kontra artu omen zuan, da bi edo iru kolpetan sorbaldara jaso, nibeldu ta bota.

Gero, Itziar'en dana zabaldu omen zan arri ori nola jaso zuan, da pentsatu dute arri ori pisatzea, ta bai egin ere. Gabean joan ganaduakin da gurdiarekin, Itziar'ko alondegira ekarri ta pisatu, ta amazapi arrua pasa omen zituan.

Orain ere arri astunak jasotzen dituzte. Ogei urterekin alako arri zaterra jaso zuanak, piska bat gobernatuta, arri apaindutako ederra esku-leku onakin, arek ere jasoko zuan arri dezentea.

Erramon Arteondo il zan da Jaunak zeruan ondo artua izan dedilla.

Nere aitari entzun nion beste apustu bat, oso zelebrea, jokatu zala Itziar'ko plazan.

Artean arri jasotzerik eta olakorik etzala esaten zuan; zakuka garia jasotzen zutela garai artan gizon indartsuak, zeñek gari geiago jaso.

Lastur'en bazala esaten zuan gizon bat, ikaragarri indartsua, ortan ibiltzen zana. Agerre baserrikoa bera ta Agerre esaten.

Arek Bizkaia'n jokatu omen zuan, zeñek gari geiago jaso, bizkaitar batekin, zaku motzean, kana bete altuko zakuan. Ogei ta bat imia jaso Agerrek, baiña ala ere galdu; bizkaitarrak irabazi.

Imia eta beste lengo pisuak eta neurriak ez ditu ezagutuko orain askok. Orregatik, nola-koak ziran emen argituko det.

Lenago etzan kiloko pisurik. Danak librako pisuak ziran. Irurogei urte pasatxo besterik ez da kiloko pisuak jarri zirala.

Lenago, mataderuan ildako abereak, librako pisuetan pisatzen zituzten. Amar librakin erraldea esaten zioten, orain bost kilorekin bezela.

Beste saldu-erosi batzuek ere izaten zituzten plazetan, arrua izenean tratuak eginda. Ogei ta bost libra izaten da arrua. Arrua erdia ta arrua laurdenarekin ere egiten zituzten gaztaiak eta orrelako gauza batzuek.

Arkumeakin da egaztiakin libraka ibiltzen

ziran pisuan. Libra erdia ere bai, laurdena ere bai.

Orain gramoak bezela, lengo pisu aiek koska txiki batzuek bazituzten. Aieri ontzak esaten zieten. Libra batek amasei ontza izaten ditu.

Ta lengo zarrak laboreakin ibiltzen zituzten neurriak ere emen argitaratuko ditut.

Neurririk aundienari anea esaten zioten. Ura neurtzeko kaja bat izaten zuten, oso egoki egiña; anea erdikoa izena. Ura bi aldiz beteta osatzen zuten anea bat.

Anea erdiko kaja ari egur polit bat pasatzen zioten gaiñean berdintzeko; errezeria izena.

Beste kaja bat bazuten oso egoki egiña; imiakoa zuan izena. Ura lau aldiz beteta osatzen zuten anea bat.

Beste neurri bat ere bada oso polita, lakaria izenekoa. Ori piska bat orain ere usatzen da. Ori amasei aldiz beteta osatzen da anea bat.

Lengo zarrak laboreakin pisurik gabe neurri oiekin ibiltzen ziran. Nagusiari entregatzeko gariak eta artoak, neurri oietan neurtuta ordaintzen zituzten maizterrak ziranak.

Lenago esan dedan bezela, Lastur'ko Agerre indartsu arek ogei ta bat imia jaso zituan Bizkaian; baiña ala ere galdu.

Itziar'ko gazteakin beti desapioka ibiltzen omen zan ura, ta Itziar'ko gazteak ezin jaso arek aiña karga ezergatik ere. Arek, bere panparrokerian, mende eukitzen zituan beti.

Ta Itziar'ko gazteak pentsatu zuten ari joku

bat irabaztea. Itziar'en, Alanbrene'ko tabernara erretiratzen ziranak, baziran bi anai, Mendaro'ko Etxabe baserrikoak, argiñak. Aiek egin arri-bola lenengo; artean iñork etzuan olakorik ikusi. Bederatzi arrua pisua, oso leguna, lijarekin pin-pin legundutakoa, diz-diz egiten zuana. Ta ori, Agerreri jokua irabazteko idean ipiñi.

Agerre ori arrapatu dute Itziar'en, Alanbrene'ko tabernan, Deba'ko periakoan, gabean. Onela esan diote Etxabe'ko gazte oiek:

— Bederatzi arruako arri bat zuk bizkarrera jaso ez!

Agerre orrentzat oso pisu txikia zan bederatzi arrua, ta arek: Baietz, egingo ziela jokua.

Egin dute, ba, jokua, urrengo igandean jokatzeko, milla bana erreal, Itziar'ko plazan, eta Agerrek prakak eta alkondara ta gerrikoa besterik ez izatekotan.

Agerrek, arri ori pisu txikikoa zala ta errez jasoko zuala pentsatu, ta oso gustora. Aiek, ordea, arri borobilla zanik edo nolakoa zanik etzioten esan.

Baiña norbaitzuk, ate-txulotik-edo ikusita arri ura, joan ziran Agerregana ta ispijonajea pasatu. Esan zioten:

— Obe dezu, jokatzera joan gabe, jokua entregatu! Arri borobil-borobilla da, ta legun-leguna. Ez dezu eskuetan errendituko ura! Ez dezu jasoko!

Ta Agerrek onela esan omen zien ispijonaje-arekin joandako oiei:

— Bederatzi arrua besterik ez dana, nik jasoko det!

Zer pentsatu du Agerre orrek? Eunezko izara puertearekin alkondara aundia egitea.

Igandean, meza nagusi ondoan, joan omen zan plazara Agerre bere orduan. Besteak ere zakuan sartu ta eraman omen zioten arri ori. Manta bat ipiñi omen zuten plazan, eta aren gaiñean ras! arria zakutik atera.

Leguntasunarekin diz-diz egiten zuan, da, ikusi zutenean, jendea asi zan:

— Ez dezu jasoko! Obe dezu ez kolperik egitea orrekin!

Baiña Agerre trankil. Orain ez dakit zenbat denbora eukiko zuten jasotzeko, amar minutu edo ordu laurdena edo olaxe.

Ala, relojeroak bale eman zionean, asi omen zan Agerre ori gerrikoaren barrundikan atera ta atera alkondara aundi ori. Atera omen zuan da bea jo ta sobre alkondara ori.

Makurtu omen zan bera, arri ori ekarri zuan bueltaka alkondararen gaiñera, buelta artu arri orri alkondararekin, esku batekin zaku-muturra bezela dana artu alkondara ori arria bilduta, beste eskuarekin azpitik eldu omen zion, da alkondara ta guzti bizkarraren gaiñean oso ederki ta errez jaso zuan, batere beartu gabe.

Agerrek irabazi ta Itziar'ko jendea triste. Onela zioten:

— Egundoko ziria sartu ziguk Agerre orrek!

Gero, andik denbora-puska batera, arri ura egin zutenak, beurak jasotzen ikasi batere alkondararik eta ezer gabe.

Arri ori oraindik ere Itziar'en, Ketari etxean, egongo dala uste det. Jose Antonio Ketari'koak plazetan asko ibilli zuan erriko festetan.

Nik ez nuan ezagutu Agerre ori; aitari entzundakoak dira gertaera oiek.

Agerre ori Lastur'en dago, baiña aren ondo-rengoak Motriku'ko Alportategi-nausikoa izeneko baserrira joan ziran.

Jaunak zeruan euki dezala Agerre indartsu ura, bere indar, alkondara luze ta guzti.

Nere aititak ezagutu omen zuan beste gizon ospatsu bat, bera oso gaztea zala. Arrua-goian. Santuen iduriak egiten zituan. Arrua'ko kale ondoan bizi izandakoa zan. Baserri piska bat ere izan bear zuan.

Oso langille iaioa omen zan santuen iduriak egiten, da tranposoa ere bai. Arrua inguruko emakumeak oso maitea edukitzen omen zuten gizon ura, santuak birtute aundikoak egiten zitualako.

Eskatutakoai ematen omen zizkien santu-iduriak, baiña dirurik ez omen zien artzen. Santuak etzerala diruz saldu bear, da jatekoa nai izaten omen zuan.

Geiena zezeiña gustatzen omen zitzaion. Orregatik, Zezeiña esaten omen zioten Arrua aldeko jende danak. Baiña lukainkak eta urdai-azpikoak ere berdin artzen omen zituan.

Lenengotik santu-iduri txikiak egiten jar-

ñuten omen zan. Gero egin omen zuan santu aundi bat, San Luisen idurikoa.

Arrua aldeko emakumeai esan omen zien santu birtute aundikoa egin zuala, ta jai baten joan omen zaio emakume-mordoa etxera meza nagusi ondoan. An omen zeukan mandioko sueloan sartuta tente.

Zezeiña'k esaten omen zien ikusten zeudenai:

— Nik oni egunero errezatzen diot! Ez al da egia ori?

San Luis arek buruarekin balantza aurrera egiten omen zuan, baietz. San Luisen iduri arek soka bat lotuta omen zeukan, goitik ikusten etzala, ta andrea soka artatik tiratzeko zai azpiko ikullutik.

Emakume aieri esan omen zien Zezeiña orrek:

— Etxerakoan agurtu zazute, eta onek buruarekin erantzungo dizute!

Aiek orduan:

— Agur, San Luis!

San Luisek ere bai buruarekin, andreak sokatik tirata.

Emakume aiek esan omen zioten Zezeiña'ri:

— Zer egin bear diozu santu orri?

Zezeiña'k erantzun:

— Obispoagana bialdu bear det bedeinkatza!

Baiña Arrua aldeko jendeak jakin zuanean zer tranpa egiten zuan, orduan galdu omen zituan santu-egiteak eta zezeiña-jateak.

Gizon ori ez nuan ikasi nungoa zan: Arrua'n bertakoa edo kanpotik etorritakoa. Donosti'tik Bilbao'rako burni-bideak eta karreterak egin ziranean, kanpoko jende asko ibilli omen zan. Orduan geratutakoa izan zitekean Zezeiña ura.

Gizon ura aspaldian illa izango da, eta Jaunak zeruan euki dezala.

ITZIAR'KO AMA

Itziar'ko Ama Birjiñaren gertaerak askotan entzun nizkien aititari ta amamari, ta zarragoai ere bai. Berak lagun dezaigula orain ondo argitaratzen.

Zortzigarren gizaldian jarria omen dago Ama Birjiña Itziar'en. Istori orrek aotik aora beti jarraitzen du.

Itziar'en antxe dago, kaletik piska bat albo-ra, Andutz-mendi aldera, baserri bat. Erretentzar dauka izena.

Ango neskaxari azaldu zitzaion Ama Birjiña Jesus Aurrarekin, artzai zebillela, eta itzegin zion leku aldapa ta arantza tartetik. Eleiza an egitea nai zuala esan zion.

Neskaxak esan zuan etxean da bere lagunai, baiña etzioten sinisten. Arek berriz ere ikusi zuala esaten zuan.

Orduan, neskaxa ura artuta, norbaitzuk joan ziran arantza artera, eta Ama Birjiñak, neskaxari agertuta, itzegin berriz ere. Esan zion eleiza an egiteko.

Bestek etzuan ikusi Ama Birjiña, baiña

neskatxak nola itzegin zion garbi ikusi zuten.
Orduan sinistu zuten ondo.

Asi omen ziran basilika egiteko asmotan.
Agertutako leku ura aldapa ta txarra zala; ta
Itziar'tik goraxeago antxe dago leku ederra,
zelai aundia ta alaia, ta antxe pentsatu zuten
basilika ori egitea.

Baita asi ere arriak eta egurrak eramaten,
baiña alperrik. Egunez egindako lanak, urren-
go goizean danak palta; Ama Birjiña agertu-
tako lekura eramanda danak.

Langilleak etzekiten Ama Birjiñaren mira-
ria ote zan edo norbaitzuk gaiztakeriz egiten
ote zuten. Gabean zai jartzea pentsatu zuten;
baita jarri ere. Ikusi ezer ere ez, baiña auxe
entzun omen zuten:

Aida, Arrio ta Belio!
Zelatan dagoanari
begiak ertengo al dio!

Ta bati begiak erten. Zazpigarren belaune-
raiño etxe artan gizona begi bakarra izan omen
zan.

Mirari ura ikusi zutenean da sinistu, agertu-
tako lekuan altxa zuten basilika ori. Baiña izan
zituan ekaitz-aldiak; iru asi-alditan altxa zuten
Itziar'ko Amaren eleiza ori.

Pelegrinazio aundi bat Itziar'en izan omen
zan, bederatzi egunekoa, nere aitita txikia zala.
Nere aitita jaio zala, eun da ogei urte badira.
Arek justu-justu gogoratzen zala esaten zuan;
bederatzi eguneko pelegrinazio arekin jende
asko ibili zala Itziar'en, bide guztiak betean
etorri ta joan.

Beste eleiz-batzar aundi bat egin zan Itziar'en, egun batekoa, 1904'garren urtean, garaia banatuta, udararen erdian (1).

Bederatzigarren Piok Ama Sortzez Garbia zala erabaki zuanaren urtebetetzea zala-ta, Itziar'ko Ama Birjiña adoratu zuten da leku geiagotakoak ere bai.

Zabaleta gaiñean izan zan eleiz-batzar aundi ori. Itziar'tik goraxeago dago, piska bat Sasiola aldera. An egin omen zuten aldare aundi bat. Ama Birjiña Itziar'koa ara eramán; Loiola'ko Inazio Deunaren iduria ere bai; biak goiko aldarean jarri zituzten.

Goizean, Inazio Deunaren iduri eder ori azpeitiarrak bizkarrean Itziar'era ekarri zuten, karreteratik erten gabe, amabi mutil aundi artarako banatuta. Larunbat-arratsaldean atarra omen ziran Loiola'tik, eta Itziar'ko Amaren basilikara egun argitan allegatu azpeitiarrak.

Zuzendariak zituzten Aita Laskibar jauna ta bestea Aita Aizpuru jauna.

Goizeko irurak aldean meza bat eman zuten Itziar'ko basilikan. Gero, Zabaleta gaiñeko aldarean egin zituzten egun guztiko egin-kizunak.

Desgusto piska bat izan zuten: aldareak su artu kandelako suarekin, baiña laister menderatu omen zuten.

(1) *“En 1904 hubo otra peregrinación, con gran concurso de romeros, a la que se dice asistieron 16.000 peregrinos. (Juan de Esnaola: Santa María de Itziar, Vergara, 1927, 140 orri aldean.)*

Eginkizunak bukatu ziranean, etxera abiatu omen ziran danak. Ondarrutarrak orduan San Inazio eskatu omen zieten azpeitiarrai: beurak ere partea bazeukatela San Inaziorekin, aren ama beren errikoa zala-ta. Azpeitiarrak eman zieten ondarrutarrai, ta aiek bajatu zuten Gaintza'ko krutzera bitartean. An agurtu zuten San Inazio. Kantu ederrak kantatu omen zituzten ondarrutarrak.

Andikan danak etxera. Azpeitiarrak San Inazio bizkarrean artu ta Loiola'ra entregatu.

Itziar'ko basilikan izan zan desgusto bat. Zenbat urte diran ez dakit, baiña nere aititak eta amonak ezagutu zuten.

Gau batean, Ama Birjiñaren aldare aundia erre egin zan dana. Ama Birjiña, erdi-erdian, erre gabe geratu. Soiñekoaren barrena suak piska bat erre, baiña itzaldu. Ura Ama Birjiñaren milagrotzat artu zuten ikusi zutenak: sedazko soiñeko ederrak su artu ta ez erre-tzea (2).

Jesus Aurrari musu gaiñean txulo bat egin, su-puska batek goitik jetxi ta jo zuanean; argizaiarekin konpondu zioten txulo ura.

Su ura gabea izan zan, da iñor etzan konturatu goizera arte.

Gero aldarea berritu zuten, da oraindik alaxe dago. Urte on askoan kontserbatu dezala Itziar'ko Ama Birjiñak.

(2) 1893.VIII.4'an. (*Juan de Esnaola: Santa María de Itziar, Vergara, 1927, 71 orri aldean.*)

Bere ondoan omen zituan lengo kondaira zarrak eta istoriak. Aldarea erre zanean, danak antxe erreak omen ziran.

Emen argitaratu ditudan istori auek, lengo zarrak entzunak dira. Orain esango ditudanak, neuk ikusiak.

Itziar'ko Ama Birjiñari erregalo eder bat egin da eman zitzaion buruaren gainean jartzeko koroia, 1952'eko Agoztuaren 3'an, egun siñalean.

Koroi ori egiteko, borondatezko limosna eskatu zuan Itziar'ko erretore jaunak; baita jendeak ondo erantzun ere. Urrea ta zillarra ta balorea asko osatu, al zan piñena egin, da ala ere sobratu egin omen zan.

Egun artan Itziar dotore zegoan. Gaintza'tik asi ta Itziar'ko kale-alde dana, pitxi asko ta papel dotoreak txintxilika jarrita. Itxas-gizonen tresnak ere bai: arrantzuko sareak eta itxasoko gauza batzuek. Baserritarren tresna batzuek ere bai: uztarriak eta beste esku-erremienta batzuek ere bai.

Ama Birjiñari koroia ipintzeko, aldare berri eder bat eginda zegoan, kale barrena baiño piska bat gorago. Ketari izeneko baserria antxe dago gertuan. Ni deskuidatu ez banaiz, angoxe soroan eginda zegoan aldare eder ura.

Ama Birjiñari koroia ipintzeko eguna iritxi zan, da eleizatik atera egin zuten, anda dotore baten gainean.

Itxas-gizonak lagundu zioten beren jantzi urdin illunakin, arraunak eskuetan zituztela, ta eramane zuten kanpoko aldare gainera. Txalo asko eskeiñi zitzaizkion.

Bereala meza ematen asi ziran. Iru gotzai jaun ziran, da apaizak asko; nik ez dakit zenbat.

Meza ematen asi ziranean, euria asi zuan, da toldo bat ekarri zuten, da itxas-gizonak arraunen puntan zabaldu. Ama Birjiña aren azpian eduki zuten, da meza ere antxe eman zan. Meza bukatzerako atertu zuan, da arratsaldean egualdi ederra.

Arratsaldean etorri zan ordua Ama Birjiñari koroia ipintzeko. Ogei milla persona bazirala juzkatu zuten momentu artan. Iru gotzai jaun aiek koroia artu zuten eskuetan, bedeinkazioa eman zioten, da buru gaiñean jarri.

Momentu artan Itziar'ko erria dardaraka egon zala uste det, ango kanpai-otsakin da tiroakin. Andutz mendian ere tiro aundiak bota zituzten. Nik uste det ura ere dardaraka egon zala.

Itziar'ko Ama Birjiñari momentu artan txalo ederrak eta asko eskeiñi genizkion.

Eginkizunak bukatu ziranean, itxas-gizonak artu zuten beren anda gaiñean da ekarri zuten eleizara, eta, lengo bere aldaretxoan jarri zutenean, ura zan gauza polita eta argia eta maitagarria! Txalo ederrak eskeiñi genizkion, da ala agurtu genduan Itziar'ko Ama Birjiña.

Koronatu ta ondorenean, koroia jarri zitzaion soro artan, antxe jarri zioten eta antxe dago siñale ederra, arri piñakin egiña, oso dotorea ta apaiña.

Gero, Itziar'ko Ama Birjiñari sortu zitzaion gauza arrigarria: egurrezkoa da, ta pipia esaten

zaien zomorro txikiak dana zulatu zuten. Orduan, Itziar'ko jendeak eta parroko jaunak Madrilla eraman zuten, zomorro aiek kentzera. Baita kendu ere.

Madril'ko euskaldunak bertan nobena bat egin omen zuten bere aurrean.

Itziar'era abiatzerako, iru bat illabete an pasa zituan. Zein urte, ez naiz konturatzen seguru: 1960 inguruan, bi edo iru urte gorabera.

Eginkizunak bukatu ziranean, kotxe polit baten artuta, Ondarru'ra ekarri zuten aurrena. Itxas-gizonak an sartu zuten beren ur-ontzi baten, da Deba'raiño itxasoan ekarri.

An atera ta parrokira sartu, ta antxe meza nagusi ederra eman bere aurrean.

Arratsaldean atera zuten Deba'ko parrokitik, kotxe eder baten ipiñi ta Itziar aldera abiatu, aurretik eta atzetik polizia, kotxea ta jendea zualarik.

Allegatu giñan Itziar'era, ta jendea ta kotxea ezin kabitu erri-inguruan. Itziar'ko eleizan sartu zuten da bere aldaretxoan jarri. Gero errezo batzuek egin giñuzen, da agurtu genduan Itziar'ko Ama Birjiña maitea.

Orain sarri bisitatu dezagun, da biotz biguñez da fede piñarekin eskatu bakoitzak desio duana ta iritxiko du.

Agur, Itziar'ko Ama Birjiña maitea! Milla ta berreun urte pasa badira Itziar'en Ama Birjiña agertu zala bere Jesus Aurrarekin. Aurrera ere jarraitu, len bezelaxe, birtuteak zabaltzen!

LENGO BASO-MUTILLAK

Gure etxe-inguruan baso aundiak ziran garai batean, gure aititaren gazte-denboran-eta. Pagoa, aritza ta gaztaiña zan dana. Nere gogoanean ere, gaztaindi aundiak eta aritzak eta pago-mordoskak ere bai. Orain, berriz, dana piñu beltza.

Gure aitita etxe-inguruan basoan ibillia omen zan ikazkintzan, eta zerran ere bai zerbait. Kuadrillan eta urruti ez; gertuan beti, gauean etxera etorriaz.

Ala ere, basoko bizi-modua zer zan ederki zekian, eta askotan esplikatzen zuan arek. Udara-azkenetikan negua pasa bitartean esaten zituan kontu oiek. Orduan asi nintzan ni basoko berri ikasten.

Lengo baso-mutillen lana erreza zala pentsatuko dute askok. Etzan oso erreza. Ikazkiñen gertaera argitaratuko det aurrena, ta gero zerrariena.

Ikazkiñen lenengo lana, txondorra egiteko lekua egin ondo, leku zabala, atxurrakin da palakin. Txondor-zuloa edo txondor-plaza esaten zioten.

Urrena, aren gertura egurra ekarri. Orduan txondorra kargatu. Lenengo, sua sartzeko zuloa egin da kargatzen zuten, da gaiñetik tapatu lurrarekin edo zotal belardunarekin.

Gero, sua sartu gaiñetikan bera, suarentzat egindako zulo txikitikan. Ondoren, tapatu zulo ura.

Urrena, txondorrean suak indarra artzen duanean, zulo txiki batzuek egin ziri batekin, keak erteteko.

Puntatik bera asten da ikatza egiten. Egingdako ikatza estutu egiten zuten, mazo aundi batekin jota.

Beste gauza bat badu txondorrak: erre-zuloak erre egiten zaizka, ikatza egiteko denboran. Zulo oiek bete egin bear izaten dira egurrakin, da atzera tapatu lurrarekin. Bete-garria du izena orrek.

Txondorra dana ikatz egiten danean, gaiñeko lur zarrak kendu ta orduan asi ikatza ateratzen atxurrakin edo kakuakin. Txondorren barrenetikan asten da lenengo ikatza ateratzen.

Sua ere izaten du piska bat. Itzaltzeko, ura gertuan bear izaten zuten. Ikatzak ordu batzuetan egon bear izaten du, suak itzaldute arte, eta orduan zakuan sartu.

Lan oiek danak ondo egiteko, opiziale egin bear izaten du.

Beste gertaera bat badu: txondorrak, sutan dagoanean, tiro bat egiten du, ta gaiñeko lurtapa guztiak bota.

Orduan txondorra dana sutan, da lurrakin da abar tapatzen da. Baiña txondorak galera aundia izaten du, ori gertatu ezker. Eskerrak ori gutxitan gertatzen dan.

Ikazkin zarrak txabola egiten zuten lau urkuloren gaiñean. Urkuloak ziran txabolari eusteko egurrak, bi aurreko aldean eta beste biak atzekoan. Betikan zabal ipintzen ziran, eta goian estu, gaiñeko egurrari eusteko ta alkarri ere eusteko. Gaiñeko egur ori egur puerte bat izaten zan, gaiñ-gaiñean ipiñita eta batetikan bestera.

Gero, tartean, erdi aldean eta abar, beste egur koskor batzuek. Oien gaiñean, txillarra-puska bat, eta gero zotala, teillatu ordez.

Txabola oiek, etxe-tellatuen gisa egiten zituzten.

Barruan, lo egiteko lekuan, txotxaka txiki-txikiak, eta txillarra txikiak ere bai. Gaiñean, garoa ta lastoa.

Lengo ikazkin zarrak, egunean bi jatordu bakarrik egiten zituzten, da taloa ta baba beltza beste jatekorik ez. Babak, txerriaren gantzarekin gozatuta. Lapikoa lurrezkoa, babak egosteko. Taloak ondo egiten zekianari, sari aundiagoa ematen omen zioten.

Txabolaren barruan lekua, taloak egiteko ta tresnak edukitzeko; eta lagun bakoitzak beren katillu-askak, egurrezkoak, beurak egiñak aizkorarekin.

Taloe ta baba beltzak zukutu ta jateko, kotxareak, egurrezkoak, aizkorarekin egin-dakoak.

Gauza oiek geienak, baldar egokiak izango ziran.

Edateko, ura bakarrik; ardorik batere ez. Pipa erre bai, tabakoa zutenean.

Orain zerrarien gertaera argitaratuko det.

Aizkora egiteko aurrerapena iritxi zanean, aizkorarekin bota arbolak. Lengo zarrak lan asko egin zuten aizkorarekin. Etxeak egiteko egur danak, ederki leguntzen zituzten.

Urrena iritxi zan aurrerapena, esku-zerra. Arekin asi ziran ol ederrak eta gauza asko txukun egiten. Aurrerapen orrek urte askotan jarraitu du; ia orain arte. Baso-mutil zarrak, esku-zerrariak ziran.

Lenengotik, arbolak bota ta moztu egiten zituzten trontza-zerrarekin; leku egokira bildu ta legundu aizkorarekin lau aldetatik. Orduan zerra-tokia egin.

Postura ontan egiten zan; lau urkulo jarri atze aldetik; aien gaiñean egur puerte bat; azpi-astoa esaten zioten ari. Aren gaiñean bi egur luze, azpi-astoari josita.

Beste bat antxe bertan, egur luze aieri josita, lau edo bost oin luzekoa. Azpiko egur luze oiek, amar edo amabi oin. luzekoak, puntan lau urkulorekin eta erdian bi poste txiki.

Gaiñean beste egur bat, aurre aldetik josi gabe, zerratzeko egurrari nai zan lekuan jar-tzeko.

Beste bi egur koskor, zerra-tokiaren gaiñera egurra jasotzeko; ta beste egur luze bat, sataia izenekoa, zerra aldatzerakoan tronkoa altxa-tzeko.

Tronkoa, aizkorarekin lau aldetatik legunduta jartzen zuten. Ura markatzeko, ari bat izaten zuten, lokatza beltzarekin zikinduta. Bi lagunek eldu bi aldetatik, erdian altxatu ta marka egiten zuan.

Markak egindakoa, zerra-tokira jaso. Gaiñeko ariaren markak eta azpikoak, plomarekin txuxen jarri.

Orduan, atzeko egurrari josi bi burni oker. Txakurrak dute izena burni oiek. Orduan zerratzen asi.

Tronko gaiñean lagun bat, eta bean, nai bada bat, nai bada bi. Zerra, arpana izenekoa. Oja zabal-zabala izaten zuan, bi esku-lekurekin, bat goian da bestea bean.

Beste zerra bat bazan oso polita, tronko txikiak zerratzeko ta abar. Zerra txikia ere esaten zitzaion izena; armazoiko zerra ere bai.

Orren armazoia egurrezkoa izaten zan. Bi albotan bi egur, luzean sei oin ingurukoak; lodian lau ontza inguru; goi ta bean bi egur puerte, iru oin zabal eskasekoak, uztarri-egiturakoak; goian da bean esku-lekuak; erdian zerra melar bat.

Zerrak zorrotutzen zituzten eskuz, bi limakin. Aizkora-kertenak beurak egin bear aizkorarekin.

Txabola egiten zuten, egur batzuek tentetu ta buelta danean josi; tellatua ere, beurak egindako olakin josita, etxe-tellatuen egituran.

Zulo bat keak erteteko. Aurrean ate bat. Barruan mai koskor bat, olakin egindakoa.

Lo egiteko lekuan, txillarra-puska bat bota lurrean eta gainean garoa edo lastoa.

Zerrari zarrak, ikazkiñak bezela jaten zuten: egunean bi jatordu; taloa ta baba beltza beti, beurak egurrez aizkorarekin egindako katillu-askan eta kotxarearekin zukututa. Erre bai, tabakoa zutenean. Ura edari; gero asi ardoarekin.

Baso-mutil aiek taloak egiten omen zituzten aulkirik gabe, bi eskuetan txabalduta; pala txabal baten jarri ta sutan ipiñi. An bi buelta emanda, sutako prasa ondoan jarri burni-sare baten. An jarri tente. Arro-arro egindakoan, jan.

Masa egiteko, kobrezko pertz aundi bat edo egurrezko aska bat, aizkorarekin egiña.

Olako esplikazioak askotan zituan gure aititak, eta nik, ari entzunez, makiña bat aldiz esan nion nere buruari:

— Gauzatzen naizenean, basora joango nauk ni ere, diru irabaztera!

Oso diru-zalea bainintzan gaztetan. Orduan etzan, gaur bezela, pabrikara joan da dirua irabazterik. Ameriketara edo morroi joan bear zan, edo bestela basora; ta nik auxe apartatunuan eta ara joan nintzan.

BILDOTXOLA ANAIK

Gure etxetik, eta Andutz menditik ere bai, bistan dago Izarraitz mendia.

Mendi aundi ta arkaiztsua da, baiña leku onak badauzka asko; pagadi onak bazituan len, ikatza egiteko; ardientzako larre onak ere bai uda-parterako; ta auntsak, beorrak eta betizuak eukitzeko ere bai.

Aitak edo aititak esanda, beti entzuten genduan Izarraitz mendi ortan ikazkin famatuak bazeudela: Azpeiti'ko Bildotxolatarrak, bi anai, mutilzarrak.

Gero, Azpeiti'ra neu joan nintzan esposatu ta bizi izatera, ta an aien gertaerak askoz obeto ikasi nituan.

1887 urtean-edo, berrogei eguneko elurtea izan zan. Elurte arek Erlo'ko punta baiño piska bat beraxeago arrapatu zituan Bildotxola anai oiek, ardi-txabola xar baten, jan gutxirekin. Beren altura baiño geiago elurra loditua, eta ezin ba erten txabolatik.

Asto bat zeukaten an beren jan-edanak eramateko. Goseak larritu ziranean, uraxe narritu zuten. Astarra omen zan. Puska danak

erdi bana banatu zituzten, eta bakoitzak bere-
tik jaten zuten, kastatu bitartean.

Azpeiti'ko errian bazekiten aiek jateko gutxi
zutena, ta bildur ziran ilda billatuko ote ziran.

Berrogei eguneko elurte aundi arek Otsai-
llean asi ta Martxuaren azkeneraiño iraun
zuan. Martxuaren ogei ta bostean lodiena
omen zan elurra. Martxuaren azken egunetan
egoaize aundi bat atera omen zuan. Orduan
azkar bajatzen asi elurrak. Errekan kabitu
ezinda urak itxasora joan omen ziran. Ildako
ardi ta arkume ugari eraman errekak.

Orduan Azpeiti'tik atera ziran gizon bular-
tsuak Izarraitz mendira, bi ikazkin aien billa.
Aiek zeuden txabolara gerturatu ziranean,
ikusi zuten kea. Orduan esan zuten:

— Bizi dituk!

Eta egin zieten jaupara aundi bat:

— Raup!!!

Ikazkiñak erantzuna txabolatik:

— Raup!!!

Allegatu ziran gizonak txabolara. An billatu
zituzten mutilzarrak su ondoan, pipa piztuta.
Esan zieten:

— Tabakoa bai al daukazute?

— Ez, ez daukagu tabakorik. Elurraren
azpitik pago-orbela atxurrarekin aterata, su-
tan legortu ta erretzen diagu.

Elurte aundi artan mendi-etxe askotan tella-
tuaren ertzeraiño elurra omen zan. Etxe askori
tellatuak eta ormak puskatu omen zizkion
elurraren kargak.

Galdetu zieten:

— Emen, zer janda bizirik egon zerate?

— Astar koskor bat bagendukan, da uraxe narrutu genduan; da puska guztiak biontzat berdin partitu giñuzen.

Batek astoaren parteak ere janda omen zeuzkan; besteak istribilluen erdiak, jateko bildurrez. Jan zituana gaizki ibilli omen zan, jaten oso zaillak omen ziran-da.

Ala, oso animoso danak Azpeiti'ra jetxi omen ziran.

Bi edo iru urteko illeak eta bizarrak osorik omen zeuzkaten, da Alkate esaten zioten barbero zar batengana joanda, ardiak mozteko guraiza aundiakin moztu omen zituan; da, azkenean, abereak garbitzeko eskobilla latz batekin garbitu.

Elurrak bajatu ziranean, berriz ere gustora Izarraitz mendira igo omen ziran.

Pelotariak oso maiteak zituzten Bildotxola anai mutilzar oiek. Apariak-eta bear zituzte-nean, abixatu ta bajatzen zituzten Azpeiti'ra.

Bajatzen omen zituzten eta bizarra eta zikiña eta autsa aiek. Denbora askoan batere garbitu gabe eukitzen omen zuten gorputza, ta euri-zaparrada aundia egin eta pasatzen etzan tela aiek narruaren gaiñean; ikatz-autsarekin-da egindako tela.

Buru-alde ori, berriz, bizarrakin eta illeakin dana tapatuta. Len esan bezela, Alkate esaten zioten barbero zar orrengana joan da moztu piska bat.

Ekartzen zituzten gero banketera, ta batek galdetu gauza bat, besteak bestea eta aiek esan txisteak, bat baiño bestea ederragoa. Txiste aldrebesak egoki esaten oso iaioak omen ziran. Parrik ez omen zuten sekula egiten aiek. Beti erantzun ederki dana.

Ala ibiltzen omen ziran, pelotarien kontura egundoko apariak-eta egiten. Jan da edan egin debalde aiek.

Berrogei eguneko elurte aundi ura pasatu ta errira jetxi ziranean ere gonbiratu omen zituzten, da pelotari batek esan zien:

— Zuek orain fubolean asi bear zenduteke!

Anai mutilzar aietako batek kontestatu:

— Zergatik gu orain fubolean asi?

Pelotariak erantzun:

— Zuek astoa jan dezute, ta astoa ostikalaria izaten dek; fubolean ere ostikoka egin bear izaten dek, eta astoa janda ortarako iaioak egongo zerate! Ostikoka aixa egingo dezute orain zuek!

Mutilzarrak atzera:

— Ez! Gure astoak ostikoka etzekian! Arrauan eta emeari gañera igotzen bakarrik zekian arek!

Mutilzar aiek, gauza ziran arte, Izarraitz'en jarraitu zuten ikatza egiten, da beste gertaera batzuek ere bazituzten.

Egun baten, ari omen ziran txondor-lekua egiten, da trumoa gogotik eta tximista ugari. Aiek segi atxurrean.

Alako baten, tximista sartu zaie anketara. Aiek jo atxurrarekin da buztana moztu.

Pusketa ura berentzako gelditu. Oso material piña omen zan; da Xokolo errementari-arengana eramanda, burni-ziriak eta borra egin omen zituan.

Tximista ura siñale ibilli omen zan gero, bere buztan motzarekin. Mutilzar aietara ez omen zan geiago urreratu.

Txondorra kargatzen oso egokiak omen ziran. Txondorra goi aldetik kargatzeko, bat goian jarduten omen zan, eta goikoak bekoari eskatzen omen zion egurra. Egurak beren izenakin eukitzen omen zituzten gertuan.

Goikoak eskatzen omen zion bekoari:

— Botaiak praille-burua bezelako bat!

Bekoak bota. Ura ipiñitakoan, berriz ere eskatu:

— Botaiak orain obispoaren kastorra bezelako bat!

Bekoak bota. Ura ipiñitakoan, berriz ere:

— Botaiak orain Anboto'ko señoraren ipurdia bezelako bat!

Bekoak bota.

Orrela txondorra kargatzen ari zirala, artzai bat etorri bertara. Arek galdetu egin zien:

— Obispoa ta prailleak noiz ikusten dituzute?

— Obispoa San Inaziotan, Loiola'ra etorzen danean! Prailleak ere antxe zeudek!

— Eta Anboto'ko seño­raren ipurdia nola ikusten dezute?

— Gau batzuetan onera etortzen dek txondor aldera, gona motx-motxakin, danak agiri dituala —esan zioten artzaiari—. Ori, parte txarreko emakumea dek. Batzuetan aidean pasatzen dek ire txabola orren pare-parean, Anboto'tik Murumendi'ra, Murumendi'tik Anboto'ra.

Artzaiak orduan pentsatu du Anboto'ko seño­ra orri ipurdia ikustea azpitikan gora, eta txabolari tellatuan egin dio zulo bat, berak lo egiten duan parean, seño­ra orri ipurdia ikusteko.

Gau baten, lotan zegoala, sartu zaio tellatu-zulotik ontza, eta arpegia dana atzamarkatu. Bildurtu da artzaia. Erten du txabolatik erio baten, da joan da ikazkin aien txabolara. Esan die:

— Etorri, mutillak, nere txabolara, Anboto'ko seño­ra sartu zaidak-eta tellatu-zulotik barrena!

Bi ikazkin aiek, makil aundi bana artuta, joan omen ziran artzai-txabolara.

Sartu dira barrena ta ontz zar aundi bat su gaiñeko gaztaia jaten. Artu anketan eta tellatu-zulotik er­ten omen zuan; da, uju ederrak eginda, aldameneko pagotegira joan omen zan ontz zar ori.

Gipuzkoa'ko Napar aldean seño­ra orri esaten zaio Murumendi'ko Dama; eta Bizkai aldean da Bizkai'koak, Anboto'ko Seño­ra. Anboto mendi ortan omen du gorde-lekua, leitze-zulo bat; bestea, Murumendi'n.

Beti bezela, ari omen ziran txondorreko lanak egiten, da orduan ere bi edo iru urteko illeak eta bizarrak moztu gabe zeuzkaten.

Eibartar bat gerturatu zitzaien, perretxikutara joanda. Arek galdera bat egin zien:

— Zergatik daukazute illea ta bizarra orrela aundiak?

Mutilzarrak erantzun:

— Guk emen ibilli bear izaten degu txondorreko lanak egiten, eta Anboto'ko señora etortzen zaigu jolas-gurearekin. Guk ez degu jolas-gurerik eukitzen. Señora ori oso gizonzalea da, ta ura bildurtzeko eukitzen degu ille ta bizarra aundia.

Eibartarrak esan zien:

— Nik ekarriko dizuet señora ori bildurtzeko tresna bat.

Etorri omen zan ondorengo egun baten eibartar ori pistola zar aundi batekin. Bere balakin kargatu ta esan zien ikazkiñai:

— Anboto'ko señora etortzen bajatzue, tira orrekin!

Gau baten, atera omen zan anai bat txabolatik, eta Anboto'ko señora txabola-atarian dantzan, gona motx-motxakin. Anaiari deitu zion:

— Aguro erten zak eibartarraren tresna orrekin!

Erten omen zuan, da arek ez jakin pistola ura disparatzen. Tira omen zion oso-osorik

indarrean, da jo omen zuan ipurdian Anboto-
'ko señora. Golpearekin pistolari barrungo
bala lertu. Dunba! Tiro aundi bat egin omen
zuan. Laister altxatu omen zan lañoetan gora.
Ez omen zan geiago etorri aietara.

Ondorenean, esaten omen zuten mutilzar
aiek:

— Ez dek eibartarrak bezelakorik, lapurrak
eta parte txarrekoak erretiratzeko!

Beste gau baten, anai bat atera omen zan
txabolatik txondorra ikustera ta su piska bat
billatu zuan kaltegarritzkoa. Maldizio txiki
batzuek esaten asi zan: mekauden da olako
batzuek.

Orduan jarri omen zaio gauza gorri-gorri
bat aurrean, bera baiño altuago.

Bildurtu da mutilzarra. Inpernuko etsaia
dala pentsatu du. Orduan esan omen zuan:

— Jesus!

Momentu artan, da!, gauza gorri ura ezku-
tatu.

Berriz pentsatu du mutilzarrak mekauden
esatea. Esan omen du mekauden. Etsaia etorri
ondora.

Orduan mutilzarra asi omen da Jesus da
mekauden, denbora-puska baten. Etsaia joan da
etorri, joan da etorri. Etsaiak ler egin. Begiratu
txarra egin omen zion etsaiak. Ura ere bil-
durtu. Geiago ez omen zan etorri.

Illuntze baten, neskaxa bat etorri omen
zitzaien txabola ondora. Izarraitz babeseko

baserri batekoa omen zan. Laño itxuarekin bideak galduta, negarrez, etxera joatea zai zuala esan zien mutilzarrai, ta errukitu ziran.

Anai batek besteari galdetu omen zion:

— Neska laguntzen izan al aiz bein ere?

— Ni ez.

— Ni ere ez nauk izan bein ere.

Orduan zotz egin zuten zein joan. Galdu zuana joan zan neskatxari laguntzera baserrira.

Sartu ziran barrena, ta bi agai luze lukainkaz beteta sukaldean. Andik zartagikada bat eman zioten talo beroakin, neskatxari lagundu ziolako. Azkenean, beste lukainka-pusketa luze bat, txabolan jateko. Gerrikoan sartu omen zuan, praketan muturra zuala.

Txabolara zijoala, xixa-guratu omen zan, da, bere istribilluari eldu diolakoan lukainkamuturrari elduta xixa egin, istribillua barruan zuala. Prakak eta anak, dana busti. Legorragatik joan omen zan txabolara.

Gero Pazkoazkoa egin bear da bildurrak, neska laguntzen izan zalako, penitentzi aundiñ izango ote zuan. Pazkoko garaia, arbi-lorak ikusitakoan izaten omen zuten.

Joan omen da, ba, Loiola'ra, Aitortzerakokan, konpesoreak bildurtu egiten omen ziran aien ille ta bizarrakin; emakumeen sare ondolik aitortzen omen ziran.

Mutilzar orrek esan dio bere neska laguntzea. Konpesoreak galdetu dio:

— Egin al diozu, ba, zirri txarren bat edo nai etzuan gauzen bat?

— Ez, jauna; ez nion ikutu ere egin!

Orren penitentzia etzion eman.

Orain bukatzera noa Bildotxola'ko bi anaien gertaerak. Azkenean il ziran Xokolo errementariaren etxean, pamelikoak zituan-da. Izenak: Joxe Mari ta Andres.

Mundu ontan naikoa inpernu pasako zuten, da orain Jaunak zeruan euki ditzala!

IRATI'RA

Soldadu-urteak iritxi zitzaizkidan, da Deba'tik atera papela ta Marina'rako apuntatu nintzan. Zumaia'n genduan guk geure kuartela. Komandantea ez dakit nungoa zan, baiña Comandante Trozo esaten zioten.

Garai artan suertea botatzen zan, da batzuek libre ta besteak katibu ateratzen ziran. Suertetik ez genduan guk ikusi; gu gabe tiratu zuten. Ni eun da irurogei ta bostgarrena atera nintzan, da erdiak ere etzituzten eramane; ni libre beraz. Eun da larogei bat mutil juntatu giñan tallatzera, suertea tiratu ta gero.

Orduantxe publikatu zan Naparroa'n, mugaz andik, Irati-soro izena zuan puntuan edo basoan, lantegi aundia atera zala ta mutillak bear zirala; ta ara joatea pentsatu nuan urrengo udaberrian.

Alaxe joan ere. Martxuaren azkenean, gutxi gora-bera, Iraeta'ko estaziora juntatu giñan mutil-mordoska bat: Inazio Motza, Arrua'ko kalekoa; nere auzokoa bestea, Metale baserrikoa, Roke Oruezabal; Azkoiti'ko Ondarrua baserriko Jose Maria Arrizabalaga; geiago ere

baziran banaka batzuek, Arrua'koak, Itziar-koak, Lastur'koak eta orkoxeak, baiña izenak etzaizkit orain gogoratzen; ta gero ni.

Sartu giñan trenean da Zumarraga'ra allegatu giñan. Andik atera giñan da sartu Norte izeneko tren aundian. Joan giñan Altsatsu'ra. Andik atera giñan da sartu beste trenera, Pamplona'ra joateko.

Allegatu giñan Pamplona'ra; atera giñan trenetik; sartu giñan tranbean, errira joateko orduan bazegoan-da.

Andik atera giñan da joan giñan Plaza Castillo'ra. Andikan gertuan bazegoan etxe bat, jaten ondo ematen zutena. Etxe artan bazkaldu genduan.

Atera giñan andik eta joan giñan berriz ere Plaza Castillo'ra. An ateratzen zan autobus bat ordu bi t'erdietan, Burgete'ra joateko.

An sartu ta joan giñan Burgete'ra geure trasteakin. Maleta aundi bana bagenduan barrua beteta; bi aizkora, aldatzeko erropak, kamañan etzateko manta, lanerako abarkak, zatoa, platera ta kotxarea, bizarra kentzeko tresnak, orratza ta aria, ta jaboia ere bai.

Burgete'n egin genduan joan da aparria ta oia enkargatu, ta bertan geratu ta ardo puxka bat edan.

An bertako zarrak euskaldunak zeuden, da aiekin Irati'ko kontu zar batzuk esan da an egon tertulian.

Gero, erria piska bat ikusi genduan. Etxetellatuak zearo pika ziran. Galdetu genduan zergatik ala zeuden, da:

Elur-tokiak zirala aiek, eta, elur aundia egiten zuanean, bera erortzeko zirala erantzun ziguten; bestela etxe-tellatuak lurra joko zutela kargarekin.

Urrengo egunean goizean erten genduan. Andikan zortzi ordu bear giñuzen lantegira joateko. Geure maletak bizkarrean artu ta mando-bidetatik joan giñan.

Ez genduan erririk ikusi geiago. Baso galantak bai; pagolizar aundiak, ikaragarriak. Bidean ginjoazela, elurra lodi zegoan mendipuntak ikusten ziran.

Burgete'tik gora abitu giñanean, lagun batek onela esan zuan:

— Aurtengo udaran ez diagu, ba; neska asko ikusiko itzegiteko ta jostatzeko! Arbolai begira pasa bearko diagu udara guztia!

Ta beste batek erantzun zion:

— Txabolan egingo dizkiagu dantzak eta baileak jai-illuntzetan; soñu-joleren bat edo beste beti izaten dek txabolan-eta!

Ta beste batek:

— Bai, baiña danak arrak izango gaituk an; emerik bat ere ez!

Ta alaxe izan zan ori ere.

Burgete'tik erten da lenengo etxea Orbaizeta'ko etxe bat arkitu genduan; Zabala'ren etxea esaten zioten. An ardoa ta gaztai ta ogi piska bat artu genduan.

Gero andikan, pantano aundi bat egiten ari ziran guk pasatu bear genduan lekuan, Irati

errekan. Antxe pasatu giñan aurreko ormaren gaiñean.

Andikan bi orduko bidea gendukan Irati'ko goarda-etxera. Bi mendi-goarda bizi ziran etxe artan. Jana ta edana eukitzen zuten emateko, ta antxe bazkaldu genduan. An esan ziguten, lantegian elurra billatuko genduala.

Atera giñan andikan. Asi giñan mando-bidean aurrera. Lau ordu bear giñuzen lantegira joateko. Bi ordu bear ziran Prantzi'ko mugara allegatzeko. Erreka-beltz esaten zioten muga ari. An karabineroak egoten ziran, mando-bide ondoan, errekaen bazterrean.

Gu allegatu giñan ara arratsaldeko laurak aldean. Antxen zeuden karabineroak, galdetu ziguten nora ginjoazen. Guk esan genduan Zabaltza'ren lantegira ginjoazela. Ardo-trago bana eman genien zatotik, eta gustora geratu ziran. Alaxe pasatu giñan Prantzi aldera.

Artean bi ordu pasako bidea gendukan lantegira. Ala, jarraitu genduan aurrera, mendi-gaiñetan elur aundiak ikusita. Illundu baiño lenago iritxi giñan. Guretzako txabola eginda zegoan. Elurra piska bat bazegoan an, baiña gutxi.

Iritxi giñanean, nagusia an zegoan. Pedro Zabaltza, Orbaizeta'koa. Ura gustora, gu joan giñala-ta. Lantegi aundiak artuta zeuzkan baso artan, da langille asko bear zituan. Artean nagusia ta beste mutil bakar batzuek zeuden; besterik iñor ez. Napar jendea gero sartu zan.

IRATI

Irati mendi oiek zenbat aundi diran, ikusi gabe ez dago sinisterik. España aldetik aundi-agoak, Prantzi aldetik baiño. España'k ez dauka orrelako pagotegirikan besterik.

An ez du iñork arbolarik landatzen; baiña arbola asko ta ederrak ditu, pagoak eta abetoak, beren aziakin bertan jaiok.

Arbola zarrak bakarrik banatu ta botatzen ziran; goardak markatzen zituzten. Gazteak zutik largatzen ziran, urte batzuek pasatuta botatzeko.

España'ko Irati'tik tronkorik aterako zanik, lengo zarrak ez omen zuten sinisten, erritik urruti zegoalako; baiña an ere aurrerapena sortu.

Gizon bat etorri omen zan, Amerika aldean urte askoan ibillita. Elizondo zarra esaten zioten izena; jatorriz naparra zan. Aren ideaz asi omen ziran España'ko Irati'tik tronkoak ateratzen.

Irati-erreka bastante aundia da. An egin omen zituan presa aundi batzuek leku egokietan, ur asko gelditzeko. Aurrean bi ate aundi

ipiñi zituan, bi ate aiek borra aundi baten golpearekin idikitzen ziranak.

Tronkoak moztu ta bota erre kara pillo aundiak. Orduan presa aundi aiek idiki golpean. Orduan urak artu aurrean tronkoak, eta danak Agoiz'era joaten ziran.

Agoiz'en egin zuten sare puertē bat errekan, urak pasatu ta egurra geratzeko. Ateratzen zituzten gero tronkoak legorrera ta bertan zerratu.

Irati'ko tronkoen despojuak ere, an etortzen ziran errekan Agoiz'era. Aizkorakin moztu ta txukunduta, aiekin *líquido* batzuek ateratzen zituzten: alkoola, espiritua ta ez dakit zer geiago.

Elizondo ori, Pamplona'n larogei ta amasei urterekin il zala esaten zuten. Gu Prantzi'ko partean ari giñala il zan. España'ko langille danak, mendikoak eta Agoiz'koak, jai egin zuten ura enterratu bitartean.

Irati mendian, pagoa ta abetoa, bi arbola-klase oiek bakarrik ziran.

Abetoa, papela egiteko aprobetxatzen zuten; ta, nai bazan, olak egiteko ere bai, basto samarra izaten zan baiña.

Pagoa, pagolizarra izaten zan an dana; gaztetan moztu gabea, alegia. Ta pago motzik, batere ez. Pagolizar oiek material ona dute, beren garaian botata, muebleak egiteko ta edozertarako.

Gaiñontzean, arbola gutxi zan tokietan, garoa; arbola-azpian, beren orbela galanki; ta belarrik batere ez.

Perretxikoak bai, oso ederrak: gibelurdiñak eta, ontuak eta, ziza oriak eta... Jan ederrak egiten giñuzen. Goiko eskiñetan udaberriko ziza zuriak ere izaten omen ziran; baiña gu ez giñan ara joaten.

Irati'ko mendiak, puntu asko ditu beren izenakin: Koxta izenekoa bada; Errekaidor ere bai; Pikatua ere bai; Irabia ere bai; Errekabeltxa ta Errekatxuria ere bai. Badira geiago ere, baiña etzaizkit gogoratzen orain.

Errekabeltx orrek ur illun samarra zuan, ta amorraia asko.

Errekabeltx ortan, Espaiñi'ko karabinero batzuek egoten ziran beren txabolatxoan. Baiña andik etziran aiek iñora ateratzen, beren errira joateko ez bazan.

Pasadizoa antxe zegoan, bidexior bat txabola ondoan, Espaiñi'tik Prantzi'ra pasatzeko.

Baiña andik bi aldeetara, kilometro-sailletan ezker ta eskubi, etzegoan ezer ere; arbola bakarrik.

An inguruan zeuden erriak, Otxagabia izango zan aurrena; baiña lau edo bost orduko bidea izango zan txabola artatik; eta Orbaizeta'ra sei edo zazpi.

Irati'ko eskiña aldera, berriz, Roncesvalles-edo esaten zaion fraile-konbentu ori, Burgete baiño gorago. Valcarlos ere eskiñatik. Ez da besterikan or. Oiek, Espaiñi'ko aldetik.

Prantzi'ko aldetik, berriz, Mendibe aurrena, ta ara ere sei bat ordu.

Espaiñi'ko Irati'n, erdi samarrean, etxe bat

bakarra zan. Bi goarda bizi ziran an beren pameliakin. Goarda-etxea esaten zitzaion. Basoko goardak ziran aiek. Jana ta edana ematen ziguten baso-mutillai, joan ezkerro, etxe bietan.

Udara-azkenera etortzen ziran eiztari batzuek: Espaiñi'koak igual Prantzi aldera pasata, eta Prantzi'koak ere berdin Espaiñi aldean. Oiek basurdetan eta basauntzetan ibiltzen ziran.

Kontrabandistarik ibiltzen zanikan, gu ez giñan konturatu; baiña pasa zitekean an lasai kontrabandoa.

Baiña utsik joatea ere naikoa ta kargarik ezin eraman an erri batetik bestera. An baiño leku egokiagoak asko zeudela napar mendietan esaten zuten, kontrabandoa pasatzeko.

Pizti batzuek ere baziran mendi aietan. Basurdeak ere bai; basauntzak ere bai; azkonarrak ere bai; azariak, ere bai; basakatuak ere bai, eta katagorriak ere bai. Erbiak ere egongo ziran igual, baiña gu ez giñan konturatu aiekin.

Basurdeak gutxitan ikusten giñuzen, pizti tranposoa ta marrajoa dalako.

Basauntza geiago ikusten genduan; aiek pizti bizkorak eta piñagoak dira. Nik ez det oraindikan, lurraren gaiñean, basauntza baiño pizti azkarragorik ikusi.

Zabaltza'rekin lanean jardun giñanean, txabolan bi txakur bagiñuzen; bi txakur polit, eizerakoak. Antxe ibiltzen ziran batetik bestera, bat pintoa, bestea beltza. Pintoak Pinto zuan izena; beltzak Leal.

Goiz baten, geure lantegiaren ondo-ondoan, gaiñ-gaiñeko aitzean, txakurrak atera zuten egundoko zaunka-otsa ta istillu txarra. Ta gero, ixildu egin ziran.

Gure lantegiko langille bat, Salbador izena, Ultzama'koa, mutilzar biurri bat, joan zan axkar-axkar, ta txakurrak, basauntz gazte bat ito ta zulatzen ari zirala arrapatu zituan.

Salbadorrek kendu ta ekarri txabolara basauntza, ta an jan genduan danok. Oso ona zegoan; okela gozoa ta xamurra.

Ura, basauntz gazte ura, nik ez dakit ba, txakurrak bi aldeetatik, zuloaren artean-edo, arrapatu zuten, ta bertan ito.

Emengo antxumea bezelakoxea zan ura; ta basauntza, berez, emengo auntzaren antzekoa da. Adarrik ere ez du; burua lixo-lixoa ta polita. Adarrak, basakerrak izaten ditu.

Gero egaztiak ere badira; butreak eta arranoak, zapelaitzak eta gabirariak, okillak eta eskillazoak; zozoak eta birigarroak, txantxan-gorriak eta txepetxak.

Kukurik ez; paraje altua ta otza zalako, ez omen zan joaten.

An, Irati'n, baziran okil beltzak, emen Gipuzkoa'n ez diran bezelakoak; belearen tamañakoak, moko luze-luzearekin.

Ollagorrak ere, an udaran asko dira, ta umeak ere an ateratzen dituzte, lur gorrian. Illuntzetan atera eta mendi-kaxkoetan ibiltzen dira ollagor oiek; eta egunez erretiratu kabi aldera edo umeak dauzkaten toki aldera.

Beste txori txiki batzuek ere bai, emengoen antzekoak; kaskabeltzak eta olakoak.

Ontza, berriz, pestea zegoan an, ta lo asko galerazten ziguten. Udara-azken aldera, txabola ondoraiño etorri-ta, ujuka ta karraxika etziran ixiltzen: Uuuu... Uuuu...

Etxalartar bat bagenduan mutil bat, eta ura, jaiki gabea, txabolatik erten, sutako illentia artuta, eta ontzai tiraka ta bialtzen ibiltzen zan askotan.

Ez det nik ikusi ontza, an baiño ugariagorik. Gure arrantxeroak jateko sobrantea bota igual kanpoko aldera, ta alakoaren usaira-edo etortzen ziran.

Atzaparrak olako lodiak eta zorrotzak ditu ontzak, eta xaguak eta sube txikiak eta oiek arrapatzen omen ditu asko gabea. Gabea, egunez baiño askoz obeto ikusten omen du ontzak.

Esan bezela, lo asko galerazten ziguten aiek, eta goizean jaiki ta onela esaten genion alkarri:

— Ontz zerri oiek or ibilli dituk bart ere! Ikaragarrizko pesta aundiak egin dizkitek, eta norbaiten ezkontza izango ziteken segurul!

Ano mendirik altuena, Ori zuan izena. Elurra an kentzen zuan udara aldean, baiña denbora gutxian; berriro berealaxe egin. Urte batzuetan, batere ez kendu igual.

Irati'ko mendi-sakon guztiak, arbolaz beteta daude; baiña goiko kaxkoak, arbolarik ez dutenak. An ardiak eta abereak ibiltzen dira. Artzaiak beren txabolarekin ere, antxe egoten ziran.

Artzai oiek, gaztaia egin da gero, gazurari berriz ateratzen zioten mami-puska bat. Senbe-

rona esaten zioten. Ura baso-mutillen txabolarara ekartzen zuten, eta guk ogiarekin gustorajan.

Aren truke, ardoa ematen genien baso-mutillak artzaiai. Ta aiek ere, ardoa edan ta gustora.

Baiña ara joaten ziran artzaiak, ardo edaten oitu gabeak izaten ziran; iturriko ta erreka ura bakarrik edaten oituak. Ta, bi ardo-trago egin ezker, txabola atarian dantzan asten ziran. Gero, oiuka joaten ziran beren txabole-tara.

Geienak, anka gorririk etortzen ziran. Oiñetakorik etzuten ibiltzen. Ankak zapoaren anka baiño latzagoak izaten zituzten; eta eskuak, apaizarenak baiño ere piñagoak. Ardi biltzen ta gaztai egiten ari dirala, eskuak pin-pin egiten zaizkie artzaiai.

Aiek jantzia ibiltzen zuten praka xar-xar batzuk, barrenetik gora doblatuta; alkondara xarren bat, ia dana puskatua; bizkarrean ardi-narru bat, kokotean goi-goitik bera lotuta; ta txapel zar aundiren bat buruan. Ta bizarra ta illea galantak.

Bai Españi aldekoak eta bai Prantzi aldekoak, olaxe ibiltzen ziran aiek.

Ardi-txakurrak ere ekartzen zituzten, oso listoak eta iaioak. Illetsuak izaten ziran; aundiak ez.

Gaiñontzean, guk ez genduan iñor asko an ikusten besterik, eta Irati'ko mendi oiek olakoxeak dira.

ELURTEA

Gustora asi giñan lanean; egualdi ederra-
rekin. Baiña egun asko baiño len, elurra asi
zuan gogotik.

Goizean, xixa egiñera jeikitzen giñan lenen-
go egunero, ta egun artan aurrena erten
zuanak, ala esan zuan, besteak lotan giñala:

— Mutillak, elurra egin dik galanta eta
egiten ari dek oraindik erel!

Jeikitakoan, atetik begiratzen genduan, eta
elurra egin eta egin. Elur maluta zan, mar-
dula.

Atertu zuanean, joan giñan arbol botatzera,
ta botatako arbolak elurretan ezkutatu egiten
ziran. Belaunez goitik zegoan elurra; metro
erdi bat pasa. Bota ta moztu gabe laga. Laxter
erretiratu giñan txabolara. Ala pasa giñuzen
egun batzuk, lan gutxi egiñez.

Ta lo asko egin; ortarako aprobetxatu.
Mantak-eta ondo genduzkan, eta orri eskerrak.

Sua, ikaragarri aundia egiten genduan txa-
bola barruan, eta otzik ez genduan sentitu.
Bertan, txabola-atarian, pagoa naikoa baze-
goan ta bota ta moztu, ta pitzatu ta barrura
txabolara sartu.

Suaren jiran piska bat sekaten jartzen giñuzen egurrak, eta su ederra egiten zuten egur aiek.

Gau osoan sua egoten zan. Arrantxeroak egiten zion kargua suari.

Goizean, eguna zabaldu ta geró jeiki. Baiña eguardi aldean-edo, eguzkia piska bat ateratzen zuanean, arbola batzuek botatzerá joan. Bota, ta, len esan bezela, elurretan ezkutatu. Bi ordu edo iru pasatzen giñuzen lanean.

Aiek moztu ta adarrak kendu ta zuritzera, gero, elurra kendutakoan, joan giñan. Ala txukundu genduan elurteko lana.

Batzuek gomazko abarkak ibiltzen giñuzen, eta besteak perrazko botak. Txabolara etortzen giñanean, su ondoan ipiñi gure ofietako guztiak eta galtzerdiak, eta sekatu. Oiñak ere antxe berotu bear.

Bazkalduta, su ondoan egon puska baten: gero, batzuek lo egin eta besteak erropak konpontzen: prakak eta alkondarak.

Aizkora-kertenak eta borra-kertenak egiten batzuek bagenekigun, ta aiek egiten jardun giñan elurte artan.

Illuntzean ere, su ondoan egon apalduta-koan, ta gero kamañan etzan da lo.

Ta baso-mutillen kontua jakiñekoa: entretenitzeko, neska-kontuak eta zorakeri batzuek esan. Kontu zatarrak igual esango giñuzen guk an, eta ez dira liburuan ipintzeko modukoak izango.

Bertso zar batzuek kantatu ere bai. Bizkai'ko txerriarenak-eta:

Motibo bat nigana
dago etorria,
esplikatuko banu
txit parregarria:
Bizkaia'n egin dute
prueba berria:
kutxillorikan gabe
iltzeko txerria;
erakutsi diote
istillu gorria.

Beste auek ere bai:

Bertso berri batzuek
jartzera nijua,
ni naiz Doña Señorita
Altamira'kua,
nere izatez naparra
Goizueta'kua;
nobiya dadukat
Astigarra'kua,
gazte polit askokin
jostatutakua.

Amak ez baniñu izan
biyotzetik maite,
ez nintzan orla egongo
oraindaño arte;
len ere galazi dizkit
iru-lau bat golpe,
gaztetan ezkontz'eztana
beretzako kalte,
oraingo ontan banua
a la buena suerte.

Nere oraingo nobiyua
da fabrikantia,
baiño ez da jeniyo
alper tunantia;
etzaio gustatuzen
taberna juatia,
osteruntzian berriz
langille fuertia,
ori artzen baldin badet
ai zer suertia!

Oiek, Asteasu'ko Aranburu-berrik atera zitu-
tuala uste det. Dana olako zera izaten zuan
arek. Mutilzar bikain bat zan; asko ibiltzen
zana. Amaika bertso-papel saltzen zuan.

Nik neronek ere kantatzen nituan batzuk.
Jakin ere bai orain baiño geiago orduan.

Bertsolariak plazan sentitu bi edo iru edo
ola. Jeneralean bi izaten ziran gure denboran:
Prantzes-Txikia ta Zubeltzu.

Gero, Arozpide bazan beste bertsolari bat.
Ederra zan bertsolaria. Zubeltzurekin kanta-
tzen zuana zan. Orduan etzan aparatorik eta
boza baju samarra; baiña bertsoa beti gozoa
arek.

Oiei bertsotan joan aditzera ta bertso bat edo
bi beti jaso nik; buruan artu. Gero, kantatu
etxean-da; baita basoan ere, denbora pasa,
elurtean.

Lagunak askotan:

— I, Arbalitz: kanta zak bertso zar bat edo
beste!

Ta nik kantatu ta danak kontentu. Orrela
pasatzen genduan denbora.

Mutil bat bagenduan Arrua'ko kalekoa. Iñaxio Motza esaten genion. Mutil motz fuerte bat zan. Arek asi zuan lantegi polita.

Xagua gendukan asko txabolan. Motz orrek jarri zuan kaja bat bazter batean; ta an ipiñi zituan ogi-pusketa bat edo beste, kaja ta paretaren tartean.

Xaguak etortzen ziran lau edo bost derrepente aiek jatera, ta Motzak soñean ibiltzen zuan gomazko abarka aundi bat; ura eskuan artu ta zai jarri; ta, iru edo lau pillatzen ziranean, jo abarkarekin ta akabatu danak.

Gero, narrua kendu xaguai eta tripak atera, ta baratxuriakin salmueran ipiñi danak. Ogei baiño geiago arrapatu zituan egun baten, eta illuntzean lepoa moztu eta buztana ere moztu egiten zien.

Ipiñi zituan zartagian erretzen olioarekin eta baratxuriakin. Gorri-gorri oso ederki erre zituan; usai ederra atera zuan eta danok inbiritan jarri giñan.

Ura asi zan jaten draka-draka, eta esan zigun:

— Txori txikiak bezelakoxe gustoa daukate!

Ia danok aprobatu giñuzen gero, eta oso goxoak ziran.

Urrengo egunean ere arrapatu zituan beste mardoska bat Motza orrek, eta berdin-berdin ipiñi zituan danak.

Gau baten ozkarbi jarri zuan. Txabolako txirriztuetatik begiratu ta izarrak garbi-garbi ikusten ziran. Esan genduan:

— Ai zer izotza egin bear duan gaur gabean!

Urrengo goizean jeiki giñan ta bai galanta egiña izotza. Gu jarri elur gaiñean, pausoa eman, ta batere etzan bajatzen elurrik.

Erten genduan, eguzkia atera zuanean, lanera, baiña laixter erretiratu giñan. Otzarekin etzegoan aguantatzerik. Egun bat edo bi izan giñuzen orrela.

Urrengo gabean, berriz, gaiñetik len baiño aundiagoa egin elurra; metro erdi bat baiño geiago. Danera jarri zan metroa baiño altuago.

Izotzari eskerrak. Beko len egindakoak izotz gogorra zuan, ta ura baiño berago ez giñan bajatzen. Gogorraren gaiñean ibiltzen giñan; urrengo egin zuan artan sartu.

Baiña bildurtu giñan txabola eroriko ote zitzaigun elurraren kargarekin. Egur zar bat tellatuaren kontra jarri, andikan lau edo bost mutil igo genduan, ta palarrakin bota giñuzen elur danak bera.

Lengo elurren gaiñean bota giñuzen, eta ia tellatuaren ertzeraiñoko koska gelditu zan. Txabolaren tellatua juxtu-juxtu ikusten zan kanpotik begiratuta. Etzeukan leioak tapatu bildurrik alboetan eta atzean; aurrean ate bat bakarra zuan, eta ura libre utzi genduan.

Geren eginkizunak egitera txabolatik kanpora ateratzen giñan puska bat, eta an eginkizunak zutik egin bear izaten giñuzen, anak zabaldua. Bestela, makurtu ezkerro, ipurdiak segituan elurra jotzen zuan, da aren preskurak bildurtu egiten giñun aguro.

Egun baten, arrantxeroak ala esan zigun:

— Mutillak, mugitu bearko diagu, janak ia gastatu dituk-eta!

Guretzako jana ta edana kablean etortzen zan Mendibe'tik Irati-soro'ra, andikan gure txabolara mandoakin jasetzeko. Baiña egun aietan mandoa ezin igo, elur aundia zegoan da.

Orduan erten genduan bazkalondoan, poliki-poliki, makillak artuta. Amar edo amabi mutil bagiñan. Goitik bera zan eta ondo ebakitzen zuan bidea aurrekoak, eta beste danak aren atzetikan xuxen. Txabolatik ordu bete inguruko bidea zegoan bera; baiña elur aundia an ere.

Ala, jetxi giñan Irati-soro'ra. Irati-soro zan kableen estazioa; andik zabaltzen ziran iru edo lau lekutara kable txikiak, eta guk botatako egur danak ara juntatzen ziran.

An bi edo iru txabola aundi bazeuden. Txabola bat zan italianoena. Estazio artako karga guztiak aiek botatzen zituzten Mendibe'ra, eta Mendibe'tik gora zetozen jan guztiak ere aiek jasotzen zituzten almazenera.

Guretzako jatekoak eta edatekoak antxe zeuzkaten gordeta. An artu genduan bakoitzak karga piska bana: ogi bana, gatza, baratxuria, tipula, olioia... Baba beltzarik ez genduan artu; artean txabolan bagendukan naikoa. Zaragi ardoa ere artu genduan, iru zaragitan partituta.

Artu giñuzen oiek danak eta betikan gora. Len bera elurretan egin genduan bide artan

gora, juxtu-juxtuan antxe erten genduan geure txabolara. Izertu eder bat atera genduan gorakoan, da ez giñan aserre txabolara allegatu giñanean. Jateko asko jaso genduan guk orduan.

Ala esan genduan:

— Orain egun batzuetarako jatekoakin seguratu gaituk beintzat.

Gero, elurrak kendu ez, baiña bajatu egin zituan asko; elurrak metui egin zituan, eta mandoa igotzen zan gora, txabolaraiño, gure jatekoakin.

Andik amabost egunera edo ola, egoaize aundi bat atera zuan. Arek kendu elurrak danak. Mendi altu oietan elurra urtutzeko, ez dago olako mendebalik; egoaizea onena. Errekako urak ere loditu ziran bastante.

Gero ere izan giñuzen elur piska bat egingdako egunak, baiña aundirik ez. Orrela bukatu zan gure elurte ura.

Gure nagusiak Pedro Zabaltza eta Pedro Txurrut ziran; Españi'ko Irati'n kontratista urte askoan ibillitako gizonak. Aiek esaten zuten, uda-aldi baten, zazpi illabete danetan, elurra egin ziela; txabola-ataria zuritu. Agoztuan ere bai.

TXABOLA

Zabaltza'k iru txabola bazituan Irati'ko basoan, ni an ibilli nintzan denboran: bat, Otsozulo esaten zitzaion lekuan, Irati-soro'tik gora ordu beteko bidea; beste bat, andik gertuan, Españi aldera; bestea andik, gora ordu erdiko bidea, Españi aldera; Patarbeltxe-ko txabola zuan arek izena.

Txabola oiek danak, berdin egindakoak. Posteen gaiñean tentetu, ta alboetan paretarik ez; pareta ordez, abeto-adarrez itxi buelta dana.

Ogei bat metro luze txabola aiek baziran; ta sei edo zazpi zabal.

Txabola aietan, kristauak aurre aldetik bizi giñan; ta atze aldetik idiak eta mandoak; lanerako tresnak ere an egoten ziran. Orre-gatik, ate bat aurrean mutillentzako, da atzean beste bat abereentzako.

Gaiñean, tellen ordez, tablillak edo olak josi, pagoak moztu ta aizkorarekin pitzatu ta egiñak. Tablilla oien azpiko egurrak oso puerteak, elurraren kargari eusteko.

Leiorik etzuten txabola aiek; aurrean ate bat, olakin egiña.

Lo egiteko lekuak, ezker da eskubi, lurretik piska bat altuan, kamaña izenekoak. Aurrean egur luze aundi bat, aizkorarekin legunduta. Atzeko aldean beste bat. Erdian trabesañoak josi, ta gaiñean abeto-adarrak meak. Gaiñgaiñean garoa edo lastoa bigungarri, lo egiteko.

Sua, erdi-erdian egiten genduan. Suaren parean zulo bat tellatuan, keak erteteko.

Mai ordez, zerrarekin moztu pago-gerri batzuek, metro erdi pasa altukoak. Trokoteak esaten genien guk izena. Aiekin izaten ziran guretzako maiak.

Exeritzeko ere alakoxeak: trokote-mordo bat, pago-gerriakin egindakoak.

Binaka lo egiten genduan kamañan. Manta bana izaten genduan bakoitzak, eta ondo, gaiñetikan bi manta botata.

Bakoitzak bere toki jakiña, lo egiteko eta bere erropak eta gauzak eukitzeko.

Buruaren parean edukitzen giñuzen erropak, bakoitzak berenak, abeto-adarretatikan lotu ta txintxilika.

Platera bakarra jateko, sei edo zazpi lagunentzako, erdi-erdian trokotearen gaiñean jarrita. Platera portzelanazkoa, puskatzen zailla.

Basorik bat ere ez. Zatoa, lagun bakoitzak berea. Geienak, bi litrokoa. Nik ere alaxe nuan, arunzkoan Pamplona'n erosita; duro bat pagatu nuan.

Tenedorerik ez iñork ere. Kotxarea, zatoari lotuta, bakoitzak berea. Ta kutxillo txiki bana

patrikan geienak. Kotxareakin kontu polita gertatu zitzaidan neri.

Kontratista bat bazan, len gure nagusiarekin, Zabaltza'rekin, Españi'ko Irati'n egurrak botatzen da erre kara sartzen zozio jardundakoa. Arbillaga esaten zioten izena.

Ura etorri egun baten, Zabaltza-ta bixitazera, Prantzi'ko partera. Kotxare bat ekarri zuan, bojazkoa; boja edo ezpela esaten zitzaion material ari. Kotxare ori me-mea eta piñ-piña; briñ! otsa ateratzen zuan burniak bezelaxe, ta egurra zan.

Gure txabolan zeozer jaten jardun omen zan. Baba besterik etzan an egongo. Baba ta zopa jaten jardun omen zan, da egin zaio kotxarea galdu gure txabola-atarian. Len esan bezela, zatoaren lokarriari lotuta ibiltzen zuten baso-mutillak, eta baso-nagusiak ere bai. Arek ere ala omen zuan.

Ta galdu ta gure arrantxeroa ta biak billa ibilli, atari alde artan an bear zuala, ta ez billatu.

Ni urrengo goizean lanera nijoala, —artean illun samar zegoan—, anketan oso ots piña zerbaitek atera. Makurtu nintzan da kotxare ori:

— Aiba! Au dek kotxarea!

Joan da esan diot arrantxeroari:

— Kotxarea billatu diat txabola-atarian, nik etzekiat zeñeña! Au ez dek gure kuadrillakoa!

— Oooo! Arbillaga'ren kotxarea dek ori! Ementxe galdu ta billa ibilli giñukan!

— Berriz etorri bear zuanik esan al zuan?

— Etzidan esan etorri bear zuanik!

— Orain zer egin bear diat, ba, nik: iri eman edo?

— Euk ibilli zak; eta, etortzen bada, eskatuko diat eta emango zioagu!

Nik zer egin nuan? Neure kotxare zar-par-dela larga eta ura artu. Ta dianak aren inbiritan:

— Ori dek kotxarea!

Ta ala zan. Gaur emango nuke nik ogei duroko bat olako kotxareagatik, eta bearbada egongo dira. Ala, kotxarearekin ni elegante.

Nik udazkenean, San Andresetan-edo, etxera joan bear nuala bazekiten, da egun bat edo bi lenagotik, adios! Arrapatu egin zidaten. Kapritxo izugarria nuan kotxare ura ekartzeko etxera; ain zan gauza kapritxosoa. Baiña ez nuan izan ekarterik. Naparrak arrapatuko zidaten neri kotxare ori.

Txabolaren atean sartu ta eskubiko aldean, an egoten ziran, txoko batean, jateko guztiak: ogia, babak, gatza, olio, tipula, baratxuriak, eta ardoa ere bai. Jateko gauzen ondoan, antxe zartagia, lapikoak eta katxarroak.

Lo egiteko tokia, andik urrean eukitzen zuan arrantxeroak, suari ta bere gauzai kargu egiteko.

Iñoiz, euri torpea zanean, itoki batzuk izaten ziran. Orduan, norbere parean tokatu ezker, guardasola zabaldu ta segi lotan.

Aize otza zanean, zirriztuetatik sartzen zan barrena. Baiña orduan buruak eta danak mantakin tapatu egiten giñuzen, da lo egin berriz ere.

Goiz aldera xixa egiñera erteten zuanak, arek ematen zuan egualdiaren nobedadea. Galdetzen genion ixil-ixillik:

— Zer egualdi ziozk?

Arek erantzuna:

— Erauntsia ari dik!

Ta ona baldin bazan:

— Egualdi ona ziozk!

Mendira joandako personaren batzuek, geure lo-tokia ikusi ta onela esango zuten:

— Ño! Lo-toki txarra zeukatek gizarajo auek!

Baña neri iruditzen zait, basoak duan tokirik onena txabola dala; an ere, lanerako lekua baiño, etzanda egoteko tokia ohea izango da.

Txabola artan, persekuzioa izan genduan arkakosoakin. Txakur aundi bat bagenduan txabola zaitutzeko. Txakurraren izena, Nabarro. Nai bazuan, txabolaren barruan egoten zan; nai bazuan, kanpoan. Arek txabola dana arkakosoz bete.

Iñork ezin zuan abuentatu jateko denboran eta lo egiten. Lo egiterako, prakak eta alkon-dara erantzi ta txabola atzeko arbolari joka astindu; baiña ala ere alperrik, txabolan zegoan asko-ta. Baiña galdu giñuzen arkakoso txar oiek.

Txabolako gauza danak kanpora atera giñuzen, kamañako egurrak largata. Lo egiteko mantak, arbolen adarretan txintxilika jarri eguzkitan; gero, makillakin joka, arkakoso danak bota.

Txabola dana ur irakiñarekin busti iru edo lau aldiz. Gau artan kanpoan egin genduan lo, zakuakin da toldo zar aundi batekin tapatuta.

Urrengo egunean, kamañarako garo berriak sartu giñuzen, lengo zarrak erreta, lo gozogo gozo egiteko.

Txakurrarentzako lekua ere egin genduan gero txabolatik aparte, arkakosorik ez etortzeko, ta geroztik ez genduan persekuziorik izan; pakea izan genduan.

Gure txabola-inguru guzia, arbolaz betea zegoan dana. Bidea, mandoak egiten zutena besterik ez.

Erreka txiki bat txabolaren alboan. Baso-mutillak, edateko ta arrantxua egiteko, ura gertuan bearrezkoa dute.

Mendi aietan, ur presko ederra nunai izaten zan; erreka txikietan, aundietan eta iturrietan.

Atxurrarekin joan da leku egokian egin iturria; txorroa ipintzen genduan egur-azal batekin, eta andik artu bear ainbat ura. Ganaduai ere putzu-moduko bat egin errekan eta andik edaten zuten.

Olakoxea zan gure basoko palazioa eta an egiten genduan bizi-modua.

BASO-LANA

Goizean ni nere kasa esnatzen nintzan, baiña jeikitzeke bildurak segi bertan. Bezperan izerditutako erropak, artean ondo sekatu gabe gorputzean; baiña ala ere, egotea izan ezkeru, antxe goxo-goxo manta azpian.

Alako batean, bere orduan zuzen, katapazak ots egiten zuan:

— *Arriba*, mutillak!

Katapaza zan Martin Txurru. Apelidua zuan Txurru; ez zurrutalaria zalako. Zintzoa zan ura. Orbaizeta'koa zan, berrogei ta zortzi bat urteko mutilzarra, Ameriketan ibilli ta bueltan etorritakoa.

Andik piska batera, onela esaten zuan indar aundiarekin:

— *¡A travail*, mutillak!

Arriba esatetik *a travail* esatera, amar minutu edo ordu laurden bat izaten zan. Bien bitartean oiñetakoak jantzi; muturra garbitzen ez genduan lanik izaten; ezta denborarik galtzen. Nai zuanak, batzuek txokolatea izaten genduan, beste batzuek azukre koskorra kua-

dradua, ta ogi-pusketa batekin artu ta lantegira bidean uraxe jan.

Bidean ixil-ixilik joaten giñan lantegiraiño, berriketarako gogorik batere gabe.

Lantegira allegatuta batzuetan egon egin bear puska batean, eguna zabaldu-zai.

Txoria, basoan lenena kantuan asten dana, txepetxa izaten da. Egunaren xenti-xentian asten da ura. Txori txikiena ta piñena. Batera xamar izaten giñan gu lanean eta txepetxa kantuan.

Askotan mendi-txaboletan lo egindakoa naiz ni, baiña txepetxa beti lenengo kantaria txabola-ondoetan: Txor, txor, txor, txor! Mendiko artzaiak ere ori esango dute, iñork galdetzen badie. Orregatik, txepetxa beti izan du det nik txori txiki maitea.

Txepetxaren urrena, birigarroa asten zan, Santioak arte. Santioetatik aurrera ez du orrek kantatzen.

Bitartean, alkarri onela esaten genion:

— Gaur arbola aundiak zeudek gure parean, eta oiekin lan gogorra izango diagu!

Beste batzuetan, arbola txikiagoak eta ederragoak, lekua ere ohea, ta:

— Gaur lan mendekoa zeukagu, arbol politak dituk-eta!

Olako zerbait esanda, lanean asten giñan.

Geienetan iru lagunka ibiltzen giñan. Arbola botatzen asterako, lenengo lana arbolari ipurdi-aldea garbitu edo txukundu piska bat

bueltan. Gero trontzarekin bota, batean zearrera ta besteetan bera, lekuak nola zeuden.

Trontzarekin rist-rast rist-rast bi lagun, alde bakoitzetik bana, aritzen ziran bitartean, irugarrenak beste arbola bati ipurdi-aldea txukundu; edo, bestela, len botatakoari adarrak kendu edo gerria zuritu.

Arbolari, askotan, nai dan lekura bestela bota ezin dalako, burni-ziri batzuk sartzen zaizkio ta borrharekin jo, ta aiekin botatzen da komeni dan lekura.

Arbola erortzen asten zanean, guk atzera alde egin piska bat, adarrakin edo gerriarekin miñik ez artzeko. Arbola aundi aiek ateratzen zuten otsa, bildurgarria zan. Arbola txiki asko egoten zan inguruan, eta aiek jo ta txikitu egiten zituan; ta aldameneko arbolen adarrak puskatu ere bai.

Arbolak lurra jotakoan, aizkorarekin jarduten zana adarrak mozten asten zan. Trontzarekin ziranak, berriz, gerritikan tronkoa moztutzen bere neurrietan. Adartsuena uraxe izaten da ta punta-aldea trabiesetarako izaten zan. Trabiesen neurria, 2,75 metro luzean; gero, trabiesa egindakoa, 24 zm. bear zuan zabalean, da 12 lodian. Arbol aundietatik, iru eta lau trabiesa ere ateratzen ziran.

Beti punta aldetik asten giñan mozten; gero, gerri lisua ta ederra zanean, ura tabloiak egiteko.

Gero, danon artean azalak kendu, zuri-zuri egin ta antxe laga.

Guk lotea botatakoan, beste kuadrilla bat

etortzen zan, gure aldean txikia. Oiei izena esaten zitzaien sasi-garbitzalleak eta despeñazaleak. Sasi-garbitzalleak, leku batzuetan sasia eta zikiña egoten zan eta ura garbitu bear zutelako; ta despeñazaleak, tronkoak aldapa bera bueltaka botatzen zituztelako.

Bideraiño botatzen zituzten geienetan; baiña batzuetan leku txarra ta idiakin eta mandoakin jeixten zituzten.

Gero, bidetik kableraiño eramán mandoakin eta idiakin. Urre-urrean etzan lekuri egoten, eta beste gizon bat izaten zan bi mandorekin; arek eramaten zituan pillatik kable ondora. Ta andikan Mendibe'ra jetxi.

Bitartean, guk segi ta segi arbol botatzen, adarrak kendu ta zuritu egiten.

Zazpi t'erdietan, zintzo asko an agertuko zan gure pintxea. Lapiko bat aurrean eta bestea atzean lotu makil oker bati, makilla bizkarrera jaso, ta an etortzen zan, lapikoak zintzilik zituala. Guardasol bat ere ekartzen zuan, egualdi dudakoa baldin bazan.

Batere biderik gabeko lekuetatik, malda zakarretan eta aldrebesetan pasa bear izaten zuan, baiña sekula etzitzaion erori ezer ere.

Napar euskaldun jende ori, benetako mendi-gizonak dira, txiki-txikitatik mendi zakarretan elurrarekin da beroarekin da danakin oitutzen diralako.

Prepezio aundiko pintxea eduki genduan, bai, guk Irati'n: Pedro Barberena, Orbaizeta'koa, Zabaltza'ren illoba ta bere besoetakoa gaiñera. Amabost edo amasei bat urteko mutil

motxa ta fuertea. Guk pintxearekin ez genduan iñork deskontenturik izan; mutil pizkorra, saiatua ta ona zan.

Mutil orrek txakon-une bat billatuko zuan lapikoak jartzeko, ta orduan oiua egingo zuan:

— To-tooooooool

Oiu aundia ta luzea. Guk, berriz, aditu bezin azkar, lana utzi ta jatera.

Tarterak ere ekartzen zituan, burnizko tarterak, iru edo lau. Zakuan sartu ta bizkarretik bera edo galtzarbetik bera, nolabait ekartzen zituan, eta burruntzali bat ere bai lapiko barrenean, andik babak atera ta partitzeko.

Arek burruntzalearekin partitu tartera danetara. Lenengo jaten giñuzen babak, baba beltzak olioarekin gozatuta. Tartera oiekin batera, ogia ere ekartzen zuan.

Zatoa geurekin ibiltzen genduan, ta kotxarea ere bai. Ta kotxareari eragiñaz eta zatoa aldizka jasoaz, lenengo babak jan.

Babaren saldarekin egindako zopa, babak jan da gero artzen genduan. Baba geiago jatearren izaten zan zopa gaiñean artzea; mutillak indartsuago irauteko.

Iru jan-orduetan berdin egiten genduan.

Bazkaria ere lantegira eramaten zuan pintxeak. Euria edo kazkabarra baldin bazan, goardasola zabaldu plateraren parean eta aren azpitik jaten genduan.

Bazkaldutzeko denbora bi ordu izaten genduan, jateko ta lo piska bat egiteko. Askotan egualdi txarra ta ura ere ezin egin.

Arratsaldean errezioa artzen genduan lau t'erdietan: ardoa ta ogia. Ardoa, bakoitzak zatoan zuana; ogiarekin pintxea joaten zan. Ordu erdi bat izaten genduan errezio ori jateko. Nekatuta egoten giñan ordurako, ta gustora egiten genduan deskantsu ori.

Bein gertatu zitzaigun oso pasadizo polita errezioarekin.

Gure pintxeari ogiak aitu txabolan; kableak, berriz, aberia edo zeozer izan eta ogirik ez allegatu. Orduan beste txabolara joan ogieske gure pintxea. Zabaltza'ren txabola beste ori ere, abereakin zebiltzan gizonentzat egiña. Ara joan ogi-billa ta ogi aundi bat eman zioten; aspaldian an baztertuta zeukaten ogi zar bat.

Zakuan sartu ta ekarri zuan, da esan zigun:

— Ogirik ez da, ba, gaur gure txabolara allegatu; beste txabolara joan da an ere eskas daukatela, ta len largatako zar bat eman didate.

Atera zuan zakutik ogi aundi zar ori, da lizunarekin ertendako ille aundiakin urdiñ-urdiña egiña; eta napar batek esan zion:

— Ogi ori eman al ditek?

— Bai; berak ere eskas daukatela ta besterik ez didate eman!

Napar orrek arbola botatako ipurdi aundi bat zeukan bere ondoan, eta esan zion:

— Ia: arbol-ipurdi onen gaiñean jarri zak ogi ori.

Pintxeak jarri zuan, da napar orrek aizkora

antxe zeukan bere ondoan, eta artu zuan ta jaso gora, ta aizkoraren buruarekin jo zuan ogi ori goitikan bera indarrean.

Ogi arek egin zuan salto bat eta an asi zan bueltaka. Leku aldapa zan eta artan joan zan gure bistan beko errekaraiño. Bueltaka ta boteka zijoala, etzan batere puskatu; oso-osorik allegatu zan beko ondoraiño.

Baiña iñor ere etzan joan billa. Kristauak jateko modukoa etzala ta larga genduan. Illuntze ura etzan oso motxa izan.

Errezioa artu ondoren, segi lanean berriz ere, illundu arte eta izarrak argi egiten asi arte. Orduan katapazak, danok entzuteko moduan, onela ots egiten zuan:

— ¡Alto, mutillak!

Bai azkar entzun ere. Aizkorak eta trontzak, burni-ziriak eta borra bertan utzi, iñork lapurtzeko bildurrik gabe, eta txabolara abiatu.

Bidean ixil-ixilik danok. Batenbatek ankarakin arrastara egiten bazuan, arraioa edo olakoren bat esan, eta orixe bakarrik. Illetargia ez baldin bazan, txabolara beti illunpetan allegatu.

Katapazak liburu aundi bat zabaltzen zuan orduan, da irukote bakoitzari onela galdetzen zion:

— Gaur zenbat?

Batzuek esango zioten:

— Gaur amar!

Beste batzuek, zortzi igual, edo amabi igual. Ta katapazak aiek apuntatu. Urrena galdetzen zuan:

— Ta *raíces*, zenbat?

Raíces oiek izaten ziran, arbol aundi aiek erortzerakoan adarrakin aldameneko beste txikiagoko arbolak jo ta ipurditik lur ta guzi ateratakoak.

Batzuek esango zioten:

— Guk bil

Ta beste batzuek:

— Guk bat ere ez!

Ta aiek ere apuntatu egiten zituan.

Ura guardakgatik egiten zuan, mendi-guardak Mendibe'tik etortzen ziran-da basoa ikustera.

Bizi modu ortan jarraituta, illabeteko ogei ta amar durotik ogei ta amairu bitartean irabazten genduan saria.

Ondoren, litro bana ardo zatoan artu. Bakoitzari neurri uraxe ematen ziguten egunean. Geiago nai zuanak, berak pagatu bear, illaren bukaeran deskuentoa eginda.

Urrena apaldu ta kamañan etzan. Logurea aundia eukitzen genduan, eta dantzarako konturik etzuan iñork aitzaten. Urrengo goizean *arriba* aditu arte, lo antxe. Laneko orduak luze joaten ziran, baiña lo egitekoak bai motxak.

PEDELUC

Mendibe'n da inguruko errietan ez omen zuten sinisten Prantzi'ko Irati'tik ara egurrik aterako zanik, oso urruti zegoan-da.

An zortzi aldiz jardun omen zuten zortzi konpañik, baiña egurrik ez eraman. Modu askotako lanak egin zituzten: tren-bideak eta dratore-bidea ere bai; indar-etxea ere bai, asi ziran egiten goiko erreka ondoan, baiña egin ez. *Guerra europea* sortu zan, da danak larga bear.

Gero, *Compañía Pedeluc* etorri zan. Nagusiari Pedeluc esaten zitzaion. Konpañi arek bajatu zuan aurrenengo egurra Prantzi'ko Irati'tik Mendibe'ra kablean. Ni 1927'an joan nintzan, da piska bat lenago asiak izango ziran, seguru ez dakit baiña. Orduan, Mendibe'n da inguruko errietan jai-aldi aundiak egin zituzten.

Kable arek bi aldetara karga ibiltzen zuan: bera tronkoak eta gora mendiko langilleentzako jana ta edana; abere danentzako jana ere bai.

Italianoak ziran kable artan lana egiten

zutenak, eta tratao egiña zuten egunero eun metro kubiko bajatzeko Mendibe'ko zerrara. Lan ori udaran bakarrik egiten zan. Neguan kablea geratu egiten zuten.

Lana iñork etzuan egiten mendi artan neguan, elur aundiak egiten zituan-da. Orregatik, udaran tronko asko bajatu bear zan. Pillo aundia sobratu bear, Mendibe'ko zerran neguan geratu gabe lana egiteko.

Pedeluc konpañiak an etzuan suerte onik izan. Zerra-pabrika berria egin zuan Mendi-be'n Irati'ko tronkoak zerratzeko, ta egin da laister, gu ara joan baiño len, su artu ta erre egin omen zan.

Pedeluc ori, ogei ta amairu urteko gizon gazte ederra ta kuriooa zan. Buelta batzuek ere egiten zituan udaran, egualdi ona zanean, mendiko langilleak ikustera.

Frantzesak zan, da euskeraz etzekian. Baiña gure nagusi Zabaltza'rekin da katapazarekin kastillanoz oso ederki egiten zuan. Guk, berriz, erdera gutxi jakin ta gurekin ezin, ba, itzegin.

Ura an izaten zan egunean, txabolako langille danentzat ardoa doble ematen zuten. Arek agindu ta pintxeak eman guri illuntzean, Pedeluc'en ardoa zala esanda. Pozak egoten giñan gu ura etortzeko.

Egun baten, lanean ari giñala, nagusiak, Zabaltza'k, oiua bat egin zigun:

— Mutillak, alto! Etorri bera txabolara danak!

Guk alkarri esan genion:

— Zer pasa ote da ordua baiño len alto emateko? Zeozer badek!

Kezketan jetxi giñan. Txabolara iritxi giñanean, Zabaltza'k esan zigun:

— Pedeluc nagusia il da! Azidente aundi bat izan du. Kableko bolanteak arrapatu ta antxe dana txikitu du. Ari lurra eman bitartean, ez da kolperik lanean egin bear!

Ta ez genduan egin ere. Antxe triste-triste urrengo egunean oso-osorik jai, eta urrengoaren eguardi-arterakoa ere bai. Arratsaldean ixil-ixilik asi giñan berriz ere lanean.

Andrea ta bi edo iru ume txiki larga omen zituan Pedeluc arek. Konpañi ura triste geratu zan betiko.

Gero etorri zan Pedeluc il zanaren anai zarragoa. Arek jarraitu ziola uste det lanari urte batzuetan.

Pedeluc il da andik bi urtera, kableko injenieroä il zan, posteen gaiñetik erorita. Nik andik alde eginda izan zan ori.

Italianoa zan, da ikaragarri gizon polita: rubioa ta atrebitu aundiegia leku txarretan ibiltzeko. Bota perrazko batzuek jantzi ta aide, posteen gaiñean an ibiltzen zan. Ikaragarri bizkorra zan.

Ez-bearrak geiago ere izan ziran: beste eriotz bat, izterra moztutakoa, besoa moztutakoa ta abar.

Mendibe'ko zerrak eta mendiko lantegi aiek zer egin duten ez dakit, geroztikako berri aundirik ez det izan-da. Onezkero bukatuak uste det nik egongo dirala ango lanak.

IGANDEA

Gu, iganderako beti pozak egoten giñan, bazkaldu eta siesta-puska bat egin eta geren eginkizun batzuek egiteko: bizarra ta illea moztu, erropak garbitu ta konpondu, ta abar.

Sapatua allegatutakoan, batenbatek beti esango zuan:

— Biar jaia dek, mutillak!

Orduan beste batek esango zuan:

— Bai, ta ni amorraiak arrapatzera errekarra joango nauk!

Ta besteren batzuek:

— Gu perretxikotara joango gaituk!

Gero, illuna baiño piska bat lenago, txabolara inguratu danok.

Igande-goizean, lana egiten genduan eguar-dira arte. Orduan txabolara bildu ta bazkaldu beti bezela: baba beltza ta sopa.

Bazkalondoan siestara gustora joaten giñan, beti nekatuak eta lo-palta ere izaten genduan-da.

Aste-egunetan, bazkaldu mendian, askotan

aparte samar, ordu erdi edo ogei minutuko bidea txabolatik. Bazkalondoan, egualdi txarra baldin bazan, lurrean etzan eta siesta egiteko girorik ez. Alakoetan, arbola baten ondoan piska bat okertu ta antxe egon, kapatazak otsegin arte.

Jai-egunetan, berriz, guk nai genduan aiña aundiko siesta ta txabola barruan. Ordu pare bat gutxienez, geiago ere bai, ta gusto aundia-rekin.

Gero, siesta ondorenean, jaiki, ta batzuek erropak garbitu ta konpondu egiten, beste batzuek bizarra kentzen, beste batzuek illea mozten.

Illea moztu, nik egiten nien askori, ia danai, makinak baneuzkan-da. Igual izango zan baldar samar, baiña danak gustora gelditzen ziran.

Dirurik ez nien kobratu nai izaten, da litro erdi bana ardo ematen zidaten saria bakoitzak; eta jaiean zatoa dana bete kabitu eziñik, eta aste guzirako ere sobre ardoa neretzako.

Amorraiak, berriz, batzuek eskuakin eta beste batzuek sareakin arrapatzen giñuzen. Sarea neuk eramanean nuan ara, ta arekin amorrai asko arrapatzen genduan. Geure gomazko abarkakin sartu errekarara, ta errez arrapatu. Makilla ere izaten genduan, amorraiak zirikatzeko.

Amorrai aundi ederrak eta piñak ziran, libra erdi ingurukoak: txikiagoak ere bai ta aundiagoak ere bai.

Danak, arrapatu alean, ziri batean sartu, ta illuna baiño lenago txabolara.

Txabolan tripak atera ta gatza eman, zartagian olioarekin eta tipula piska bat edo baratxuri batzuekin jarri, antxe gorri-gorri erre ta gero jan. Babak baiño gustorago bai...

Perretxikoa, ia udara guztian egoten zan an; baiña, egualdia bustia izan ezkeru, ez-giñan ateratzen. Orbela me samar zegoan lekuetan izáten zan geiena.

An perretxikoa, gibel-urdiña izaten zan asko; ziza gorria ere bai: ontoak ere bai; ta beste klase bat ere bai, urreiz-perretxikoa esaten zaiona, urreiz-azalaren kolorekoa, baiña oiei ere gibel-urdiña esaten diote batzuek.

Txarrak ere bai asko. Baiña geuk, seguruak apartatu ta aiek jaten giñuzen. Perretxiko-leku onak ziran an, ta errez osatzen genduan merienda egiteko aiña.

Perretxiko aiek txabolara eraman, tipula ondo samar eman ta gatza ere eman, erre ederki zartagian, gorri-gorri egin da jan. Aiek ere gustorago, babak baiño...

Amorraitara edo perretxikotara joaten ez giñanean, tomate potekoa edo piper potekoa bakallauakin meriendatzen genduan.

Gero, kordionista bat bagenduan, napar bat, Alejandro Iriarte, Sumbilla'koa, mutil gazte bat, eta kordionarekin arek jo Naparroa'ko jotak eta dantzan egin dantzariak.

Beste batzuek bertso zarrak kantatu. Iru edo lau lagun baziran, naparrak, kantatzen zekitenak. Onako bertso auek askotan kantatzen zituzten napar oiek igande-illuntzetan:

Dozen erdi bat bertso
dudarikan gabe
dama gazte batentzat
komeni dirade;
Irun'en serbitzaille
zeguan mirabe,
baiña Naparrua'ko
alaba zerade.

Pakete bat bazuben
nagusiyagandik,
gurasuen etxera
eraman du andik;
amak esaten diyo:
"Aldein zan emendik,
bestela jipoiren bat
emango diñat nik!"

Irun'dik Donosti'ra,
gero Donjuana,
barbero edo mediku
adituengana.

Ikusi zubenian:
"Zer daukazu, dama?"
"Operaziyo on bat
ein biar dit, jauna!"

Au da mediku jaunak
esandako itza:

"Operaziyo billa
zertako zabilta?
Barrengua galtzeko
etsaiak dabilta,
laister sendatuko da
zuk daukazun gaitza".

Dama orren sabeletik
datorren prutua,
apaiz egin liteken
ez da ziertua;
paketetxo bat bazun
Irun'en artua,
berez naparra baiña
Prantzia'n partua.

Egun batez dama ori
Irun'dik galdu zen,
semia egin omen du
San Juan de Luz'en;
azia bota eta
prutua eldu zen,
ori konserbatzera
saiatu gaitezen.

Bertso sorta onek beste bi ere bazituan, baiña
ez naiz ondo gogoratzen.

An Irati'n gurekin ziran naparrak, asko
ziran Prantzi'tik Españi'ra kontrabandoan ibi-
llitakoak. Gabez ibilli; kontrabando-klase as-
ko. Egunez lo egin, da illuntzean tabernara.

Illundu eta gaizki ibiltzen omen ziran asko-
tan. Karabineroen bildurra ere aundia. Ziga-
rriorik pizterik ere ez.

Esaten zuten, aien kuadrillako batek, ziga-
rroa piztea pentsatu ta piztu egin zuala; ta,
piztu zuan momentuan, dale! tiroa piska bat
apartetik, ta jo ta seko il bertan beren lagun
ori.

Orregatik, bildur aundia esaten zuten izaten
zutela kontrabandoan ibiltzeko. Dirua ondo
atera bai, baiña gaizki ibilli-ta.

Beren lagun bat bazutela esaten zuten kontrabandora gabeen joan ta urrengo goizean karabineroak arrapatu; ta gizajo samarra mutil ura. Ari atera ziotela nun zeuzkaten kontrabando danak gordeta, eta karabineroak joan da danak arrapatu zituztela. Eta mutil arek Prantzi'ra iges egin zuala orduan, bestela errian ilko zutela-ta.

Olako gertaerak geiago ere esaten zituzten aiek, baiña urte asko dira ta ez naiz orain oroitzen.

Aparitarako babak antxe egoten ziran pronto, baiña gutxi apaltzen genduan jaietan; meriendarekin ta baba-saldarekin naikoa izaten genduan.

Lotara ere, garaiz samar joaten giñan, urrengo goizean eguna zabaltzerako arbolaren ondora joan bear zan-da...

PEDRO LARRALDE'REN ERIOTZA

Irati mendi orretan mutil bat il zitzaigun suerte txarrez. Naparroa'ko Sunbilla'koa zan; ogei ta bost urtekoa. Izena, Pedro; apelidoa, Larralde.

An ari giñan lanean, pagoak bota ta moztu, ta adarrak kendu ta zuritzen. Sunbilla'ko il zitzaigun mutilla ere, antxe nere gertuan.

Goitik libratu zan adar zar igartutako bat eta arek jo zuan buruan, da seko illa geratu zan.

Nik ez nuan ikusi. Besteak bezelaxe, pagoak bota ta zuritzen ari nintzan. Alako baten deadar tristeak entzun giñuzen; berarekin ari ziran bi lagunek egin zituzten:

— Etorri aguro! Etorri aguro! Perikok golpe aundia artu dik!

Segiduan juntatu giñan danok aren ondora. An zegoan illa ordurako. Buruaren erdi-erdian zulo aundi bat zuan. Munaren pare-parean jo ta askatu dana. Geiago etzuan arnasarik artu. Arpegian etzuan ezer ere. Odolpuska batek erten zion, baiña asko-asko ere ez.

Orduan danok lanari utzi, ildakoa artu

aidean da txabolara eraman genduan, arratsaldeko zazpirak inguruan.

Txabola-atarian egin genduan angailla: bi pago-landara moztu, ta bi zaku bi eskiñetan zulatu; ta an sartu bi egur aiek, bi muturretan bi trabesaño josita. Antxe erdian ipiñi genduan ildakoa.

Mendibe'ra bajatu bear zan, Prantzi'ra. Bost orduan jeixten giñan gu bide-ziorrez, baiña orduan sei bat pasa guk arekin. Nagusia atera zan aurrena. Zabaltza, zaldi gaiñean.

Guretzat utzi zigun enkargu bat: Mendibe'ra allegatutakoan, bidean il zala esateko; pake-agatik obe zala gezurra esatea; bestela juezak eta danak goraiño joan bear zutela ta endredo izugarria zegoala.

Gure txabolan banatu giñan amabi mutil, alturan berdin samarrak, bizkarrean ondo eramateko; bestela, altura desberdiñekoak oso gaizki joan bear bidean. Beste bi mutil, parolakin argi egiteko, aurretik eta atzetik.

Illuntzean asi zuanean, atera giñan txabolatikan, ildakoa angaillan bizkarrean artuta.

Bide-erdi inguruan, ermita txiki bat zegoan mendi-gaiñean, Salbatore izena, bere tellatu pika-pikarekin. Aren ondoan pasa bear genduan.

Allegatu giñan ermita orren ondora. Aretxen atarian eratxi genduan bizkarretik lurre-ra; jartzeko koxka bat edo beste bazegoan ta antxe. Piska baten atsedean egin genduan. Ondoren, berriz ere artu bizkarrean.

Allegatu giñan Mendibe'ra, ordu biak al-

dean, Ezponda izeneko tabernara. Nagusia an zegoan medikuarekin.

Medikuak galdetu zigun:

— Noiz il da au?

— Amabiak aldean.

‘Gezurra esan genduan pakeagatik.

Ildakoa an utzi genduan txoko baten, mai baten gainean.

Segiduan eman zizkiguten janari ederrak eta edariak. Jan da edan egin genduanean, lo egitera joan giñan, belar onduarekin beteta zegoan legorpe zar batera. An egin genduan lo piska bat. Gosaldu genduan lengo tabernan, Ezponda’renean. Jan-ordu danak an egin giñuzen.

Enterratzeko zuloa egin bearra zegoan. Enterradorea bertan izango zala uste genduan, baiña erri artan etzegoan. Ildakoaren auzokoak edo bere lagunak egitea usatzen zala esan ziguten. Geuk egitera konformatu giñan, da bere erriko bi gaztek, Sunbilla’koak, egin zuten zuloa.

Kája eder bat ekarri zuan nagusiak, barnizarekin brilloakin ipiñitakoa.

Antxe sartu genduan, berak mendian zeukan jantziarekin. Abarkak kendu genizkan anketatik eta galtzerdi berriak jantzi, ta enterratzeko pronto jarri genduan.

Kanposantura berreun metro eskas zeuden. Goizean-goiz asi ziran ango emakumeak bidea apaintzen. Belar piñak eta lora usai gozokoak lurrean zabaldu, Korpus egunean bezela. Beren

oitura ala omen zan. Kanposantua elizaren bueltan zegoan; eleiza, erdian.

Illetarako ordua iritxi zan. Erri artako jendea, asko etorri zan. Artu genduan aidean ildakoa. Ezponda'ren etxetikan eleiz-atarira allegatu giñan. Orduan asi zan illeta, amar t'erdietatik amaikak bitartean.

Illetak bukatu ziranean, sartu genduan lurrean; eleiz atariko kantoia baiño iru edo lau metro berago, eguzkia ateratzen dan aldetik. Orain ere, metro askoren okerrik gabe, apartatuko nuan nun sartu genduan.

Orrela bukatu ziran gure lagun Pedroren eriotzako egin bearrak, eta aren anima Jaunak zeruan euki dezala.

Gero, bazkaldu ta apaldu Ezponda'ren etxean egin giñuzen. Lo egitera, lengo tokira; belarra zegoan legorpe artara.

Goizean-goiz atera giñan andik. Abitu giñan lengo lantegira ixil-ixilik.

Triste samar allegatu giñan Salbatoreko ermita ondora. Ildakoa antxe euki genduan eratxita. Ari ertendako odol-mordoa antxe zegoan. Ura ikusita ez giñan asko alimatu.

Allegatu giñan txabolara. Gure lagunak antxe zeuden ixil-ixilik; etzuten lan egin gu joan arte aiek. Bazkaldu genduan piska bat eta joan giñan lengo lantegira.

Antxe zegoan gure laguna il zuan pago aundi ura, lurrera botata. Guk ez genion ikutu geiago. Antxe geratu zan lurrean usteltzen.

Onenbesterekin bukatzen da ango istori tristea.

SALBATORE'KO ERMITA

Korpus-egun baten, meza entzutera Salvatore'ko ermitara joan giñan.

Basora joan ezkeru, meza bat ere entzun gabe geunden; andik lenengo elizaraiño, Mendiberra, lau orduko pasako bidea baitzan. Nola-ala jakin genduan an meza zala egun artan. Zeiñek jakin zuan ez dakit ori. Danok gustora joan giñan, eta etorri ere bai. Meza ura izan genduan udara artan aurrena ta azkena.

Gure txabolatik ara, ordu t'erdi pasa bazan; ia bi ordu. Lenengo, basotik atera ta zerrera joan, da gero bera jetxi. Egualdi bikaiña tokatu zitzaigun; eguzki ederra.

Artzai ta artalde asko ta oso mendi-gain alaia ta polita billatu genduan Salvatore'ko ermita-ingurua. Larre ona zegoan an. Izarraitz mendian bezelako arkaitz zakarrik, bertan ez; andik goraxeago bai.

Ermita, dana egurrezkoa zan. Orain ez dakit nola egongo dan. Alboan paretarik ez; piztatutako egurrak tente ipiñi eta josita. Gaiñeko tellatua, txorrotx-txorrotxa, egurrak piztatu ta ipiñita. Ermitaren bueltan galbarioak, egurrezko kurutzeak.

Prantzes euskaldun jendea asko zan an, gu iritxi giñanerako: batzuek kanpoan eliz-buel-tan galbarioak egiten, eta besteak barruan beren otoitzak errezatzen.

Sifñale genduan guk, ez giñala angoak: batzuek bruxarekin eta besteak txaketa pa-nazkoakin; batzuek abarkakin eta beste ba-tzuek bota aundi perrazkoakin. Baso-mutil itxura aundia danok ere. Neskatxa gazte ederrak ere baziran an asko, baiña gurekin etziran gustatzen. Gu jantzi aldrebesakin ikus-ten giñuzten-da.

Apaiza mandoan etorrita zegoan, da, ordua allegatu zanean, meza ematen asi zan. Gu sartu giñan barrena ta beste danak ere bai. Danok zut-zutik entzun genduan meza. Sermoiarekin eta kantuakin ez naiz konturatzen; ez dakit, ba, izango ziran.

Andik atera ta bazkaltzera. Prantzes-euskal-dunak, batzuek an bazkaldu zuten eta besteak joan egin ziran.

Guk, bazkaria enkargatua gendukan Men-dibe'ko tabernariari, Ezponda'ri. Jateko en-kargatu genduan dana egazti utsa, egazti errea; ta ardoa ta ogia. Ezponda zarrak berak, etxeko nagusiak, ekarri zuan bazkaria, mandoan ar-tuta.

Zelaian jarri gu ta kazuela aundi baten arek olloak ipiñi ta puskatu. Lau puska egiten zuan ollo bakoitza, ta guk jan. Gure bazkaria olaxe egin genduan. Azkenean, danok naikoa jan eta artean ari sobratu zitzaizkan bi edo iru.

Bakoitzak ollo bana ez genduan jan; batzuek bai eta besteak ez.

Prantzes ardoa ekarri zuan noski; ardo makatxa eta indar gutxikoa. Mozkortzeko, asko edan bear zan andik. Lenengo, zatoa bete eta andikan edan.

Guk botatako arbolak bajatzeko kablea, ermita-atarian bertan pasatzen zan, eta estazioa zeukan andik gertuan. An goitik bera zijoan tronkoa, bere kasa utzi ezkerro, geratu egiten zan. Piska bat bultza ta berealaxe artzen zuan beko kablea, zerreriraiño joateko.

Betik zetozen jatekoak ere, guretzako eta abereentzako, berdin: piska bat bultza ta gorako kablea artzen zuan.

Iru edo lau metroan bultza bear izaten zan, indar aundirik gabe. Mutil koskor batek egin zezakean lan ori; baiña gizon bat egoten zan artarako, kargari laguntzeko.

Sukalde ta txabola ta dana bertan zeukan, lo ta jan da dana egiteko. Artzaiak kontuak esatera joaten bazitzaizkan, piska bat itzegingo zuan; bestela, bakar-bakarrik egun guztian.

Paraje otza zan ura, ta bizarrik etzuan kentzen, eta illerik moztu ere ez, otzaren bildurratik.

Tximista ta trumoi-lekua ere bai, ta an egon egin bear zuan gizonak. Mendi-puntetan aurrrera zear kableak eta posteak, eta bildurrak egoten zan ura tximixtakin. Ixkiña baten tximixtak ikutu ezkerro, antxe zuan bere txabolan, indar-argia bezela da ori-ta.

Arekin piska bat itzegin da illuntzean osterageren txabolara. Bide guztian ojuka ta irrintzika etorri giñan.

AMA BIRJIÑA EGUNA

Len esan bezala, jai-egunetan beti lana egiten genduan amabiak arte. Pentsatu genduan Ama Birjiña eguna, Agoztuaren amabosta, jai aundia zala eta lana gutxi egin bear genduala; ardi bat jan bear genduala, txabolara ekarrita.

Nagusiak ontzat artu zuan, da enkargatu genduan ardi bat Irati'ko goarda-etxean, narrututa, aragia bakarrik, guretzako. Ama Birjiña goizean joateko billa.

Goarda-etxe ori Españi'ko Irati'n dago; gure txabolatik iru ordu t'erdiko bide pasa zegoan.

Pintxea zein gendukan len ere esan det: mutil gazte bizkorra, Naparroa'ko Orbaizeta'koa, Pedro Barberena, Zabaltza'ren iloba. Amasei urte zituan orduan. Mutil sendo motz, txiki gogorra.

Anaiak bi ere bazituan gure kuadrillan, bera baiño zarragoak: Tomas eta Fruktuoso. Irurak euskaldun garbiak. Piska bat doñu diferentea, eta itzak ere diferenteak gauza batzuenak; baiña alkarrekin ondo entenitzen genduan

danok. Erderaz ere bazekiten; nai bazan euskeraz eta nai bazan erderaz egiten zuten aiek.

Mutil arek joan bear zuan ardia ekartzera Ama Birjiña goizean. Esaten zuan amarretarako ekarriko zuala ardia, bizkarrean artuta. Baita ekarri ere.

Goiz aldera txabolatik noiz atera zan, ez giñan konturatu. Ixil-ixilik erten zuan. Goizean esnatu ta bat edo batek esan zuan:

— Pintxea joan dek! Sentitu al degu iñork ura txabolatik erteten?

Danok esan genduan:

— Nik ez diat sentitu ura erteten!

Egun artan, ura ardiarekin etorri arte egin bear genduan lana. Joan giñan lantegira beti bezela. Esan genduan lanean asterako:

— Pintxea zeñek zaituko dik? An beko erreka ondoko bide xior artan pasa bear dik!

Andik bistan gendukan pintxeak pasa bear zuan bide xiorra. Ogei edo ogei ta amar metroan bakarrik ikusten zan; besterik ez. Pago-ostroak tapatzen zuten dana.

Bi edo iruk esan zuten:

— Alde artako eskiñatik ari gaituk gu lanean, eta guk zaituko diagu ura!

Baita zaitu ere aiek. Ari giñan lanean ta amarrak baiño piska bat lenago, eskiñatik ari ziran aiek, oiua aundi bat egin zuten:

— Euuuup, mutillak!!! Pasa dek pintxea bide xiorrean, ardia bizkarrean duala!

Orduan utzi genion lanari ta danok laisterka

txabolara. Ta an etorri zitzaigun pintxea, ardia bizkarrean zuala, oker-oker eginda. Ari bat legorrik etzuan ekarri gorputzeko erropetan, izerdiarekin dana bustita.

Ogei ta lau kilo pasa bazan ardia, ta iru ordu t'erdiko bidean ekarri zuan arek bizkarrean. Mutil gogorra zan oso.

Guk kutxilloak zorroztu danok lima zarrakin. Ardia jarri genduan txabolako atetik bera, kakotik isikita. Danok asi giñan kutxilloakin kendu ta kendu pusketa.

Sei laguneko kuadrillak izaten giñan, mai batean jateko. Mai bateko tamaña ebaki ba-koitzak eta zartagira bota; erre arrantxeroak eta guk bai aguro jan.

Egun artan ez genduan babarik eta zoparik jan; ardikia bakarrik. Ta ardoa edan.

Kapea urtean bi edo iru aldiz artzen genduan, da egun artan ere bai.

Kape-alea izaten genduan, eta arbola botatako ipurdiaren gañean periodiko-paper bat ipiñi; botilla uts bat artu, ta arekin bueltakabuektaka kape-alea igo ederki. Errez egiten da ori; ale iger samarra euki bear, sutan piska bat zartagian berotua.

Gero egiten genduan arekin kape espresa, kape uts-utsa, kape fuertea, lapiko aundi baten.

Irakiten zuanean, surtarik artu su-egur andi bat edo bi gorri-gorriak eta aiek sartu kapean. Bol-bol-bol irakiten egoten ziran aiek, egurrak eta kapeak, eta gero atera.

Aren autsak-eta zeratzeko, galtzerdi zarren batzuek izango zituan norbaitek, eta kapea an pasatu.

Katillu bat edo bi izaten ziran txabola guztian, da txandaka, batek artzen zuanean besteari eman. Katillu batekin edo birekin dana serbitu. Kapea aitu arte, segi artzen.

Arratsaldean, ardikiz ondo beteta, lo lasai siesta ederra. Siestatik jeikita, bizarra kendu. Arbola bati puntapaxa sartu ta ixpillua an ipiñi zintzilikan. Amabost egunekoa baiño aundiago askotan bizarra, ta batzuek labanarekin kendu, eta besteak atxurra-moduko tresna txiki orrekin.

Nik neronek labanarekin kentzen nuan. Duro batean Deba'n eresia nuan; ta Irati mendian ibilli ta gero ere etxera ekarri, ta oraindik ere etxean daukat.

Arratsalderako piska bat sobratu zan ardia, eta ura jan genduan illuntze aldera, len bezelaxe kutxilloakin kenduta. Etzan ezurretan aragi asko gelditu. Ezurrak eta zain batzuek geratu.

Pentsatu genduan ezur aien gozoa aprobeztatzea, urrengo egunean gosaltzen, patata-mordo batekin. Patatarik geuk ez gendukan. Italianoek txabolatik ekarri giñuzen.

Urrengo goizean, ezur aiek danak txikitu aizkorarekin da sartu lapiko aundi baten; patatak ere bai aiekin batera. Danak egosi ta antxe patatak eta zopa ederrak.

Juntatu giñan gosaltzera; bai jan ere patatak eta zopak; ezurrak ondo txupatu ere bai gustora; baiña etzigun on aundirik egin.

Danok, prakak erantzi ta kaka egin da atzera jantzi, iru edo lau ordu orrela pasa giñuzen. Barruak garbitu ta atzeak zikinduta, danok jarri giñan ardi zarra bezela. Erreka gertuan zegoan da izan genduan aren bearra atzeak garbitzeko; bestela gaizki ibilli bearra genduan. Beti zopa ta babakin oituta geunden, da jan berri aiek kalterako izan.

Orrela izandu zan gure ardi-jatearen pesta, Ama Birjiña egunean.

LUZIO TANKO

Mutil bat bagenduan puzker aundiak egiten zituana. Arek, bost litro ardo kandelaren sua itzali baietz puzkerraren aizearekin, iru puzkerretatik baten, ordu erdiko denboran, apustu egin zuan.

Erantzi zituan prakak, eta kandela piztu ta jarri zuan ipurdiko zuloaren ondoan. Egin zion puzker aundi bat. Etzuan itzali.

Egon zan denbora-puska baten. Egin zuan bigarren puzkerra. Etzuan itzali.

Berriz ere egon zan, irugarren puzkerra egiteko, ipurdia luzatuta. Egin zuan puzkerra. Puzkerrarekin batera, kaka-zipriztiñak ere bai. Orduan itzali kandela.

Kandela-murra kakaz zikindu zuan da apustua galdu, kakarekin itzali zualako.

Mutil ori Naparroa'ko Erribera'koa zan; Luzio Tanko izena. Beste txiste polita bazuan mutil onek.

Txabolan gendukan kastigua, iñor jaten ari zala batenbatek puzkerra egiten bazuan, litro bat ardo atera bear, danak edateko.

Askotan, alkarren ondoan jaten, puzkerra aditu ta danak:

— Ez diat nik egin! Ez diat nik egin!

Ta garbitasunik ezin atera. Baiña garbi aditu ezker, batenbat jaten ari zala, zeñek puzkerra egin zuan, litro ardoa atera bear.

Ori, gaiñera, nagusiak berak ipiñitako ordena genduan. Lenengotik, litro ardoa berak atera:

—*Ahí va!* Baiña berriz puzkerrik iñori aditzen badiozute jatorduan, atera aren izenean litro ardoa ta apuntatuko du arrantxeroak aren izenean.

Ori, Luzio Tanko ori, gero samar etorri zan; udara azken aldera. Goseak etorri zan. Igarigarra zan; sanoa mutilla, ona.

Besteak jan da gero ere, askotan, sutan ziortu ogi pusqueta aundi bat, gorri-gorri tostatu, gero ardoa bota ta ura jaten aritzen zan.

Apalondo baten, bere ogi-pusqueta ori jaten ari zala, etorri zaio puzkerra egiteko gogoa. Ordurako, gu geienak kamañan sartuta geunden. Nere ondo-ondoan zegoan, kamañaren barreneko tronko aundiaren gañean jarrita. Gaiñera, neu nintzalako uste det arek atera bear izan zuala; baiña besteak ere parre ederrak egin zituzten orduan.

Etorri zaio puzkerra egiteko gogoa. Beitu alde batera, beitu bestera, iñor jaten ari ote zan ta iñor ez jaten. Egiten du ikaragarritzko puzkerra: rrraaauuu!!!

Orduan danok:

— I, i! Iñor jaten ari al uan?

— Ez uan!

— Bai, bauan!

— Zein!

— Beoi! Beoi ari uan jaten!

Orduan arrantxeroari:

— Ekarri derrepente litro ardoa!

— Bai! Bera jaten ari uan! Etziok emen iñor izendaturik, jaten ari gerala egin ezkerol!

Ta arrantxeroak segituan joan da ekarri zuan litro ardo ori, ta guk danok edan.

Ori bazan gero txiste polita: bera jaten ari zan ta berak beitu alde danetara; berak egin puzkerra ta gero berak multa pagatu bear... Basoan gertatzen dira olakoak.

Len esan bezela, Luzio Tanko ori Erribera-ko koa zan, napar erdalduna. Ona mutilla. Guk arekin erderaz batere ez ikasi, obe bai, baiña entenitzen genduan. Ta arek gurekin euskerarik etzuan ikasten.

Orbaizeta'ko ta orko jendea ere, dezente zegoan, baiña bi aldetara berdin egiten aiek. Aiek bat euskeraz ta bestèa erderaz, askotan jarduten ziran. Batek euskeraz zer edo zer galdetu, besteak, erderaz erantzun, da ondo entenitzen ziran.

Garai artan, Orbaizeta aldean euskera bazan; Burgete'n ere bai. Burgete'ko erriko ostatuan ere, danak euskaldunak ango zarrak; Orbaizeta'n ere bai. Euskaldun ederrak gañera; napar euskera ederki egiten zuten.

Bai, erri oietan euskera bazan. Orain galdu samarra edo ola aditzen det. Gazteak-eta, ez dute egingo batere...

EGUALDIA

Nere denboran pasa ditudan otzikan aundienak, antxe pasa nituan, Irati'n; berorik aundienak ere bai. Egoaize piska batekin asko berotzen zuan, da gaizki ibiltzen giñan.

Santu guztienetatik aurrera, elurra ta izotza egiten zituan sarri.

Gure arrantxeroari kantineko ura ere jeltzen zitzaion batzuetan, txabola barruan sutatik aparte larga ezkeru; eta guk antxe lo egiten genduan, ondo tapatuta.

Mandoakin da idiakin tronkoak kablera juntatzen jarduten ziran gure lagunak, izotz aundia egiten zuanean, abereak irixtatu egiten eta tente ezin ibilli, ta bideak pikatzen jarduten ziran goizean, abereakin lana egiteko, atxurrakin da pikatxoiakin.

An egualdiak ganbiatzen zituan azkar. Goizetik egualdi ona, ta arratsaldean trumoa jo ta elur-zaparrada aundia igual.

An batzuetan udararen erdian igual egiten zuan ori, baiña azkar kentzen zuan udarako elurra.

Gure nagusi Zabaltza'k esaten zuan, Espaiñi'ko Irati'n ikusitakoa: zazpi illabete pasa zituala lanean udara baten arbolak botatzen, eta zazpi illabete danetan elurrak zuritu zituala txabola-atariak, mendiak Pikatua izena zeukan lekuan.

Gu Prantzi'ko Irati'n jardun giñan, mugaz andik. Prantzi'ko ta Espaiñi'ko Irati-mendi aiek, danak pegante daude. Gaillurrak oso altuak dituzte biak.

Mendi aietan tximistak indar aundia zuan. Arbola luzeak dira an, da aietatik asko puskatzen zituan.

Guk izan genduan susto bat aundia. Txabolana apaltzen ari giñala, tximista eta trumoiak, biak aundiak. Tximista aren argiarekin bistarik gabe egon giñan momentu baten. Trumoi aren dartateko arek uste genduan txabola eraman zuala, baiña etzitziaion ezer ere gertatu.

Urrengo goizean, jaiki ta abiatu giñan lantegira, ta, txabolatik bastante gertuan, abeto-arbola aundi bat, bi adarrekoa, an zegoan dana puskatuta; gu sustatu ginduan tximista arek egindako lana. Abeto aren adar aundi bat puskatu ta aldatu zuan gutxienez ogei ta amar metroan. Bazuan arek indarra.

Beste arratsalde baten, gure pintxeai — orduan bi ziran— gertatu zitzaien gogoan artzeko modukoa.

Arratsaldeko errazioa ekarri ziguten eta guk artu genduan. Da pintxeak txabolara allegatu baiño len, trumoiakin da tximistakin zaparra-

da aundi bat asi; ta, aiek abeto aundi baten ondora baztertuta zeudela, beste abeto baten gaiñetik jetxita, bi basakatu ume.

Arrapatzeko asmotan asi omen ziran laixterka, baiña ez arrapatu. Aiek artan zebiltzala, tximista aundi batek, aiek len zeuden abeto ura dana puskatu. Otarrak eta ogiak, danak urrutira bota. Gure pintxeak, basakatuai segika ari ziralako bizirik salbatu.

Gero illuntzean, apaltzera danok juntatu giñanean, pintxeak esan ziguten zer gertatu zitzaien, da guk esan genien:

— Aiek ez ituan basakatuak izango! Aiek, zuen aingeru goardakoak izango ituan!

Berak ere fede onean zeuden, da onela erantzun ziguten:

— Guk ez dakigu zer izango ziran! Basakatuena itxurakoak ziran. Gu aiek salbatu gaitue, ta eskerrik asko! Konforme gaude!

Mendi aietan, laiño itxua ere askotan izaten zan.

Illuntze baten, lanari larga ta abitu giñan txabola aldera. Ogei bat minutuko bidea gendukan. Gain baten pasa ta andik bera genduan txabola.

Lantegitik lenengo abiatu ziranak, gain artatik pasa ta txabolara ondo allegatu ziran. Baiña atzera bagiñan ogei bat lagun edo orrela, mutillen erdiak inguruan; da, gu allegatzerako, laiño-moltso itxu bat sartu zuan gain artan, guk pasa bear genduan lekuan.

Antxe gelditu giñan, zearo illunduta, buru-

arekin arbola-gerriak jotzen giñuzela, aurrera ezin joanik. Onela esan genduan:

— Etzeok ba joaterik onela.

Bagenekian zein lekutan giñan gutxi gorabera, baiña ezin pausorik eman. Oiuka ekin genion bertatik:

— Eeeeeup!

Ta alkarrri onela esaten genion:

— Gaua emen pasa bearko diagu, txabola-koak oiua aditzen ez badute.

Baiña ondo aditu zuten txabolakoak oiua: baita etorri ere, parol aundi bat artuta, geure billa. Bi mutil etorri ziran parolarekin, da onela esan ziguten:

— Zer pasa zaizute emen?

— Emen zearo illundu, ta, buruarekin arbola-gerriak jotzen asi geranean, bildurtu ta oiuka ekin!

— Bai; guk entzun ditugu ondo zuen oiuk txabolatik! Baiña gu emendik pasa gaituk, ba!

— Itzali zak parol ori ta ea zer ikusten dekan!

Etziran atrebitu parola itzaltzera; ta danok txabolara joan giñan parol aren argiarekin, mutil aren ondotik.

Euri piska bat ere bazan eta bustita allegatu giñan; baiña ondo.

Arri erauntsiak ere izaten ziran an. Ango beorrak eta ardiak urrutira aditzen zuten arriaren otsa, ta azkar sartzen ziran arbola-azpietara anparo-billa. Orru tristeak egiten zituzten gaixoak.

Arri-erauntsi batzuek arbolari azala kentzen zioten. Orrelako erauntsi aundiak abereai min aundia ematen diote. Ondorenean triste egoten dira egun batzuetan. Mendiko belar gozoak danak txikituta largatzen ditu arri-erauntsiak. Berrero belar berria atera arte supritzen dute abereak.

Onenbestekin bukatzen det Irati'ko egualdiaren gertaera, ta suerte on batekin ibili ditezela ango gizonak eta abereak.

JOANITO ZAPARRO

An bagenduan mutilzar bat zelebrea, ta pikaroa piska bat ere bai.

Jai-arratsaldeetan joaten giñan erre kara arrantzura, erreka gertuan gendukan-da. Erreka aundi samarra. An arri asko, ta amorraia ere asko.

Jai baten pentsatu degu joatea erre kara. Mutilzarrak ere joan bear zuala. Zato aundi bat beteta artu zuan.

Joan giñan erre kara. Asi giñan amorraiak arrapatzen. Mutilzarra, legorretik, guk arrapatutako amorraiak artzen.

Mordoska bat berealaxe arrapatu genduan. Mutilzarrak kakodun ziri batean sartu.

Alako baten konturatu gera palta dala mutilzarra. Oiu egin genion:

— Joanito!

Etzuan kontestatu. Berriz ere oiu egin genion. Etzuan kontestatu. Pentsatu genduan txabolara joango zala bere zatokada ardoarekin da amorraiak.

Joan giñan txabolara:

— Joanito ez al da etorri?

— Ez, onera ezta etorri.

Ala, gaba pasatu genduan da goizean jaiki giñan, da mutilzarra palta.

Idiakin egiten zuan lana tronkoak biltzen. Aren idiak txabolan gelditu ziran alperrik, eta nagusia aserre.

Bazkaltzera juntatu giñan, da nagusiak galdetu zuan:

— Joanito ez al da etorri?

Guk erantzun genion:

— Ezta etorri.

Nagusiak, lendik aren berri bazekian da onela esan zuan:

— Ezta galduko. Azalduko da.

Illuntzean juntatu giñan txabolara apaltzera, ta mutilzarra palta.

Aparia bukatu genduan momentuan, sartu zaigu txabolara gure mutilzarra, prakak erantzi ta bizkarrean artuta zituala. Bazekian nagusia ta danak aserre egongo zirala, ta bitxoa izan ura. Bereala danak adiskide ipiñi arek. Esan zigun:

— Apustua egingo dizuet, ni nagoan bezela, prakarik gabe, alkondara utsean, alkondararen barrenean periodikoa lotuta, su eman ezetz sei litro ardo.

Bi napar gaztek baietz! Egin zuten apustua, txabolari sei buelta emateko.

Mutilzarra jarri zan alkondararen barrenean periodikoa lotuta. Bi napar gazte aiek artu zuten su-egur luze bana.

Asi ziran laisterka: mutilzarra aurrean, da gazteak atzetik suarekin. Da laisterkako aizearekin su ezin eman.

Gazteak etsi zuten, baiña ipurdia ta estribilluak ederki berotu zizkioten. Apustua irabazi mutilzarrak, da nagusiaren aserrea dana pasatu: danok gustora gelditu txabolan, naiko parra eginda. Baiña mutilzarra etzan ondo geratu gizajoa, ipurdia ta estribilluak berotuta.

Urrengo goizean pausorik ezin eman, da an etzegoan beste botikarik eta bareakin igurtzita sendatu zituan erre txar aiek.

Guk jakin nai genduan nun izan zan. Etzuan aitortu aste guzian. Urrengo igandean egin genduan perretxiko-jan aundi bat, eta, ardo puska bat edan genduanean, orduan egin zuan *vino confesor*.

Gure lantegitik bi ordu pasako bidean, artzai bat egon, txabolan bakarrik egoten zana. Lagunak ere joaten omen ziran sarritan. Artzai ori, neskazarra. Oso zarra ere ez: berrogei ta iru edo lau urte. Gure mutilzarra arengana joan da an pasatu gaba ta eguna.

Ortan bukatzen da mutilzarraren istoria. Naparra zan, Bidasoa aldekoa. Joanito izena. Beste izen bat bazuan, gaizki-izena: Zapparro.

DONIBANE-GARAZI

Gu Irati'ko lantegitik jeixten giñan udara aldean bi edo iru aldiz errira, geuretzako jantziak eta gauzak eroatera.

Aldian lau edo bost laguneko mordoska, eta gero gaiñontzekoak ere berdin, txandaka; bestela lantegi guztia gelditu bear. danak batera joan ezkeru.

Jai-bazkalondoan abitu. Menditikan gu pozik jexten giñan bera. Irrintzi batzuk ere egiten giñuzen, gure artean irrintzilari onak ere baziran-da. Gora ere gustora joaten giñan gero, geure gustoko gauzak erosita.

Illuntzera Mendibe'ra. Ango Ezponda'ren jatetxean apaldu ta lo egin.

Urrengo goizean, zortzirak aldean, sartu autobusean da Saint Jean de Pie de Port'era joaten giñan. Erri aundi ta ederra da ori. Badu euskerazko izena ere: Donibane-Garazi. An peri aundia egiten zan astelen guztietan.

Autobusetikan erten allegatutakoan. Guk ere dirua ganbiatu bear izaten genduan. In-txauspe esaten zitzaion etxe aundi bat zegoan.

Nai ziran jenero guztiak bazeuden an saltzeko: jostorrazetatik asi ta pikatxoietaraño, gauza guztiak; pistolak eta eskopetak ere bai. Bankua ere bai, ta dirua antxe ganbiatzen genduan. Lenengo gauza orixe, Mendibe'tikan joaten giñan autobusetik ertenda.

Nai bazan prantzesez itzegiten zuten, nai bazan españolez, ta nai bazan euskeraz. Guk euskeraz egiten genduan.

Euskeraz ondo entenitzen genduan alkarrekin. Elizondo aldeko jendea gendukan lan-tegian dezente, ta basoko napar lagun oien euskera ikasia genduan; eta San Juan-edo erri artan, Bidaso aldean bezelakoxe euskera zan.

Andik, taberna bat bazegoan jatetxe ona ta ara joan ta gosari txiki bat egin. Euskaldun asko joaten giñan etxe artara, jan da edan egitera. Etxe arek izena Garbariorenena zeukan; etxeke nagusiaren izena ere alaxe zan: Garbario.

Gero, plazara erten aguro ta erosi geuk bear giñuzen gauza guztiak: abarkak eta, alkondarak eta, prakak eta, txapela ta, beste jerse oietako bat eta, baita barrungo erropa ere. Ango jantziak eta oiñetakoak, emengoak baiño obeak ziran. Denbora artan beintzat.

Urrena, peria ikustera joaten giñan. Baserritar jende asko etortzen zan, beren saldu-erosiak egitera. Soiñean beren bruxa beltza jantzita etortzen ziran, ta buruan txapel aundia, emengoa baiño aundiagoa.

Peria, erriko plazan egiten zan. Emengoak bezela, ango peria ere. Bei eta txekorrak,

ganadu ederrak izaten ziran. Txerriak ere bai. Sagarrak eta, txermenak eta, kerixak eta... Baserriko jenero guztiak bazeuden, eta kalekoak ere bai.

Baserritar jende orrekin ere itzegiten genduan 'piska bat. Guk galdetzen genien:

— Onek, txekor onek, zenbat balio du?

Erantzuna baserritarrak:

— Onenbeste franko.

Txerriakgatik ere galdetzen genien, ta aietxekgatik ere berdin erantzun aiek.

Baserrietatik etorritako neskatxa ederrak ere ibiltzen ziran an, ta aiei ere begiratu; basoan olakorik etzan ikusten, eta kalera jetxitakoan begiak erne egoten ziran.

Eguardi aldera, lengo tokira bazkaltzera: Garbarioren etxera. An izaten zan Garbario berra ere.

Gizon aundi bat zan. Eun da irurogei kilo pisua bazuan. Gizon aundi arek exeri-leku aundia zeukan bere atarian, egurrezko aulki aundi bat. An exerita egoten zan egunean. Askotan, lo piska bat an bertan egiten omen zuan.

Goizean jeiki ta exeritzen zan bere exerilekuan. Porrusalda bertara eramaten zioten, lurrezko katillu aundi baten, emazteak edo neskameak.

Katillua eukitzeko, maiaren bearrik etzuan gizon arek. Txilbor aundiaren goenean, koska aundia zeukan; an eukitzen zuan katillua

ederki. Porrusalda andikan artzen zuan, bibote aundiak bustiaz.

Bazkalondoan puro aundia erretzen zuan, exeri-lekuan jarrita. Ura erretzeko denboran, lo artu askotan. Puroa ezpaiñetatik erori ta txilborraren gaiñean geratu. Puroaren suak alkon-dara sutan jarritakoan esnatzen omen zan.

Gizon ura ona zan da Jaunak zeruan euki dezala.

Gu, Garbarioren etxetik aterata, joaten giñan Mendibe'ra, Ezponda'ren jate-etxera, apaldu ta lo egitera.

Urrengo goizean, goizean goiz ateratzen giñan txabolara ta geure lantegira joateko. Allegatutakoan, lagunak galdetzen ziguten:

— An neskatxa ederrak-eta ikusiko ziñuzen, ba? Itzegin al diezute edo zër egin dezute?

Guk erantzuten genien lagunai:

— Bai, guk itzegin diegu, baiña española-kin ez dituk oiek piatzen! Izu jartzen dituk!

Ta gure lagunak:

— Orduan ez dezute ezer egin zuek!

Gure ibillaldia orrela bukatzen genduan.

SALBADOR MUTILZARRA

Gu Prantzi'ko Irati'n lanean ari giñala, etorri zitzaigun mutilzar bat zelebrea Prantzi aldetikan. Berez naparra zan. Ultzama'koa: Salvador zuan izena.

Soiñean zituan erropak besterik etzuan ekarri. Aiek, bestek emanak. Len ere esan degunez, Saint Jean de Pie de Port'en bazan gizon aundi bat, taberna bateko nagusia, Garbario izenarekin, eun ta irurogei kilo pisatzen zituana. Arek emandako erropa zar batzuek ekarri zituan bere gorputzean jantzita; besterik bat ere ez.

Bera mutil motxa zan, da gizon aundi arek emandako erropak, aundiegi zituan. Prakak lotzen zituan gerria baiño gorago, titi ondoan, gerriko aundi batekin. Ala ere, betikan luzeegi. Iru edo lau dobla eginda ibiltzen zituan.

Kolorea zuten gorria izandakoa, piska bat zuritutakoa. Panazkoak ziran, da arraiak aundiak zituzten; beatza aiña lodikoak bai.

Potoiak txapazkoak, errematxatufa jarriak, aririk batere gabe.

Alkondara ere bat bakarra. Arek ere potoiak berdin, errematxearekin jarriak, aririk gabe. Kolore urdiña zuan.

Baiña oso alkondara aundia zan. Belaunetaraiño luze bazuan, baiña moztu egin zuan aizkorarekin barrenetik aurre aldetikan, xixa egiteko enbarazua egiten ziolako. Besoak ere bai; moztu egin zizkion aizkorarekin, oso luzeak zituan-da.

Barruko erroparik etzuan ekarri.

Txapel zar bat bai, urdiña izandakoa, eguzkiak eta euriak zuritutakoa. Ura jazten zuan buruan, aurre aldera zorrotz, bi aldeetan tellatu-gisan. Iru edo lau zulo bazituan txapel arek; zulo aietatikan ille-mordoska batzuek ertenda ibiltzen zan.

Anketan galtzerdirik etzuan ekarri; egurrezko txonkolu bi, aundiak. Iru takoi azpian: bat atzean, bi aurrean; muturra zorrotza, okerra, gora begira, anka goeneraiño itxia. Aiekin ibiltzen zan gure Salbador.

Etorri zanean, Salbadorrek onela esan zion nagusiari:

—Pedro: illabetea osatutakoan, dirurik ez eman neri! Ola meriendatzeko pixka bat bai, baiña ortik aurrera ez! Bestela, ni joango naiz norabait eta danak gastatu arte ez naiz etorriko! Udara-azkenerako diru piska bat sobratzea ere komeni zait, erropa berriak egiteko, premia ere badaukat-eta!

Aizkorarik etzuan ekarri, zatorik ere ez, kotxararik ere ez. Jateko ta edateko gogo ona bai. Nagusiak eman zizkion aizkora ta zatoa ta

kotxarea, ta ardi-narru zar bat ere bai, euria-
rekin bizkarretik artzeko.

Orrela, lanean asi zan. Etzan langille txarra;
len ere basoan asko jarduna ta biotz oneko
mutilla.

Maldizio asko etzuan esaten, baiña beste
aldrebeskeri batzuek bai:

—Nere zeruko tokia salgai edozeiñi milla
pezetaren aldera!

San Migel Aralar'koaren istoriak bazekiz-
kian, Antziñako gerrate baten arrapatu egin
omen zuten, asko balio duana omen da-ta,
Prantzi'ra pasatzeko asmoan.

Prantzia'ko mugaraiño joandakoan, iñork
ezin mogitu ta lapurrak bildurtu, ta atzera
Aralar'era biurtu ta lengo lekuan jarri.

Ori etzuan sinisten Salbadorrek. Irati'n
bada erreka bat, Prantzi'ko ta Espaiñi'ko muga
egiten duana: Errekabeltz du izena. Salbadorrek
onela esaten zuan.

—Ekarri onera, Errekabeltz'era, San Migel
ori, eta neronek bakarrik pasako det milla
pezetagatikan!

San Migel Aralar'koaren elizan, bedeinka-
tutako ura saltzen omen zieten Naparroa'ko
baserritarrai, subeak eta zomorroak akabatzeko
ona zala-ta.

Baiña Salbadorrek etzuan pederik urarekin.
San Migel Aralar'koaren eleiza ondoan-da,
subeak eta zomorroak an ere bizirik ikusten
zituala, eta urrekoak etzituala galtzen da
urrutikoak nola galduko zituan esaten zuan.
Orregatikan zedukan pede gutxi.

Egun baten izan zuan desgustua gure Salbadorrek. Paraje aldapa baten ari giñan lanean. Beti bezela, illuntzean abiatu giñan txabolara.

Salbadorri txonkolu batek erten ankatik eta eskapatu beko errekaraiño. Goitik bera, arbolak joka, kin! kun! otsa ateratzen zuan.

Txabolara joan zan, anka baten txonkolu eta bestean bat ere gabe.

Urrengo goizean, gu lanera ta Salbador txonkoluaren billa beko errekarara. Bi ordu pasatu zituan, baiña sasi-tarte baten billatu omen zuan da gustora gure Salbador.

Salbadorrek onako bertso au kantatzen zuan askotan jai-illuntzetan.

Asto bat erosi det
iru ankarekin,
Parisera joateko
neskazar batekin;
Parisko notiziak
nai baituzue jakin,
emezortzi korrio datoz
kazeta batekin.

Au ere esaten zuan:

— Ni Salbador pobrea naiz; baiña nik eta beste Salbador batek badegu balorea ta sosa aunitz!

Beste ori, Salbador Bertiz omen zan, Oronoz alde ortakoa, oso aberatsa ta pamelirik etzuan. Mendi aundiak eta errekek eta balore aundiak omen zituan.

Aren mendietatik, iñork etzuan ateratzen egur-pusketa bat eta ezer ere. Eiztariak ere

etzuten tiro bat egiten ango piztiai. Arrantza-leak ere etzuten aren erreketatik arrairik artzen bat ere.

Ari gertatu omen zitzaion, mendia ikusten zebiltzala andrea ta biak, subeak eldu andreari ankatik. Ori zala-ta, subea akabatzeke ordena ango goardak bazeukaten, baiña besterik ezer ere ez.

Bein baten, baserritar bat joan omen zan, elurra aundia zegoala, Salbador Bertiz orren-gana, arbolak izaten du ipurditik gora eta arbolaren bueltan beti ostrotan egoten dan untza izenekoa ta untza ori eskatzera, arbolak alperrik edukitzen du-ta.

Ta Salbadorrek baserritar orri eman omen zion diru-mordoska bat, ganaduentzako ekartzeko jatekoa, pentsua, almazenetikan, ta aitutakoan berriz ere joateko arengana, baiña arboletako untzari ez ikuitzeko. Ordena ala eman omen zion.

Ta gure Salbadorrek ura zeukan lagun dirutsua; berak eta beste arek, Salbador Bertiz-ek, bazeukatela sosa ta balorea.

Gu txabolan alaitzeko, asko balio zuan arek. Beti olako zelebrekeri edo ipuiren bat izango zuan eta guk parra egin.

Orduan berrogei ta lau bat urte izango zuan; ala esaten zuan. Baiña artean oso mutil sasoikoa zan. Ura gaztetan zer izan ote zan ikusiko genduala pozik esaten genduan guk.

Kordionista bastante onak bi anai baginñuzen txabolan, Sunbilla'koak; izenak, batek Agustin eta besteak Alejandro, eta apellidua Iriarte.

Aiek, jai-arratsaldeetan, meriendatu ondoan, asten ziran soñu jotzen. Jeneralean, udara-azken aldera jotzen zuten, eguna mozten zuanean. Udara erdian ez genduan eukitzen jolas-gura aundirik, baiña udara-azkenera pis-ka bat bai.

Dantzan ere egiten genduan, baiña ortarako ere etzegoan gure koadrillan Salbador bezelakorik. Asten zan dantzan norbaitekin, ordu betean geratu gabe jardun, ta bestea ler eginda eta Salbador len bezela. Beste bat berria asi ta ari ere berdin-berdin; beste bi edo iruri ere berdin; danai ler eragin dantzan eta Salbador aurrenean asi bezelaxe.

Esaten zuten, premiotan askotan ibili zala Naparroa'ko erriko pestetan; baiña, ura joan ezkeru, iñork etziola ari kendu; premiaoa beti arentzat izaten zala.

Anka-punten gaiñean, orpoakin lurrik jo gabe dantzan egin; bi orduan orrela jardun da irugarrenean ere berdin. Kristau ikaragarri gogorra zan ura.

Abuztuaren azken aldera etorri zitzaigun lanera gizon igar-arin bat, Naparroa'ko Erribera'koa, dantzari bizkorra ura ere.

Jai-illuntze baten egin zuten apustua Salbadorrek eta biak, lau litro ardo, dantzan zeñek obeto egin: iru paldangotatik bi zeñek obeto egin.

Asi ziran dantzan eta lenengo paldangoan Erribera'ko gizon igarra ariñago ta ederrago.

Salbadorrek, Garbariok emandako praka lodi aiek zeuzkan soñean da dantzarako

estorbu egiten. Erantzi zituan prakak eta asi zan alkondara utsarekin. Orduan bai arin gure mutilzarra!

Berealaxe siñalatu zan Salbador ariñago ta bizkorrago alkondara utsean, ta guk berak irabaztea nai ta danok oiuka:

— Biba Salbador! Biba Salbador!

Bigarren eta irugarren paldangoetan aixa irabazi zion gizon igarrari. Gero Salbadorrek danok gonbiratu giñun ardo arekin. Erribera-koak ere ezagutu zuan Salbador geiago zala.

Geroztik etzuan Salbadorrek kontrariorik izaten dantzan egiteko.

Andikan alde egin ezkeru, ez det geiago ikusi, eta aren berririk ikasi ere ez. Onezkero illa izango dala uste det. Iñork zeruko tokia etzion erosiko ta Jaunak zeruan euki dezala, eta dantzan ibilli dedilla an ere!

ARRANTXEROA

Gure arrantxeroa gipuzkoarra zan, Azkoiti'ko Ondarrua'koa. Ondarrua baserria or dago Izarraitz aldera gora, Madariaga ballaran, mendi-mendian, Azkoiti'ko erriak daukan etxerik altuena. Angoxe semea zan; Jose Maria Arrizabalaga.

Mutil motz bat zan, beltz bat. Ondarru Beltxa esaten genion izena gipuzkoarrak. Naparrak etzioten esaten ori; izena ere arrantxeroa aiek.

Arrantxero ona zan, da ikaragarri txukuna. Ondo gozaten zituan jatekoak. Babak egosteko ta zopa egiteko, obeagorik etzan modukoa bai.

Lenengo, babak egosten ziran ur asko samrarrarekin. Salda ura, zopa egiteko artu aparte, ta ur gutxirekin largatzen ziran babak. Gero, ura berriz piska bat bota aiei. Urrena, olio ta tipula ta gozagarria ari bota. An beste irakin bat eman da berriz bigarren botatako ur ori loditu, ta beste len kendutako salda arekin zopa egin.

Babak eta zopa; besterik ezer ez. Baiña arek

txukun da gusto ederrarekin beti. Arrantxero oso ona.

Egun baten, triste gure arrantxeroa. Triste ta oker-oker eginda, ta:

— Zer dek, Joxe Mari?

— Ikaragarritzko aundidura asi zaidak ementxe, gerrian!

— Zer dek ori?

— Ikaragarria, motell! Etzeok abuantatzerik onekin!

— Ez al diok, ba, ezer erremeiorik egiten?

— Tipularen azala-ta ipintzen zizkioat, baiña ez dek au ala ere lertzen!

Orduan beste batek esan dio adarra jotzearren:

— Ori? Orrentzako erremeioa bazeukat nik!

— Zer dek, ba?

— Orri enplasto bat egin bear zaiok olioarekin, tipularekin da kaka-adarrarekin. Kaka-adarra txiki-txiki egin, tipula ta oliotan dana nastu ta bigundu, ta ipiñi iok. Ikusiko dek nola lertuko zaikan!

Urrengo gau erdian, zartagiarekin-da an ari zan. Nik aren parean lo egiten nuan; olaxe, aurrean sua. Altxa ta:

— Zer ari dek gure arrantxeroa?

Ta kaka-adarra txiki-txiki egin, zartagian zabaldu, olio ta tipularekin nastu ta enplastoa preparatzen.

Bi zartagi eukitzen giñuzen, kuadrilla alder-

di batekoak bat eta bestekoak bestea, jaietan merienda egiteko; aundiak zartagiak. Aietako bat kerten luzeagoa zan, da bestea kerten motxagoa. Kerten luzearekin ari izan.

Ura benetan ari zan, da gaiñera on egin zion. Ori gogorra! Egin du enplasto ori, ipiñi dio, ta zer dek eta goizerako lertu! Jeiki giñanean, arek:

— Eskerrak zuen erremeioari!

— Zer ba?

— Orretzek lertu zidak!

— Ta kaka-adarra nun billatu uan?

— Or txabola atzean! Ez niñun ederki ibilli billatzen da arrapatzen! Orretzek lertu! Orain-
txe salbatu nauk!

Guk parra, baiña gustora mutilla.

Gero, jaietan merienda preparatzeko, aurrenengoak beste zartagia arrapatzen zuten; ura azkenengoentzat izaten zan, kaka-adarrarekin enplastua egiten ibillia zalako. Ura iñork nai ez.

Gure arrantxero orri, arrantxoak egiten da mando ta idien janak preparatzen da zimaurrak kentzen, lan asko tokatzen zitzaion.

Ala, nagusiak ekarri zion lagun bat bere erri-tik, Orbaizeta'tik, karabinero izandako ta erre-tiroa artuta zegoana, zarra ta igarra. Berrogei kilo etzan izango. Okela asko etzuan ekarri; biboteak bai galantak.

Igande-gau baten eman genion desgusto bat aundia. Berak lo egiteko lekuan lo zegoala,

alderdi bateko biboteak moztu; beste alderdi-koak larga.

Goizean jeiki ta etzan gizon ondrarua. Adarra autsitako idi zarra geratu zan: alderdi bateko biboteak tente; besterik ez.

Gero, berak arreglatu zituan: luze geratutakoak piska bat moztu ta besteai luzatzen lagundu.

Biboteena baiño desgusto aundiagoa izan zuan suerte txarrez. Txabolatik gertuan erreka txiki bat gendukan. Ara ura artzera zijoala, erori ta anka bat autsi egin zuan. Berak lo egiten zuan lekuan etzan da an egon zan bi edo iru egunean.

Nagusiak, ala gaizki zegoala ikusita, mandoan artu ta sendagillearengana bialdu zuan. Ondo osatzen ari zala jakin genduan. Gizon ura piña ta xuxena zan da Jaunak zeruan ondo artua izan dedilla.

Baiña ura joan da gure arrantxeroa bakarrik berriz ere lan guztietarako.

Iru-lau urtean edo bostean jardun zuan arek arrantxero. Diru-mordoska ere ekarriko zuan andik. Txabolan arek naikoa jana ta edana, ta batere ez gastatu ta dirua. Nik alde egin da gero ere, segitu zion arek piska baten.

Onera etorri ta lagun bat Aizpurutxo'koa billatu zuan. Bere kasa etzan ortaraiñokoa izango, baiña laguna zuan ona, Aizpurutxo'ko ori, Bitoriano. Onek ideatu ta besteak lagundu, Azkoiti'ko alde ortantxe baserrietan ibiltzen ziran: etxe zarrak arreglatu, tejabanak egin, ganadu-askak egin da abar.

Alaxe bere denbora pasatu ta mutilzarra.

Azkeneko ikusi nuala, onezkero amar urte badira. Madariaga daukate urrean aiek beren baserritik eta araxe mezetara joan. Ni, berriz, Sakabi'n; zeozer neuretzako-edo erremeioa Sakabiari kentzera joan da mezetara Madariaga'ra ni ere. Aguro ezagutu genduan alkar:

— Zer moduz edo?

Ta:

— Urte-mordoska bat pasa diagu or obretan da abarrean; baiña zartu gaituk eta orain ez nauk ibiltzen. Orain etxean illobakin; lan piska bat egin da antxe ibiltzen nauk!

Izketalditxo bat egin genduan, lengo kontu zarrak berritu ere bai ta partitu giñan. Geroztik ez det ikusi.

ETXERA

Udazkenean, San Migel ondoan, arbola-ostroak gorritu eta lurrera erortzen asi ziran. Ezkurra ere bai galanki.

Eguna motza egoten zan eta gu gustora, lan gutxiago izaten genduan-da. Jolas-gura puxka bat orduantxe izaten genduan.

Goizean, txabolatik ateratzerako, gosaldurik; ta bazkaltzen ere iru ordu-laurden pasatxo. Siestarik ez.

Usoa ugari pasatzen zan an udazkeneko garaietan. Aiek ikusita, eizeko apizioa gendukanak supritzen egoten giñan. Onela esaten genion alkarri:

— Gu etxera joandakoan, ez dek pasako olako uso-pillarik gure etxe aldeko mendietan!

Ortxe, Santu guziena baiño lenago, elurra egin zuan arratsalde baten. Lanari larga ta txabolan sartu giñan. Urrengo egunean, pixka bat beranduago joan giñan lanera. Berealaxe urtu zuan elur ura.

Gero, andik San Andresetara, txingor batzuek egin zituan, baiña elur aundirik ez.

Nere Irati'ko despeira, Azaroaren ogei ta zortzian izan zan. Lau edo bost egun aurretik, nagusiari esan nion:

— Etxera joan bearko det, gariak egitera. Bestela, ni gabe, gaizki ibilliko dira-ta.

Ta Zabaltza'k:

— Bai, danok ere laixter alde egin bearko degu emendik.

Andik aurrera, egualdia zerbait erauntsitzen bazan, elurra seguru baitzan; udaberrira arte an etzegoan euririk.

Bezperan, illuntzean, txabolan musean saio bat egin genduan bi nagusiak, eta kapataza ta nik.

Udara guztiko sariak jaso gabe nengoan eta antxe eman zizkidaten danak. Eta "Urrengo urtera arte!" esanda, eskua alkarri eman da agurtu genduan alkar. Baiña ni ez nintzan joan geiago.

Naparrak, danai eskua eman eta agurtu nituan, kamañan etzaterako.

Aiek, urrengo goizean, artean illun zegoala joan ziran lanera. Eta nik, eguna zabaldu ta geroxeago erten nuan, nere aizkora ta trasteak maletan sartu eta ura bizkarrean artuta.

Lenengo, Mendibe'ra jetxi. An ari ziran nere bi lagun zerran: Inazio Motza eta Jose Esnaola, eta aiek, etorri egin bear zutela nerekin batera.

Mendibe'n bazkaldu genduan, da andik Baigorri'ra, autobusean sartuta. An apaldu ta lo.

Urrengo egunean peria zan Elizondo'n. Autobusa ertengo zala ara joateko; baiña guk uts egin genduan. Gero, kotxe txiki bat artuta joan giñan Elizondo'ra.

Guk, pasaportetik eta olakorik ez genduan iñork ere. Eta, mugara irixtean, alto eman ziguten. Lumeroak-eta artu zizkioten kotxeari, eta txoperrak zerbait pagatu zuala uste det. Ta guri, nundik nora gentozen galdetu ziguten. Ta Zabaltza'ren lantegitik etxera bidean giñala, guk. Andik aurrera etziguten beste ezer galdetu; ezta maletarik idiki ere.

Elizondo'ra allegatu ta txoperrari galdetu genion zenbat diru bear zuan; da español duro bana ematen bagenion konforme zala. Ta alaxe eman genion. Ta an perian ibili ta gero bazkaldu.

Bazkal ondoan sartu Bidasoa'ko trenean da Irun'era etorri. An beste trenean sartu ta Donosti'ra. An zerbait artu genduan, da illuntzean kostako trenean sartu ta Arrua'ko estaziora. An atera ta bakoitza bere etxera gustora.

Ni etxe ondora gerturatu nintzan da begiratu nion soroari, ta garia egiten asi gabe artean. Sartu nintzan sukaldera, ta ugazama sukaldean da besteak oera joanda zeuden. Baiña laixter jaiki ta aien poza, gariak egiterako joan nintzalako.

San Andres eguna zan. Jaungoikoari eskerak ematen dizkiot, osasunez eta miñik artu gabe ibilli nintzalako.

Ala, urrengo egunetik asi giñan lurra jira-

tzen laiakin, aita ta ni beste bi arrebakin. Auzokoak ere piska bat lagundu ziguten. Orduan asko usatzen zan auzoak alkarri laguntzea. Garia egitea ondo bukatu genduan, Jaunari eskerrak.

Garia egitea bukatu ta berriz ere lanerako pronto. Ezteia baserrian pago luze batzuek zeuden. Aiek etxetik gertuan ziran eta erosi egin giñuzen nere lagun Jose Esnaola'k eta biok; eta zerratu esku-zerrakin, tabloia egin da saldu.

Udaberria gerturatu zanean, Zabaltza'k abixua bialdu zidan: joateko, erremintak zorrozten eta kertenak egiten lana bazala eta nere premia bazutela.

Nik erantzun nion ezetz; ezkontzea pentsatu nuala eta nere esperantzarik ez eukitzeko.

AZPEITIA

Ala, ezkondu egin nintzan, andregaiaren baserrira, Maiatzaren 10'an. Baiña denbora gutxi pasa genduan an. Urte t'erdi ingurura Azpeiti'ra joan giñan pameli dana.

An soro eder bat artu genduan, eta bei bat eta txerri ta oilloak jarri. Soroa, Lasao'ko markesarena zan. Ta ni tallerrean asi nintzan, Agirre'enean. Ta geroztik Azpeitia'n bizi izan gera.

Azpeiti'ko errian ere, San Inazio'ren seme dira-ta, gizon ospatsu asko izandu da. Nik ezagutu ditudanak ere, ez dira gutxi. Loiola'ko Agerre'n izan dira bi edo iru anai, bizkarrera karga aundiak jasotzen dituztenak. Errekartetxo ere oso ona karga jasotzen. Ta Arriya zarra, Inazio Orbegozo, aizkoran onena egondakoa denbora-puska baten. Orain ere semeak alaxe dauzka. Pelotariak ere asko izan dira Azpeitia'n onak. Orain bertsolariak, berriz, iru Azpeitia'n bertako semeak, eta beste bat edo geiago kanpokoak.

Ta gizon zelebreek ere izan ditu Azpeiti'ko erriak. Txiste egokiak esaten oso iaioak.

Egun baten, gizon bat tabernara joan da, mai gaiñera igo ta asi da kantatzen, bulla aundia egiñez, apizioa zuan orretarako-ta.

Tabernariak esan dio:

— Motell, ixilik egon adi edo bestela bajutik kanta zak!

Jetxi omen zan gizon ura mai gaiñetik bera, eta, mai azpira sartu ta an kuxkur-kuxkur eginda, kantatzen ekin zion ostera, len baiño aundiagoko orruak egiñez.

Ta tabernariak:

— Motell, ixilik egon adi!

Ta gizon arek:

— Nik nola asmatu bear diat irekin? Euk esanda ez nauk ba ari bajutik kantatzen?

Ta tabernariak:

— Nik etzeukeat ba emen bodegarik bajua-gotik kantatzeko, eta alde egin zak emendik!

Olako gertaera zelebreak, azpeitiarrak asko dute. Danak esaten asiko bagiña, liburu oso bat bearko genduke. Baiña nik asko ezagutu nuan azpeitiar baten zelebrekeriak esan nai nituzke.

Bitor zuan izena, baiña Sebilla esaten zitzaion, berak ipiñitako izena bere buruari. Bitor Sebilla Makariano esatea nai izaten zuan.

Jendeak ere oso maitea edukitzen genduan Azpeitia'n.

Batzuetan, dirurik etzeukanean, eskean ibiltzen zan baserrietan, da kalean ere bai. Errezatzaille ederra zan. Baserrietan errezatzen zuan:

— San Antoniok lagundu dezaiela beren ganaduakin osasuna ematen!

Kalean erreztatzen zuan:

— Itziar'ko Ama Birjiñak lagundu deiola pameli oni osasunarekin bizitzen!

Orrelaxe erreztatzen zuan, da ari zerbait ematea gustoa zan.

Ardo piska bat edan da txispatuta zegoanean, egundoko dantzak eta bibolentziak egiten zituan, da bertso bat ere askotan kantatzen zuan.

Aurretik onela asten zan esaten:

— Senbitan beko kanbami!

Aurreko orrek zer esan nai zuan iñork ere etzion entenitzen, baiña beti orrekin asi. Ori esanda, asten zan kantatzen:

Oillo txuriya iriña ealten,
oillarra ari laguntzen;
txindurritxua atxurrian da
kakalardua laiatzen;
xagu txikiya josten dotore,
arratoi zarra plantxatzen;
aker da iriyak dantzan gustora,
astua danboliñ jotzen;
aiei begira alegratuta
zorriya parrez itotzen.

Au kantatu ta ondorenean esaten zuan:

— Biba Ama Birjiña Itziar'koa ta Aita San Roke Deba'koa ta Pedro Murgizarr'ekoa, Las-tur'ko zezen indar aundikoa ta Zelailuze'ko gorri txikiak bizkorrenetakoak!

Ori esanda, bibolentziak egiten zituan: anka bat aidean zuala, beste ankaren gainean iru edo lau buelta egiten zituan. Ondorenean, au esaten zuan:

— Biba Bitor Sebilla Makariano azpeitiarra!

Baserrietan morroi bezela ere egoten zan etxe batzuetan.

Oñatz'ko Txokolate'koa etorri da Azpeiti'ra idiakin da gurdiarekin zerbait eramatera, eta Sebilla ori billatu du kalean. Galdetu dio Txokolateri:

— Neretzako morroi-lekurik bai al dago Oñatz'en?

— Bai! Neuk ez diat bear, baiña primeran izateko lekura eramango aut!

Exeri da gurdian, eraman du Oñatz'era ta baserri baten larga du. Danak gustora, baiña Sebilla laister aspertu. Tabernarik ez egon urrean da...

Jetxi da Azpeiti'ra. An esan diote:

— Zer pasatu zaik Oñatz'tik alde egiteko?

— Txokolatek sartu zidak egundoko ziria! Oñatz'en primeran izango nintzala-ta eraman ninduan! Ezta kuartan ere! Etziok an bizitzerikan! Oñatz'en, beiak eta idiak gizenak, gizonak plakoak!

Kalean aspertuta, berriz ere norabait morroi joan bear. Azpeiti'ko Landeta barriotik Urrustilla bitartean dago Antzi baserria, erreka ondoan. Ara joan omen zan morroi, ta oso gustora.

Neguan, goiz baten, il omen zuten txerria; ta Lepasoro baserria antxe dago Antzi'tik gorago, eta aren gertuan eduki Antzi'koak terrenua. Bialdu dute Sebilla, txerria ildako goiz artan, segarekin zakarrak ebakitzera.

Sebilla Lepasoro'ra zuzenean joan, jeupada bat egin omen zuan atarian da erten omen zioten norbaitzuk, eta:

— Zer dek, Sebilla?

— Lanera agindu zidatek eta enetxetorrek gustora! Oraingo jendeak etzedukak sentidurik eta edukaziorik! Etxean dipuntua ta neri lanera agindu!

— Zein il da, ba, Antzi'n?

— Txerria! Sagardo piska bat edango nuke naigabe au pasatzeko!

Orduan Lepasoro'n barrena sartu zuten, barrika ondoan jarri zan antuxune batekin, da eguardira arteko denbora antxe pasatu Sebillak.

Bazkaltzeko denboran bialdu dute Sebilla Antzi'ra. Etxera joanda, nagusiak esan omen zion:

— Ik ez dek zakarrrik ebaki!

— Ez, ez diat ebaki, zuek baiño edukazio geiago daukatelako! Nik ez diat lanik egingo dipuntu ori sepulturan sartu bitartean!

Ezta egin ere.

Etxeko andreak esan omen zion:

— Nungo sepulturan sartuko ote degu, ba, ori?

— Orren sepultura gazi-kutxa izaten da, ta antxe sartu bear da lenbailen!

Sebilla Antzi'ra, *cuarenta*'ko lumeroko al-kondara lepoan lasai zuala joan zan; alde egiterakoan, *cuarenta y ocho*'koa estu omen zuan. Oiek, berak esaten zituan.

Antzi'tik joan omen zan kalera jai baten. An esan omen zioten:

— Nun gizendu aiz orrela, Sebilla? Antzi'n zer eman ditek, ba, orrela, gizontzeko?

— An dipuntua sarri zio: txerria, edo aaria, edo ardia! An sobre zio: jana ta edaria!

Antzi'n ondo; baiña andik ere alde egiteko gogoia eginda, joan da kalera. An ibilli puska baten.

An ere aspertuta, berriz ere baserrira joan zan. Landeta'ko barriaren alboan dago Errekalde izeneko baserri aundi bat, bi bizitzakoa. Aietako batera joan zan. An ere gustora: jana ta edana ondo ta dana ondo.

Egun baten, Sebilla joan da ganadu-jateko-
etara astoarekin. An dabilela, jotzen omen du
astoak ostikoz ipurdiko erretenean da min
aundia eman.

Etxera etorri omen zan kojoka. Nagusiak, ala ikusi zuanean, galdetu omen zion:

— Eroriren bat egin al dek, Bitor?

— Ez! Astoak ostikoz jo natxiok ipurdiko erretenean!

— Astoaren ostikada ez al dek ikusi euregana allegatu baiño len, piska bat albora egiteko?

— Nola ikusiko nian, ba? Atzeko begia tuertua diat, eta antxe jo natxiok bete-betea! Begi tuertuarekin ezin joango nauk okulista-gana, ta neuk sendatu bearko, al detan moduan!

Nagusiak parre egin omen zion orduan, da biak ixildu omen ziran.

Sebilla Errekalde'n ondo, baiña an ere aspertu ta joan da kalera.

Kalean bazuan arreba zar bat. Abitazioa bazuten kale-eskiñan, Izarraitz aldetik. Ara joaten zan Sebilla, arrebagana.

Lastur aldera ta Itziar'era sarri joan oi zan zezenak ikustera. Itziar'ko Ama Birjiña ere bisitatzen zuan.

Azpeitia'n zezenak askotan bear izaten dira, sokan ibiltzeko ta nobilladak egiteko ta abar. Orduan erri-gizonak Sebillari galdetzen zioten:

— Nun daude zezenik onenak?

Sebillak esan gustora. Orduan, Sebilla artuta, joaten ziran Lastur'ko zezen-etxeetara. An banatzen zituzten eta ekarri Azpeiti'ra, ta gustora erriko jendea.

Itziar'era joan da Sebilla jai baten, da moz-kortu samartu ere bai. Itziar'en, egun artan, nobillada tokatu. An zebiltzan gazteak. Sebilla plazara eraman zezenagana, ta zezenak bota ta dana maillatu Sebilla.

An bada, plaza bazterrean, leku txiki bat zezenak gordetzekoa. Sebilla antxe sartu, mozkorra pasako zitzaiola urrengo goizerako, ta norbaitzuk joan dira Sebillari begitzera ta gaizki.

Orduan teleponotik azkar deitu Azpeiti'ra: Sebilla gaizki zegoala Itziar'en.

Azpeitiarrak joan kotxearekin da Azpeiti'ko miserikordira eraman, da sendagillearekin sendatu.

Baiña denbora askoan etzan bizi izan. Antxe, miserikordian, il zan. Bere arreba kalekoa ere antxe il zan.

Kristau onak ziran aiek, anai-arrebak, eta Jaunak berekin euki ditzala.

Azpeiti'ko baserri baten gertatutako gertaera zelebren bat argitaratu nai nuke orain.

España'ko gerra zibilla zebillen. Baserri ortan, mutillak danak gerrara; guraso zarrak etxean morroiakin.

Udazkenean sagardoa egiten zuten, etxean edateko, auzoko baserri baten. Gurdian artu ta barrika baten, abereakin, ekartzen zuten etxera.

Sapatu baten ekarri zuten etxeko atarira illuntzean. Barruan zeukaten barrika aundi bat betetzen asita. Ara aldatu bear zuten pertzak in edo baldekin.

Urrengo egunean, igande-goizean, goizean goiz morroia joan da eleizara, ta nagusiak eta etxeko andreak pentsatu dute, atariko gurdian daukaten barrika-sagardoa barruko barrikara aldatzea; eta, pertzak eta baldeak artuta, joan omen ziran barrika ondora.

Barrikak zulo bat zuan, kanil-zuloa, kortxoakin itxita; andik atera bear sagardoa pertzara ta baldera.

Asi omen ziran sagardoa aldatzen andrea ta gizona.

Gizonak, barrikari kanil-zuloan sartu ta atera egiteko, ziria ez omen zuan egin. Gizonak beatzarekin jota, kortxoa barrura bota.

Asi omen zan andrea eramaten barruko barrikara, ta gizona barrika ondoan geldi, beatz aundia barrikari sartu ta atera egiñaz, ta andrea asarretu zaio. Esan dio:

— Barrikari sartzeko ziria zergatik ez diozu egin?

Gizonak erantzun:

— Ezta bear ziririk! Nere beatzak ondo egiten du ziriaren serbizioa!

Andreak esaten dio koleratuta:

— Alper aundi orrek, egoteagatik asmatu dek ori!

Bere kolera botatzen dio baldekada sagardo burutik bera gizonari, ta:

— Euk karriatu zak, nai badek! —esanda, andreak alde egin.

Gizonak ezin alde egin, beatza barrikari sartuta zegoan da atera ezkerro sagardo lurrera joango zan-da. Morroia elizatik etorri arte, alaxe egoteko etsian jarri omen zan. Gizon arek pazientzi aundia omen zuan, da bearra.

Orrela, ba omen zegoan morroia etorri-zai. Pentsatu omen zuan, morroia etorri bitartean, gurdiaren atzean exeritzea. Asi omen zan exeritzen da gurdia atzearen gaiñera erori ta barrika piska bat mogitu, ta erortzeko bildurrarekin esku batekin barrikari eutsi eta beste eskuko beatzarekin sagardoari eutsi. Arek pasa

omen zuan penitentzia, morroia etorri birtartean!

Alako baten etorri omen zaio morroia, eta arek esan zion:

— Zertan zaude orrela?

— Ni emen larri natxiok, sagardoari ta barrikari eutsi ezinik!

— Andrea ez al dago, ba, etxean?

— Bai, etxean zio; baiña asarretu ta baldekada sagardoa burutik bera bota zidak, eta dana bustita emen natxiok!

Orduan morroia joan zitzaion, da aldatu omen zuten barrungo barrikara.

Nagusia zorra bizarra kentzera joan omen zan andik, eta esan omen zuan oso errez kendu zuala. Bizarra sagardoarekin beratuta zualako izango zala pentsatu omen zuan.

Nagusia ta etxeko andrea oso onak ziran. Morroia ere bai. itziartarra zan. Danak il ziran da Jaunarekin zeruan gozatu ditezela.

Au ez da ipuia; gertatutako garbia da. An orduan zegoan morroiak neuri esandakoa.

Olakoxeak dira azpeitiarrak. Asarretu ezkerotakarraldi batzuek badituzte, baiña jeneralean pake osoan alkarrekin bizi diranak.

Tranpa-puxka bat badute apustueta eta olako gauzeta; baiña bestela persona onak dira, leialak eta nobleak, bromosuak eta triposuak; alegia, gizon umorezkoak eta jatun aundiak. Tabernan jaten eta edaten oneneta-koak, eta berriketan ere bai.

Azpeitiarrakin ni beti ondo konpondu izan naiz, eta sekula etzait bururatu nere errian bizi ez naizenik.

Azpeitia'k eman zion bukaera nere basoko bizitzari, eta Azpeitia'ri eskerrak askoz obeto bizi izan naizela uste det. Zorionak, beraz, eta eskerrik asko, Azpeiti'ko erriari!

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. *B. Iraola*: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. *A. M.^a Zabala*: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. *A. M.^a Labayen*: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. *P. Larzabal*: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. *F. Imaz*: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak. (*Aitua*).
26. *A. M.^a Zabala*, *A. Larraitz*, *Mir*: Periyaren zala-partak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak. (*Aitua*).
29. *T. Alzaga*: Burruntziya. (*Aitua*).
30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. *M. Soroa*: Baratzen. (*Aitua*).
32. *M. Elicegui*, *A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).

33. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak.
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara.
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa. (*Aitua*).
42. *Uztapide*: Noizbait. (*Aitua*).
43. *Bertsolari-txapelketa*. (1-I-1965). (*Aitua*).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. *J. M. Satrustegui*: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. *Basarri*: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrustegui*: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. *Bertsolari-txapelketa* (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*).
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan María Zubizarreta bertsolaria (*Aitua*).
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*).
84. *M. Matxain*: Uste gabean.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria. (*Aitua*).

91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*).
92. *I. Alkain, A. Zavala*: Alkain aita-semeak.
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*).
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari.
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. - Ezkioko ta Segurako itxuak.
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsolaria.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak.
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria.
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak.
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari.
- 117-118. *Balentin Enbeitia*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari.
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J. M. Arrizabalo, A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.



1051005

G-128/18



AUSPORA
LIBURUTEGIA